

Tomas Agirre «Barrenso»

UZTARO

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Uztaro*, Tomas AgirreBarrenso. Editorial
Vasca, 1950

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00301.htm>

I

DORRONSORO-BASERRIKO ALABA EDERRAK

Ziztualdi larri batez bere ibillia adierazi ondoren, pizti lerregiñaren antzera, arnaska bizian sartu da Zarautzen, burdin-arietan labainka, Donostiko bultzia. Burutik darion kea da daramakin ibilliaren erakusbide.

Jendetza ugaria jatsi da bultzitik. Udaldia egiteko itxas-errira dijoazen zaldun eta andere; inguruko errietan salduketak eginda, saskiak utsik, eta besoak, oñak eta zangoak utsago, dakartzkiten arrain-saltzalle; eta Donostin izandako baserritar txukun.

Utzi dezagun, ordea, guk nor bere bidean; ezpai digu oriek danak nora dijoazen jakiteko ajolik, eta gijoazkion bultzitik jatsi dan anderetxo bateri atzetik jarraika.

Neskatxo liraña, benetan, begien aurrean dijoakiguna. Emeretzi urte bai ete-ditu? Ez digu eman oraindio aurpegia aztertzekeo betarik; baña ginbailtxo zuriaren azpitik dagertzakion ille-txin-

txustak, ez al-dirudie urre-izpitan austatuak? Ibilkeran, berriz, itxasondoko seska lerdenai aizearen mendean baño biguñago ta egokiago kulunkatzen zaio gerritxo zumea.

Liburu-txorta bat daramaki ezkerreko gal-tzarbean, eta bestaldeko eskutik zintzilika larruzko bide-zorrotoa. Zeren zalantza sortu ete-zaio bat-batean? Norbait itxaro ote-du? Zeramazkin oinkada laisterrak geldiagotuz, esker-eskuitara zalantzan begiratu ondoren, arinka zearkatu du bide zabala.

Ara! Norbait agiri da aurreko zumardian ezkutu-zalantzan. Burua erakutsi nai ez duenen joeran alkarganatzen dira biak. Ez al-dezue begiztatu iñoiz maitaleak alkarrereri egin oi dioten agurra? Ez dira olakoetan agoak oparo mintzatzzen. Begiak azaltzen dute, alkar iretsi bearrean, mintzoak ez dezakeana.

Baña, Jaungoikoaren Ama! Begi-aurrera datorkigun au al-da gaztetxo xaloaren lilluratza-lle ausardia? Irisagar zimela baño beltzago da mutilla; aul eta belaxka, gañera, tankeraz. Maite-eizean, orratio, eiztari ikasia izan bear du. Gazteñoen belarrira mintzo biguñez itz eztiak

ixurtzen oitua. Ero utsa izan-da, eguzkia bera bezain eder dan anderetxo ikasigabeak, zoroki ederresten du mutil zimela. Maitasun-jokoak ez dute izan egundo legerik. Ez izango ere. Begietan lauso astuna sortzen baitue.

Inguruibil nardagarriz ondoratzen zaio mutilla neskatxoari eta, bein zumardian barrena zerbait urrundu diranean, besapetik ausardiro eskua kiribilduz, bideari ekiten diote. Bereolaxen zorarazi oi du sugeak begiratu zorrotzez txoritxo buruariña.

Zarautzko uritik Inurritza deitzaion auzoaldera joateko bide zabal bat ba-da. Ura baño ezkutuagoa artu dute, ordea. Errikoen ikusmiña itzuri nai, alegia. Izan ere, ibillaldi orietan ikusi izan bai'lu norbaitek neska burugabea.!

Mako ikuseziñetik zintzilika itxas-magalean eguzkia astiro kotatzen dan bitartean, zumardiko babesetik-zear, mintzo ixillez alkarri maitezintak ixuriz, dijoa bikotea. Bein sapaiko lasto igarrean sua garretan piztu ezkeru, zenbat-eta sapaia ezkutuago, ainbat-eta okerrago. Ixilpeko gauzak izan oi dira kilikagarrien. Zabaldian gel-

diunea edo esia izan dun ibaia ere, orrelaxe oldartzen da uaiztean maldarretatik amilka.

Illunabarra da. Ezkutu guztiak aizatzen dioe garai ontan biozpearri itun-tantoa. Atadiko aul-kian eserita, eguzkiaren azken mosua atsartuz, itunkiro marraskatzen ditu agureak gaztetango egiteak. Gauargia piztu bitartean datorkio zorrotzen emakume alargunari ere senar galduaren oroitzapena. Bereolaxe maite-bideak eragotzi diozkaten gaztetxoak ere jaulkitzen diozka illargi irtenberriari, asperenka, gogoko amesak. Ames zoroak! Egiztatu-eziñ amesak geienezan! Egoetan erioa daramakien amesak, maiz. Ez, ordea, gaz-teari zarraren zentzunik eskatu. Urteak erakusten duten jakintza da ori.

Utzi bikotea maite-kiman eta gijoazkion neskatxoari aurretik bere etxera.

* * *

Zarautz! Ona emen azken-arnasa laster eman bear dun olerkari nekatuarentzat atsedentoki egokia; auxe izango luke, ba, atsegintokirako sarbiderik zoragarriena. Itxasaldetik begira,

mendixka artean, egaldia eratxiz, kotatu dan usoaldra dirudi uritxoak. Itxasbazter onetan jaso ditue aberats-jendeak jauregi dirdaitsuak atse-den-aldirako; baita atsegin-aldirako ere. Itxas-ondoan ugiñak jarrairo miazkatzen duten ondar-tzak, eguzkiaren galdapean, ez al-du urre-uztai baten antza?

Lurraldetik itxasora begira, berriz, itxaspiz-tien iduri, zaindari bi ditu erriak: ugarte bi. Arkaitz larrugorri dira biak; ugiñen erasoak laz-tuak; itxasoakin azpi-burruka gorrian dabilzan itxaspiztiak. Azpiko jarduna-arren, ordea, beti tinko ta beti zutik diraue arkaitzok.

Molarri du izena, Mendibeltzaren gerizpean eskuialdetik erroak urperatzen ditun ugartetxo-ak. Getari txoragarriaren bular-gaña da, berriz, ezkerraldeko arkaitz aundia. Zaindari oen artean azaltzen du erriak aurpegitxo zuria.

Zarautztik Oriora dijoan bide-ondoko zelaian, orain Madoz-ena deitzaion ibilbide zabala agiri dan tokian, etxealde aberats bat ba-zan aintzina. Eta lenagoko gertaketak berriztatzen ditugun ezkerre, goazen etxeondora ta orraztu ditzagun etxea ta etxe-inguruak.

Amaika ekaitzaldik eta eguzkialdik isastu dute Dorronsoro baserriaren tellatu-galdorra! Ez diote erasan, orratio, ez ekaitzek, ez ugoldek, ez egoaizek. Orain bosteun urte bezain aldakaitz dirau muño-gañean itxasoari gibebez. Ordun bezelaxe orain ere, urteoro egiten dute eliztxoriak kabia tellatu-egaleko gapirioetan; baita enarak ere orma-zirrituetan.

Egoaldeari damaio Dorronsorok burua. Zurezko balkoe zabala du etxeaurreak alderen alde; eta ataditik gora kakoetan anduak josiz dijoazen matsondo bik tellatu-ertza atzematen dute doidoi aien-luzeka.

Landuak ditu leioetako arriak. Eskuialdetik buruaz ortze-maindira zulatzen dun dorreak, ez al-dirudi gizaundi baten lepo-zintzur makurgaitza? Dorre ortatixek datorkio etxeari Dorronsoro izena. Ez du, agian, baserri-antzik; ezta ere jau-regiarenik. Aintzinako gazteluena, obeki.

Ona emen giza-gazte bikain bat une ontan atalasean barrena, esne-kaikua eskutik zintzilika daramakiala. Balendin da; etxeko otseña. Orain zortzi urte, etzuan izaten iñoren laguntza bearrik golde astuna, lasto ariña bezain errez, bizka-

rrean sorora eramateko. Gaur, ordea, ez du beste munduko lanik nekezaritzan. Nagusia il zanez geroztik etxeinguruko lan-xamarrak erabiltzea du egitekorik bakarra. Ezari-ezarian egiten ditun lan oek, ez dakarkioe neke aundirik.

Bei gazte bi euki arren, ez du izaten udaburuan negurako belarra ondu bearrik. Ezta ere negutean aintziarretan arbiondoak saskika soroetik etxeratu bearrik. Alea ta zai-orea sarriago izan oi dute askaondoetan Dorronsoroko beiak belarra ta arbia baño. Ez dauzkate, ba, abereok larrain-lanean jarduteko; etxerako esnea aski izatearren baño.

Esne-kaikuaz Balendin etxe-barrura dijoan bitartean, ona nun datorren onuntza emakumetxo bat. Meakezurrean tinkaturik daramakin saski sabeletik eskukada artuta, ara nola dijoakien oloai, txingor-alea bai'litz, artoa lur-gañean jauzika. Bitarte orretan, auots garbiz dagie dei egaztai neskak: «Pur, pur, puuuur...!»

Auxe da zalaparta ta iskanbilla! Nundik demorrio sartu dira onenbeste ollo ta ollanda? Saraspean aztarrika ari ziranak; sagarrondoan etzana zutenak; kotaratzeko ate-zulorantz zijoa-

zenak, danak, sapelaitzak batbatean ikaratu ta uxatu izan bai'litu bezelaxe, egoak zabaldurik, emakumetxoarengana dijoaz karakaz eta zala-partaka. Ez da entzungo aurki mokoka zorrotzen takateko legorra besterik. Goizaldean eta iñularrean izan oi dira egaztiak gosetien. Peapoa naiko bete ondoren, kotako abetxoetan izango dute laster gau-loa.

Ontan, ordea, zer usaindu ete-du intxaurren doan etzanda zegon zakur zuri-nabarrak? Etxeatzeko orma gañetik jauzi bizkorra eginda, an dijoa zurrunbilloan norabait? Ijitorzarren bat sendu ote-du? Ala ba'litz, e'luke giro izango ijitorzarrak, arrano pola! Indartsu ta burrukalari baita zakurra. Baña, ez, ez!

Ba-zun zakur erneak etzanaldia astintzeko zioa. Ara nun datorren sagastiko bidetxigorretik onuntza lentxeago bultzitik jatsi dan neskatxo pertxeta. Len baño ere ederrago dirudi, eguzkiak iñularre ontan bialtzen ditun azken-izpien argira.

—«Lau!» «Lau!» Geldi ago, zoro ori! —oiudagio zakur zaunkari ta jauzkariari.

Eta itz oek jauki bitartean, zakurrari igesegiteko alegiñak dagizkio. Irri-karkaraka ezpañak

ideki dituanean, ez al-dirudie edurrezkoak ezpain-ondoetako marrubien artetik agiri zaizkon bitxiak?

—Madalen...! Ez gindunan uste gaur etorriko intzananik, diotsa maitekiro artalea zabaltzen ari zan emakumetxoak.

—Gaur goizean amaitu dizkiñat azterketak eta zuek lenbaitlen ikusteko kilimaka nerabilkinan biotza. Orregaitik etorri naun gaur.

Ezpañak ziotena, ordea, biotzondoak gezurtatzen zion barrendik. Beste zerbaitegatik itzuli zan ain goiz, gaixtoa! Ez, baña, azaldu nai.

Baita ere irten da etxetik, txakurraren zaunka-otsetara, etxekoandre ernea. Neskato bien ama da; Josebe etxekoandrea.

—Ara...! Ire billa biar Donostira joatekoa nindunan-da, nola etorri akidan orren azkar? —diotsa alaba gazteenari, mosuka laztanduz.

Ba-da oraindio etxepean beste norbait ere. Osaba Martin, apaiza. Eskuarteetan darabilkin lanetik itzotsak atera due-ta, begiaurrekoak bekokira jasoaz irten da balkoera. Besteen galdera berriztatu du onek ere:

—Nola etorri aiz gaur? Ondo atera al-aiz azterketan?

—Ez aurreko urteetan bezain ondo; baña, tira, bukatu ditut, beintzat, nere ikasibearrak. Orain atsedena. Orain pakea. Au nire poza.!

Itz oek esan-garaian, eltzen dio berriro amari beso biakaz lepotik eta, maiatz-loreak bezain zoragarrizko algara ozenak zabaldu bitartean, mosuka bizian jan bear zula zirudin.

—Utzi nazan, utzi, Madalen. Bestela, biar goizean ugelduz josia jeikiko naun orrelako igortzia-kin.

Zerk ete-zemaion biozpean Madaleni alaingo poza? Nork aztertu lezake, bear ainbatean, emakumetxo biurriaren biotzondoa? Ez da errez. Alere, nik dakidana da, gau artan lo lasaia izan zutela etxeko danak: Josebe etxekoandreak, osaba Martin apaizak, Libe aizpak, Balendin'ek, Mikele neskameak, baita ere zakur zuri-nabarrak! Madalen'ek orratio, amaika esnaldi izan zitun. Zerbaitek eztenkatzen zion, noski, irudi-mena!

Baña, mataza nastu ta biurritu baño len, aria ondo arildu ta albañatzea dagokio edeslari ika-siari. Beraz, artu ari-muturra-ta, ekin dezaioGUN arilkaiari.

Ondare aberatsa artu zun Dorronsoro'ko nagusi gazte Mikel'ek gurasoengandik. Bildu omen zitun iñoiz garitan berreun gaitzeru. Artotan ere, bai, beste orrenbeste. Euki zitzakean lasai aski amar bei okullu zabalean. Utsa adiñeko mastia ere ba-omen zun Iñurritza'tik zear dijoan errekatxo ondoan. Geiagotu orri, inguruko baserritarren eskuetara, erabilli eziñik, utzita zeuzkan sallah eta aitagandik urre-dirutan artutakoa. Bazter aberatsa zan, noski, Dorronsoro.

Azpeitiarra zan jatorriz Mikelen emaztea; eta ura ere etzan eskontzara esku-utsik joana. Bazuten, beintzat, Joseberen gurasoak zer emana. Dendari ziran, ale ta irin-salerosketan aritzen ziranak. Aintziñakoa zan denda; leendik izen ona zekarrana. Ondorengo, erosleak asko ta onak, eta eskuarte lasaia zuen.

Artueman aundia izan zun aitagiarebakin Mikelek ezkondu zanez geroztik. Ari saltzen zioz-

kan etxean bildutako aleak eta aren dendatik eramaten zitun, berriz, gurdika etxerako bear zitun irin, zai eta bababeltz. Au zala-ta, sarri izaten zan Azpeitin emaztearen jaiotetxean. Etziran artean sortu gaur Zumaiatik Zumarragara ibiltzen diran bultzi apañak eta eguneroko bidai-zalpurdian joaten zan Azpeitira ta andik aitagiarrerebaren zalpurdi ariñean geientsuenean itzuli. Balendin izaten zan zaldizai.

Egun batez, baña, berandu arte lotu zuten eginbearrak eta, illunduz gero irten ziran Azpeitik. Len galdutako astia irabaztearren, zailu zeramazkin zaldia Balendinek. Zaldien atzazalak eta gurpil-uztaiak mendiarteko zokondo ixilean zegien burrunbara, erdi-lotan zijoan Mikel.

Ontan, karrasi estua entzun irudi zitzaien bide-ondoan. «Entzun al-dek, Balendin?» —galde dagio Mikelek. «Bai, min-oiua iduri zait» —dantzui arek. «Gelditu egitzak, ba, zaldia. Ikus dezagun nor dan».

Larri zetorren bide-baztarretik oñaze-karrasia, eta gurpil-otsa eta azta-otsa atertu ziranean, gizon bat zetzan lurrean aieneka. Urreratu ziran biak minoiuka ari zanaren ondora ta, eskuak

egozteko unean zeudela, gizon bi sortu ziran illunpetik ustegabeen. Arnasa artzeko betarik eman ere gabe, eskuetan zekarzkien makillez egundoko zartakoa eman zioten Balendini burukonkorrean. Kordegabe erori zan mutilla.

Ustegabeko eraso nolabaitan gaindu naiean, sakelean zeramakin suizkillua ateratzera zijoan Mikel; baña artean lurrean etzanda minoiuka ari zan gizona batbatean zutitu zan jauzi ariñez. Zalpuriaren aurreko argiontzia argira, galtzairuak dirdir egin zun aizean zearka.

Saiespetik odola barbarka zeriola oldartu zan bide-erdian Mikel. Astiro arakatu ziozkaten soñean zitun jantziak. Bost-milla laurleko bazeramazkin. Ostu zutenaz, basoko adaburuen ostopean itzali ziran zailu bide-lapur gizaitzalleak. Kordea bereala letorkiokelakoan, oilari maltzurak, igesegitean, beste ukaldi zitala erantsi zion aiztoz bularrondoan Balendini.

Andik ordubetera, basakatu zaurituaren antzo, arrastaka alditan, eta moskorra bezela, balantzaka, besteetan, zijoan norbait, bazterrik bazter argiontzia eskuan zula. Emakume ikarati batek begiztatu izan ba'lu tankera aretan gizo-

na, gau-agerkun edo izukari bildurgarria iduriko litzaiokean; baita ere, arin igesegingo zukean garrasika gaupiztiarengandik. Balendin gizajoa zan. An urrean zegon baserri batera zijoan laguntza eske odol-jario.

Etzan izan ain gaiztoa Balendinen zauria. Saiets-ezurrean oztopo egin zun, nunbait, gal-tzairuak eta etzion barrengorik ezer ikutu. Larri-goia zan, ordea, zoritxarrez, Mikelena. Ilbearre-koa, beintzat, urdailburuan egin zioten eten sakona. Urrengo egunean oso gaizkitu ta il zan. Alabatxo bi utzi ziozkan alargunari: Libetxo ta Madalentxo.

Arrezkero, nagusi gaztea il zanez gero, oro aldatu ziran Dorronsoroko goraberak. Astunegi zan alargun errukarriarentzat baserri artako zeregiñak erabiltzea. Ba-zun Josebek anai bat apaiz. Goierriko erritxo batean ziardun apaizburutzak zemazkion arloetan. Ari eskatu zion alargunak zorigaitzean laguntza.

Dorronsorok zitun sallik aundienak eta urruti-koenak salduta, lendik zeuzkenez gañera, salduketan bildutako diruaren etorriakin eta etxeon-doko sail-ondartxo erosoakin, danak lasai ta

buruauste gabe bizi litezkeala-ta, joateko, arren, beregana, eskatu zion arrebak. Gogoz makurtu zion burua Martinek arreba maitearen eskariari.

Orduezkero, alkarrekin zoriontsu bizi izan ziran. Martin apaiza zan ondasun guztien erabil-tzale. Otseintzarako artu zuten Balendin zintzoa, berriz, etxeko lanen arduradun. Etzitzaion egun-do damutu, ez oneri, etxe artara joana. Sendikoa bezela artu izan zuten beti Dorronsorori.

II IGANDE-GOIZA

Bai alaiki dagiela gaur txinbuli ta itzulbira Inurritzako eliztorrean joaleak! Igande-goiza da, inguruetako sinestedunai deika diardue egiñalan. «Atozte, atozte!» esan iduri dute.

Joaleen deira, jaieguneko loaldi nagia astindurik, bidetxigorretan beera, soroak eta sagastiak zearkatuz, mezatara dijoaz baserritarrak. Atzo iñular-arte artajorran ari-izan zan aguretxo esku-dardariduna; Mollarriko arkaitzetan arrantzuz ekarkorra izan zun mutilla; aurtxo jaioberriaren negarraldia nolabaitan ixillarazteko, noizpenkako bularraldiaren ondoren, seaskari eraginka, gau osoan jardun dan etxeakoandre gaztea; neskatz ameslaria, andre ta gizon, zar eta gazte, bildu dira Pelagi donearen elizatxoan.

Oso goiztar ibillia da Balendin. Meza nagusira joateko asmoa du-ta, etxealdean izan oi diran zeregin ugarietaik aundiaurkienak bukatuta utzi nai ditu ordurako. Lentxeago izan da txerritegian. Esku-azpiatz bizkarrean txarrama atseginki-

ro igortzi bitartean, umetaldeak kurrinka ta jauzika inguratu due; baña arietako bati atzemateko kiñaldia egin dionean, an joan zaio txerritalde izua igesi purruxtaka ta jauzika. Zarataka lerdazkatzen ari da oraindio txarrama, arraskara ixuridion ore-salda.

Marru estua ateratzen due beiak, goseak ezententzen dituanean. Dorronsoron orratio, marrualdirik ez dezue entzungo. Egunean bi aldiz garbitzen diozkae Balendinek askaondoak eta, aurreko ondakinak jasoaz, janari berri ta garbia oparo ixuri ere. Etzaio ere aztuko, beiak ain miazka-atsegin izan oi duen gatz-koskorra aska-baztarrean jartzea.

Beienak bukatutakoan, zekor gazteari ekingo dio. Katea askatu ta amaren ugatz aunditu ezin agortura eramango du. Errapeari eldu ordukoxe, buru-ukaldika erasoko dio zekorrak amari. Nork esan ez, aren erasoak ikuski, buruaz saiets-azpia zulatu bear ez dionik? Ore-opillez asetuko dio ezlari oituak iretsi bearra.

Goiz-lanak amaitu dituanean, jaiegunetako soñekoa jantzita, apain eta txukun, errege seme bezain nagusi, dijoa elizara mutil gazte jeikia.

Sarrerako ateondoan jartzen dira, meza bitartean, gizonezkoak zutik. Edota, bestela, goiko korura igo. Ara igo da Balendin ere; eta aurreko zear-agan besoak ditula belaunikatu meza-emalleari begira.

Atzealdean zutik dauden baserritar eta arrantzale zarpillen ikutu-bildur bai'lira, aldare ondora urbildu dira udaldiar aberats batzuk. Oneraño, eliz-barruraño, dakartzkie zaldun eta andere aundi-iritzi oek, Jaungoikoaren Semeak bere jarraitzalleengandik uxatu nai izan zitun aundi-naia ta arrokeria. Bular-gañari takatzen dioen damu-ukaldia ere ingurukoen on-iritzia irabazteko ez ete-da obeki maiz, garaiko damuaren ondorena baño? Soroskia zabaltzean ere, legenardunena bai'litz, itzuriko dute onelakoak beartsuen esku-ikutua.

Mezatako otoietara erne egon oi da Balendin begiramenez eta egoki. Gaur, ordea, liztorra bezela dabilkio zerbait belarriondoan eta meza-emallearengandik sarri dijoazkio begiak beste norabait. Ontan, oztopo larria egin diote begiak. Ez da makala izan biotzari eragin dion zarrastaldia. Ezin ditu, orduetzkeru, esiratu oldozkunak.

Erdiko zear-aulkien buruan dute jarleku emakumeak ezkerretara. Anderetxo bi agiri dira gaur ezkerraldean, ez udalditar, ez erbesteko; Zarautzko laba yori biak, larrosa zuriak bezain eder eta naro. Libe eta Malentxo dira. Bai al-da, gero, an inguruan bildu diran andereño aundizkien artean neskato oen bien ukondoraño urreratu litakenik edertasunean? Ezta urrik eman ere.

Ama Birjiñaren aulkian jarriko lituke gogoz Balendinek neska biak. Ain eder eta ain zerutiar deritzaizkio. Loitu edo zimeldu ustez, eskuarteartean artzeko bildurra damain lili zuri kutsuga-beak deritzaizkio. Arrebatxoak izan bai'litu bezelaxe, maite izan zituan mutillak ordurarte.

Orain, baña, udaburuz zerualdean batpatean sortu dan odei beltzaren antzean, biozpean mozorro bildurgarria sortu zaio. Ez daki zer dan, ez daki nundik sartu dan; artxoak ez luke, orratio, zaltegarriko joko sagar-alea biotz erdian.

Zer oartu ete-dute Balendinen begiak ustegabe? Neskato bien buruz-buru, eskuialdera, aundizki-itxurazko gazte garatu bat dago zirkiñik egin gabe ezkerraldera begira. Nori begiratzen

ete-dio zalduntxo beztaka lotsagabe orrek? A!
Oraintxe alkarganatu dira begiratu zorrotz bi eta
begitik begira tximistak zijoazela zirudin.

Begiratu ariek egin zioten zulatu mingarria
gainditu eziñik, oiugin zun bere baitan Balendin
errukarriak:

«Ni al-naiz, zapogorri uts au, nere ezerezean
eguzkira begiak jasotzen ausartu naizana? Ain-
beste urtez egite onak eta maitasuna besterik
artu ez dun mutil eskergabea al naiz ni? Ni buru-
gabe utsa? Ago ixilik, ero ori!»

Isil-izketa onek kolkopean aizatu zion ekai-
tzaldiak eraginda, aurreko burdin-agari izugarriz-
ko takatekoa erantsi zion bekokiaz, oargabe.
Logaleak eragindako burutaldia zalakoan, ingu-
ruko lagunak, zear-begiraka, esan zuen kolkora-
ko: «Loak artu dik, arraietan, Dorronsoroko
Balendin». Etzekien, ba, ariek, biotzondoak piz-
tutako aizealdi aserrearen zartakoa zanik ua.
Ordutik eta meza azkendu zan arte, beso kuru-
tzatuen gañean burua zula egon zan biotz-illun
ekaitzaldia gainditu eziñik.

—Aizak, Balendin, ametsak eragotzi al-dite bartko loa? —galdegiten dio maxioka ta axelari Zaldubiko mutil gazteak, elizatik irtetzean.

—Nori zaiok ajolik bart lorik egin dedanentz? —darantzuo arek muker eta betillun.

Eta, oituraz beste, lagunekin elizondoan izketan gelditu ere gabe, etxera dijoa artez, burumakur eta gogoa goibel. Alaxe dagerkigu zerualdeak ere aurpegia gaur. Eguzkiak bultzakatzen ditu noizean beinka itxasaldera odei illunak. Berela itzultzen dira, orratio, len baño ere beltzago ta astunago. Sargori dago, benetan!

Biozparreanean daramakin suak kiskali bear dio Balendini ere kolkoa. Ezpaitaki egoaizearen berotasuna ala barrendik datorkion kiskaltasuna danentz. Arretaz eta biziki ekin dio lanari, etxeratu zan orduko. Garbitu ditu berriro bei-askak; txerritegian izan da; eman die olloai artalea. Irauliko luke dana gaur mutillak azpikoaz gain.

Oartu du Josebe etxekoandreak aren atergabeko jardunbearra ta ara zer dasaion:

—Ez al dituzu, ba, goizean garbitu askak? Ez al-diezu eman leen olloai, beiai eta txerriai jatekoa?

Gaur jaieguna da-ta, bi aldizkoa ere merezi dute —erantzun dio bigunki otsein leialak.

Nola eman etxekoandre bioztunari barrenaldean zerabilkianaren susmoa pizterazko biderik? Lenago emango zukean soñeko lurrua.

Etxeondora urreratuz datortz, bitarte orretan, bidez-bide oinotsak. Arkumearenak bezain zailu ta arin dijoaz oinkadak lur-gañean. Nare ta garbi dator auotsa ere. Biaramonean jaiotako txaltxolari begiratzera okullura dijoala, iztunak dakarkien alkar-izketari entzun-erne jarri da Balendin. Ara entzun eta oartu duna.

—Ez al-den ikusi oraindio txal jaioberria, Malentxo?

—Ez.

—Oraintxe joango gaitun nai baldin ba'den. Nolako polita dan ba'ekin? Edurra baizen zuri din soña ta kopeta-erdian izarra bezalakoxe tximita orixta zeukan. Ara! Idikita zeukanagu okulluko atea. Norbait ba-zebillen barruan.

—Ez ete-gaitun zikinduko or? Obe diñagu biarko edo etzirako uztea.

—Ez, ez. Oraintxe ikusi bearko den.

Eldu besotik aizpari ta an daramaki Libek okulluan barrena indarka. Ez du onek oñak nora dijoazkion ere oartzen. Bestea, ordea, muzinka ta naiezik dabil Liberen besotik arrastaka bai'li-joa; eta, ibil bitartean, onelan dagi oiur:

Ara! Zikindu naun! Ai nere oñetako erosi-berriak! Loitu zaizkidan. Jesus ene! Goazin arin emendik.

Libek, baña, bitxikeriz eta parrezka eragoz-ten dio irteera.

—Begira, begira. Ikusi al-den iñoiz onelaingo aberetxo politik? Mosukatu ere egingo niken. Ain garbi ta txukun zegon.

Esan eta egin. Mutur txiki lerededun borobillean mosukatzen du maitekiro Libek txaltxoa. Ez damaio nazkarik, ez ikararik. Aterantz igesika dijoa, bien bitartean, Malentxo oiuka.

—Ori zikinkeria egin denana! Beti baserritar traketsa izateko jaioa aiz, noski, dasaio Liberi.

—Bai, bai. Ain zuzen ere, baserriko zeregiñetan ibiltzen naun atsegiñen.

—Bestelakoxea den uriko biziera! Nazka zemaiane niri beñepein baserriko lanak —jardetsi du Malenek.

—Nazka? Bai al-den, ba, Iudian biziera au baño atsegintsuagorik eta zoriontsuagorik...? Ez al-da egia, Balendin?

Eguzkiaren irriñoa bezelakoxe begiratu zolia bialdu zion, mintza bitartean, Libek Balendin mutillari. Begiratu arek, orratio, Etzion araingo kilikarik eragin. Etzion biozpean naspillaldirik sortu. Beste nunbaitetik zetorren ekaitza pizten zun aizea.

Oñak nun ezartzen zitun oartu ere gabe irten zan Libe ederra okullutik alai eta zoriontsu. Etzun arek urietako dirdaitasun zoroaren gutzia-rik. Ez jauregietako bizitzaren egarririk.

Andik geroxeago, bei-askaren gañean beso-ak jarrita, burua besoartean zula zegon Balendin itun eta muzin. Arek artu zun biotzean bigarren eztenka zulagarria! Izan ere, itxumustuan auke-ratzen du maiz biotzak ibilbidea ta, astoak bide-ondoan aurkitzen dun larreari bezela, edonundik ekiten dio zoro ta oargabe, naiz eriora, naiz ondamendira joan. Gizaldiaren zoria!

III

ZARAUZTIK

GETARIRA BIDEAN

Igande-arratsaldea da; baserriko lanetan diarduenentzat atsedeen-aldi ta jolas-egun. Egin-xamartu ditu Balendinek bazkalondoan gaurko eginbearrak eta, lauretan, oitura dunez, Lopategiko Agustinen billa dijoa.

Ogeta zortzi urte ditu mutillak. Ez da gizaundi, egia esan; baña bai jeiki bikañekoa, sendoa ta kiriotsua. Ez dio ekiñak berelakoan erasango, naiz-eta neke aundikoa izan eskuarteko lana. Soin zailua ta biguna du, alere. Katuaren arintasunaz dagi jauzi laisterlakoan eta dantzatzen danetan. Txikitandik dakarzuki zailutasuna ta zaildasuna. Amaika jokaldi egiña da mutil koskorretan Azpeitiko pelotaleku zarrean!

Marka oargarri bi egin zituan beiñola. Pelotan ari zan, bein batez, jolasean bera besteko lagun batekin. Ustegabeko ziriak sartzen zizkoen alkarrereri aurrealdean eta inguruan zeudenak parre-argara zegien olakoetan ozenki.

Ontan, baña, ikusleetan norbaitek biziki zirikatu ditu gazteak eta laster berotzen dira. Baita bietan nagusia zein ote-zan eztabaidaka asi ere ingurukoak. Itzak mindu ziran eta ara nola sortu zan jokaldi arrigarri bat. Bietako batek porrot egin arte jarrai bear zioen jokoari. Beraz, iraunik aundienekoa izango zan irabazle.

Goizeko amarretan asi zuten jokaldia eta arratsaldeko ordubietan atertu. Lerreginda, jo ta jo, patsetan, geiago eziñik, ari zirala, legamia bezelaxe zurbilkatu zan batpatean Balendinen aurkaria ta zurrun oldartu atsanka itobearrean. Etzan arrano pola, mutil makala. Balendin, orratio, buruzago jokatzen zekiana izan eta, gañera, indarrak neurkiroago erabiltzen ikasia.

Mendi-eguna zun, beste egun batez, Azpeitiko gazte-aldra batek. Pagadi bat zearkatuz maldar-gora zijoazela, sapelaitza egatu zan pagobururitik. Kabia zeukan egapiztiak adaburuan. Zugaitz lerdena ta luzea zan. Berrogei oin bazitun gerri soillak.

Ezetz ta baietz igoko, eraso zioten mutillak alkarri. «Ez dek Azpeitin orren gañera igoko litza-kenik» —esan zun norbaitek. «Ezetz?» Txistua

egotziz, zartatu zituan eskuak alkar eta, sugea bezela gerrian kiribildurik, belaunaldika ekin zion Balendinek. Gerrialde leuna ta irristerreza izan arren, belaunburuak eta besoak bertan errotu zitula zirudin. Adaburuko besanga-gañean eserita zegon amar minutu barru mutilla ta an erori zan sapelaitz-kabia, lur-saskia bezain aundi, zotzez, zaborrez eta arbaztaz egiña.

Atera ortik norañokoa dan gure mutilla. Ez da burruka-zale; ondo neurtu, orratio, aren aurrean jaulkitako itza. Ez aikomaikoetan eupada arrorik jaurti; ez titian-potian burugabekeririk ixuri. Berela elduko dio olakoetan zoroki jaulkitako itzari. Bai damutuko ere laster mintzari oargabeari, arinkeriz esandakoa.

Aspaldiko lagun zintzoa du Balendinek Lopa-tegiko Agustin. Zernaitarakoa ta gizaseme bikaña da au ere. Donostiko burdiñola batean ziar-duan lanean. Alako batean, ordea, garrazki mintzatu zitzaion nagusia bidegabe; eta, araingo nagusi zitalarentzat lan-egin bearrak gogaituta, lantegitxo bat jarri zun Zarautzen. Zoriontsu bizi da arrezkero bere lanaren eta irabaziaren jabe.

Alkarrekin egin oi ditue igande-arratsaldeta-ko ibilliak mutil biak. Eizara joaten dira noiz edo bein; geienezan, berriz, udaldian batezere, areatzen ibillalditxoak egin ondoren, Getariko sagardotegi batean izaten dute askari-legea ta ondorengo egonaldi atsegiña iñularrarte.

Udalditar aundizkiak itxasoari begiz eraiki dituen jauregi aberatsetatik zear jetsi dira gaur gazte biak ondartzara. Jauregi oen oinarriak lurperatzen diran tokiraño zetortzan aintziña ugin egoneziñak. Estalixe du gaur belarrak lurgaña; baña azal mea zerbait urratu ezkeru, itxas-ondarra agertzen da oraindio nunai. Egañak erosi omen zitun beñola sail oek utsaren truke bezela. Urrearen balioa du gaur emengo lur-pitintxoak ere.

Astiro zeartu dute alde-alde areatzako urrezerrenda gorra. Lurrun-jario dago ondarra eguzkiaren galdapean. Ez ezazue luzaroan tinkatu ondarrean begiraturik; ikara-miña sortuko lizueke, bestela, begininietan. Umekondo asko dabiltz zango-utsik, lastozko ginbailtxoak buruko dituela, ugiñai tori ta tati egiñaz. Zumitzezko

otartxoen babespean eta zirazko estalpeetan dute gerizpe gizon eta emakumeak.

Tanto mardulak dakartzki egoaizeak une ontan. Atsegarri zaio, benetan, aurpegi kiskalduari euri-tantoak damaioen xaplateko biguña. Bits-nimiño txuriak pirrintatzen ditue tarteka urzabaldian aizearen jolas eta zurrunbillo biurriak.

Ondartzaren andiko buruan, aitzartean, arrizko mallak daude goiko bidera igotzeko; eta igobide oni egotzi diozkae oñak, Barbare donearen mendixkak dagin itzalpetik, Getarirako bideari ekiteko.

Ixo, orde! Tink dagie gazte biak. Karrasi urratua, lenengoz; iskanbilla ta oiuk, geroxeago, datortz portuondotik. Zurrunbilloan dijoa jendea nasara ikusmiñak zirikatuki. Ara jo dute Balendinek eta Agustinek ere.

Erdi-billoizik ibiltzen dira udaburuan mutillak uretan plisti-plasta. Atsegarri da, izan ere, egoaizeak bazterrak erre ta kiskaldu zorian darabiltz-kianetan, soña ezotuz, uretan murgil egitea. Igerigiteak ez du ezkuturik aientzat; naiz urpean ernas-eutsika, naiz atzeraka, naiz besorik erabilligabe, arraiñak bezain burujabe ibiltzen dira ugi-

ñetan. Ausardienak, berriz, ontzitegitik itxasora barruratzen dira iraupena ta indarra alkarrekin neurtzeko. Au dala-ta, bein baño geigotan ezbearrak izan dira.

Aurreko egunean bezelaxe, zeingeiagoka bizian, irten ziran portutik mutilko bi eta, igerian ekin eta ekin, neurritz arago urrundu. Konturatu zaneko, itxasoarena zan bietan bat. Itxasoko azpi-indarraren iretsibearrak zeramakin oargabe errukarria. Bira eginda, itzul-naiz asi zanean, ikusi ziozkan eriotzari agiñak begiz-begi. Nola menderatu aizearen ufada? Nola gainditu itxasoaren azpi-indarra?

Alperrikako jardunak oro nekatu ta auldu zuanean, jaurti zun karrasi estua. Urreratu zitzaion noizpait atzetik zijoakiona; ezin zezakion, ordea, laguntzarik eman. Alkarren ondortu ziranean, batak besteari eutsi naiakin, ondatu zorian zebiltzan biak. Alako batean, urpean ezkutatu zan bietan bat. Geroxeago irtenaldi bi egin arren, irugarren ondatualdian, betiko ezkutatu zan mutil gizajoa.

Ikusleak zegizkien oiuetara, gizatalde ugaria bildu zan nasa-ezpañera. Ara jo zuen Balendinek

eta Agustinek. Larri zebillen, ordurako, bigarrena ere. Azkar bear zun norbaiten laguntza, ondatuko ezpazan. Nor ausartu, ordea, alaingo aize zakarra buruzkatzen? Eriotzari arnasa ematea zan.

Txint batean neurtu zun Balendinek egin bear zana. Erantzi soñekoa ta an botatzen du burua uretara. Goialderaño jeiki ziran soin astunak zabaldu zitun ur-zipirztiñak. E'tzerabiltzkin zaratatsu besoak; baña bai erraz, bizkor eta txai-ro ebakitzen zula ura!

Mutikoa leen agiri zan tokira eldu zanean, etzan iñun aren arrastorik. Bigarren aldiz urperatua zan, nunbait, ordurako. Biriak aal basteraño aizez beteta, izurdeak bezela jauzi egiñik, murgildu zan Balendin; eta batera ta bestera, itsaspiztien idurira, ixurkia usainduz ibilli ondoren, ondatua besotik zeramakiala azaldu urgañera. Ito-itxuran eta kordegabe zetorren mutikoa; baña, nolanai ere, gaizkatua zegon. Muturrez ugin-saietsak urratuz zijoakien ordurako bidera ontzitxo bat.

Onelako egite ausartzuen agirian, aozabalka ta erditoteldurik erakusten du erri xeak eskar

ona. Oñak nasa-gañean jarri zituaneke, aldraka inguratu zitzaizkon Balendini gizon eta umekondo. Danak esan nai zioten zerbait; danak nai zuten agurtu gazte bulartsua. Gogaikarri zitzaion, ordea, ainbesteko itz-jario txoliña.

Otsegin zion bere lagunari-ta, norabait joan bearra zutelako aitzakian, istillu aspergarri artatik aldendu ziran. Arrantzale urtetsu bat urreratu zitzaion une artan bertan. Eskua biziro estutuz, ara zer esan zion biotz-ikaraz: «Nire arikoa aiz, mutil. Iru bider ibillia nauk itxaserdian ondatuta». Itz giar onexek izan zitzaizkon Balendini atsegiñen.

Eta goizaldetik zekarran aldarte errea zerbait gozatu naiean, Agustinekin batean, Getarira buruztatu zan.

Zarautztik artean urrutiratu baño len, notinaldra batekin egin zuten oztopo.

«Ganduak lausotu al-zezkiak begiak, ala ez al-da Malentxo lagun-aldra orretan izketan datorrena? Bai, bai; alaxe dek. Au nire zori gaiztoa! Gaur goizean Inurritzako elizatxoan ikusi dedan zalduntxo emegizonakin zetorrek, gañera. Emeki ondoratzen zaiok, likitsa, Dorronsoroko alaba

ederrari. Onek, berriz, txoroak, ederresten dik.
Au gaitza!»

Oldozkun oetxek darabiltzki Balendinek gogoan. Zatituko luke esku-artean, zotza bezela, zalduntxo txalua. Erasoko lieke ukabilka bazterreko arkaitzai ere. Geroago ta miñagotzen zaio aldarte. Irugarren zastada zun egun artan bertan gaztearen biotzak. Ez izan, ordea, ezer, maite-jokoetan, soin-indarra. Beste nolabaiteko gaitasuna bear da joko orretan irabazteko.

* * *

Ara emen Getari aipatua. Arkaitzaundi tinkoa du itxasaldetik bere nagiazen zaitzalle erne. Ugartetxoaren bizkarrean zutik dagon argitorreak, ez-al du ziklope baten antza, bekoki-erdian begi bakarra zirkinka dula?

Guda-ontzien biltoki izana da aintziña Getariko itxasbazter babesa. Emendixek irten zan Elkano auzartsua lur osoari alderen alde itzulbira egin zionean. Emen jaioak ziran itxasoan berdiñik etzuen ainbeste ontzigizon kementsu. Alde

guztietara barreatu zuen gizon ospetsu ariek erritxo politaren izena.

Apal eta ezagun-ez ager zaigu, ordea, gaur itxas-zoko ezkutuan. Len bezain zoriontsu bizi da, alere. Guda-ontzien ordezt, ekaitzaldiak ustegabe jo ditun ontziak datortz aizearen igesi, babesaren billa. Portuan, berriz, arrantzurako ontzixka, txanel eta lurrun-ontzi txikiak urbiltzen dira.

Arrantzaleen bizitoki zarpail batzuk zeuden leen, ugartearen gibeletik, arkaitzen goikoaldean. Tokirik agirienean, berriz, itxasoari buruz buru, igeltsoz zuritutako etxe mozkote bat. Urteoroko zuritualdia bear izaten zun etxeak; jango ziokeen, bestela, itxas-kresalak eta erauntsiak karezko jauntzia zearo.

Denda zeukan Matxinek etxearen beko oñean. Ardotegei ta sagardotegei zan bidenabar. Ez omen zan inguruetan, ziotenez beintzat, arenaren ukondorañoko sagardaorik. Arrantzaleak, orratio, sagardua baño naiago izaten dute geieanean, ardao zorabiatzallea. Arrantzuko lanak bukatzean, ara zuzentzen ziran; eta, upelondoe-

tan atsedan artuz eta eguneko goraberatzaz jarduki, atsekiro zurrutatzen dute edari moskortia.

Zuaitz bi zitun etxeak atadian itxasoari begira. Oso gogoko egona izaten zun agian, Balendinek angoa udaldiko jaiegunetan; eta, itxasaldeko aize biguña ta urriña arnasatzuz, zuaitz oen itzalpean askari-legea egitea. Atsegarri zitzaion ere arrantzaleen itzjarioa. Ain zuzen ere, jatorriz itxastarra izan ba'litz, itxasgizon bikaña izango zitakian. Sarritan jaisten zan portura ta arrantzaleakin arraunketan indarrak neurtu ere bai. Arraunlari trebea zan.

Lagun biak sagardotegira sartu ziranean, jendez gañezka zegon etxaurrea; baña azkar egin zun Matxinek, an edo or, Zarautzko gazte bien tzako tokia. Eta, an aurkitu zituen ezagun eta adiskideak agurtuz, mai-ertzean eseri ziran.

Matxinen bigarren alaba zuten serbitzari. Sagar-gorriarenak bezain gorri zitun Yolanda bere matrallak. Izketan, berriz, gazibelarraren gazimiña egiten zuen aosapaian aren ateraldi zorrotzak. Ixo, baña; begiratu egiozue begietara! Begi oriek ziztatzen dutenak, nabari baietz, piperrak aosapaiari dagion min errea. Agustinek dio-

nez, ez omen da jaiio, ez jaioko ere egundo alaingo neska ederrik. Aurrean zeukan sagardao txinpartuna baño ere gogozago iretsiko omen zukean neskatxa oso-osorik klink batean.

Janaldi-legea bukatu zorian zirala, eztabai zorrotza sortu zan arrantzale gazte biren artean. Eupada asarreak jaurti zizkoen alkarrereri. Erronka lazgarriak ixuri zituen.

—Zertarako aiz, ba, i, txepel ori? —zesaion batak besteari.

—Zertarako naizan? Noznai eta edozertan izan nauk i adiñeko, ta geiago ere bai —erantzun zion jarduleetan gazteenak.

—Bai, bai. Ikusi indudan atzo. Gizonen artean sartzeko ba-itzala uste-ta, arraun-aulkian jarri induen. Ez dit ikusi egundo i baño arraunlari eskasagorik. Eskutik igesika zijoakikala zirudin arraunak.

—Ala ba'litz ere, bai al-daukak ik zer esanik? Langille ona ba'intz, ez intzake ibilliko, abillen bezela, egunetik egunera, ditukan nagusi guzik aldatuz. Ontzi-jabeak etziote uzten nolanai langille eskurakoari.

—Sardiñazar txalu orrek iraindu bear al-natxeok? —oiugin zun bietan zarrenak—. Arraiek ezpa'du, belarrondoko otzak astindu bear ziozkat.

Eta, berekin zituan lagun bik aizatuta, esku-zarta zitala erantsi zion zarrenak gazteari. Etzan, ordea, au kikildu. Ukabillak estututa, arrikatu duten zakur amorratua bezela, burrukatzera zijon. Aldeztzalle bikaña erten zitzaion, orratio, une artan. Ari eskerrak. Jango zukeen, bestela; txikituko zukeen, iruen artean.

Odola irakitan zebilkiola entzun zitun Balendinek Txandres arrantzale zarraren semeari zegizkioen irañak eta destañak. Leendik ezagutzen zun mutilla. Ondo zekin Balendinek zintzoa ta arduratsua zala, eta, gañera, xingil-itxurakoa izan arren, giarra ta kiriotsua ta irauneko ere ba-zala lanean. Ain gazte izateko, arraunketan ere trebeki egiten zun. Emeretzi urte ozta-ozta izango zitun Txandresen seme Joxek.

Iru gizonak mutillari burrukara zijoazkiola igarri zienean, biozpean zerbaitek zarrastatu zun biziki Balendin. Ezpareak eztenkatu dun zezena bezela zutitu zan, eta, bultzaka indartsuz burru-

kalariak bata bestearengandik aldenduz, oiugin zion irukoari:

—Iru gizonek eraso bear al-diozue mutil oni?

—Nork eman dik iri gure gauzetan sartzeko baimenik? —darantzuioe lotsagabe irurak ao batez.

Iruren kontra gizon bakarra aldezteko, ez dit iñoren baimen bearrik.

Alkarren antzekoak izan bear dezue biok. Badek ik ere ume purtzil orren antza —jardetsi dioe, ausardiro zirikatuz.

—Adi ezak. Ez dik agoan itz-jario txororik erabilli bear gizon egiñak. Egiñetan erakutsi bear dik gizondasuna.

—I ainbeste ba-gaituk, beintzat, edozertan.

—Bai? Ezetz eraman zuek irurok arraun-indarrez Getaritik Mollarriko arkaitzera ogei miñutun Txantxikoren ontzia.

—Ezta ik ere beste bikin, ez uke eramango.

—Geitu ditzaizkiogun beste amar miñutu; eta, gertutzeko amabost eguneko epea degula, ekarri baietz orduerdi batean Mollarritik Getariko portura ontzi ori Joxek eta nik, biok bakarrik. Bai

al-zerate zuek irurok orrenbesteko marka egiteko gai?

Maxiozko parre algara egin zun iruretan norbaitek Balendinen erronka garratz au entzuki. Mutilla sokonki ezagutzen zutenak, ordea, bazekien arek, jaulki baño len, itzak ondo neurtzen zitula-ta, mintzoa aopean zuur lotu zuen.

Aldraka inguratu zitzaizken burrukariari Matxinen sagardotegira bildu ziranak. Joko-zale purrukatu dira euzkeldunak, eta, pozez zoratu bearrean, aizatu ta ziztatu ta zirikatu zuen gazteen arteko asarrea. Jo zan, azkenik, turuta. Eun laurleko bota zituen an bertan, egindako erronkaren eusbide. Milla ogerlekoa izan zan, berriz, apustuaren jaso.

Geroxeago, Matxinen edaetxetik erten-ala, apustuaren zabalgunde bakana zegien or-emenka gizonak:

—«Amabost egun barru, egundo ikusi ez degun bezelako estropada ikustekoak diagu» — zioen kalean lenen oztopatzen zutenari. Eta, pozaren pozez, eskuak alkarri igortzikatzen zituen. Afaaa...!

Illunabarraren itzalean irten ziran Getaritik Balendin eta Agustin. Zarautzera bidez bide zijozela, ikuszelai zoragarria zebilkien begien aurrean. Izarraren gisan, ñirñirka ari zan ugartegañean argitorrearen begia. Aize-oialak puztuta zetortzen portu-aldera ontzitxoak egunez arrantzuz ekarkorra egin ondoren. Urre-izpitan bildurik, ametsetan dago, berriz, bitartean, Zarautz, erregintxo antzean, mendiarteko txokondoan etzinda. Etxeondora urreratu ziran garaian, ara zer esan zion Balendinek bere bidelagunari:

«Etzekit zer demorrio dabilkidan gaur kolkoan. Sugeak bezela bigurrikatzen zidak biotzondoa zerbaitek».

—Eta, urrengo egunerarteko agurra egiñik, nork bere etxera jo zun, noizpenka odei artetik agertzen ziran izar dirdaitsuai begira. Etzan, noski, egin zun apustuaren ondorena Balendinek biotzean nabari zun kezka ta ikara.

IV

MALENTXO DONOSTIN

Urtearen aroetan ez al-da zoragarriena Uda-berri? Goizaldean agertzen zaigu ederren lorea ere, gau-intzak ixuritako zidar-pitxiak eguzki-pean dizdizka dituala. Nola izan ez bereolaxe, Izadik dun lorerik ederrena ere?

Umearoaren muga gainditu ondoren, gaztearoan, lorekusku jaioberria bezela, orrizabaltzen danean, da emakumeñoa kilikagarrien; giza-eskuk egundo ukitu ez duen zitori zuria baitirudi ordun gazteño lilluragarriak. Garai ontan egindako garbi-eskeintea ta maiatz-lorea bezain atsegarririk bai ete-zaio besterik ezer Jaungoikoari?

Ateraño koan amestu izan ez dun ibilbidea datorkio batpatean, amabost urtedun danean, emakumetxoari. Ordun asten dira esnatzen lenengoz sen-zirikak eta biozpeari ziztaka ekiten. Orduantxe izan dezakee guraso erneak alabatxoaren geroko joeraren berri. Soñaren itxuraldatzeaz batean, aldartea ta gogoia eraberritzen zaizkonean. Mendu berri batez izaera txer-

tatzen danean. Nork igarri lezakio ordurarte zuzenera ala okerrera joko duntentz? Bein aro ontara ezkerro, ordea, ez da ain gaitza, jakintza ori gogo-igarle oituarentzat.

Amabost urte zitun Malentxok bete-betea, Donostiko Ikastetxera joaten asi zanean. Bere amaren babesean eta osaba Martin apaizaren begipean ardura aundiz azia izan-da, erri txiki-tan azten dira neskatxo geienen antzera, etze-kian gaiztobideetakorik ezer.

Lenengo aldiz usategitik irten dan usakume ikaratia bezelaxe joan zan Donostira. Miruak, ordea, ollandatxorik zuri-enari erantsi oi dioe aztaparra. Baita urietan ibiltzen diran sapelaitz gaiztoak ere. Neskañoetan ederrenak eta toles-gabeenak esnatzen dute bizikien urietako pizti-tzarren iretsibearra.

Ez omen da amabost urteko neska itxusirik. Beste edergarririk ezpalue ere, giza-begiari eder baño ederrago deritzaio gaztetasuna. Garai artan Malentxo zan bezain lirain eta eder, gutxi izaten dira, orratio. Izadi osoa eder egin zun Arek, or-emen bildu al-izan zitun eder-zipirztiñak egotzi ziozkala esan gentzake: Uztargiak ditun

argibitxirik bizenak Malentxori aurpegira ixuri ziozkala esan bear.

Edertzat etsi zun Jaungoikoak Ebe atsegintokian. Bai ote-zun arek Malentxok erakutsi e'tze-zakean edertasunik? Arekin batean atsegintokian lotsarik gabe ibiltzeko laingoa ba-zala zio-saen, beintzat, ikusten zuenak.

Alkarren antz aundia zuen aurpegian Libe eta Malentxo aizpak. Ez, ordea, tankeran, ez gogoko izaeran. Txikitandik bereizi ziran bien joerak. Esanak eta iritziak, astiro neurtu ondoren, jaulkitzen zituana zan Libe. Eguzkiaren ibillira errazki zijoan lorea, berriz, Malentxo. Baetik ura ixurtzen dan bezelaxe zijoazkion oargabe biozparrengo ezkutuak. Etzuan tolesik, ezta ere gandurik biozpekoak, emakume erneari dagokionez, estaltzeko.

Eskurakoia ta otxana zan Libe. Malentxo, berriz, sua bezelakoxea; txinpartaren jeikikoa. Esirik ez jartzekotan, irakin dun ura bezela, ontzitik igesika noranai zijoana. Gurasoen ardurapean iraun artean, eta erri txikietan bizi diranean batezere, ez due onelako neskak ainbeste-

ko galzoririk. Urietakoak, orratio, errazkilijoazkie gainbera irristaka ondamendira.

Udazkeneko egun batean eraman zun bere amak Malentxo Donostira irakasletzako ikasketak egin zitzaizkion. Ustegabearen pitxi dirdaitsua eskuratu dioten aur zorabiatuaren antzera gelditu zuen neskaño xaloa urian bere buruaren jabe. Aste osoa Donostin egin ondoren, larunbatetan itzultzen zuen bere sendiartera urrengo astelenera arte.

Ernani-kaleko etxe zuri batean, irugarren oñean, zegoen Malentxoren bizitokia ondartzari ta Kalare donearen ugarteari buruz-buru. Eguteraldekoa ta alaia zuen, benetan, aukeratu zioten etxea. Udaberrian, batezere, etzezakean urretxindor batek ua baño egoa-begi zoragarriagorik aurkitu bere maite-xintak ixurtzeko.

Naiko lana izan zuen Malentxok lenengo egunetan bere logelatxoak apaintzen. Emakumearen eskuak eder-tantorik egotzi ez lezakionik ez da ezer. Izan ere, ez du bear utsunerik neska lirain baten logelak. Arduratsu ta arretaz txukundu ta apaindu zituan xokogune guztiak; baita bere

ikasliburuak eta garbiketa-tresnatxoak eratu ere.

Urrin-samar zegon irakasletxea bera bizi zan lekutik; alere, egunero ibiltaldi luzea egin bear izan arren, pozkiro ekin zion bere lanari. Irakurlearen jakinmiña zirikatu lezakenik ezer etzizaion gertatu lenengo urtean.

Eguerdialdean, etxera zijoanean, lotsagabe begiratzen zioten kalean oztopatzen zitun mutil gazte askok. Beste norbaitzuk, berriz, ausardiroago urreratzen zitzaizkon; zerbait esan ere bai. Onelakoetan, oinkadak arinduagotuz, ezer entzun izan ez bai'lu bezela, lore-ixurtzalleai begiratu ere gabe, bideari jarraitzen zion. Lotsa gorria zemaioen, lenengoz, mutil ariek zesaizkoenak; entzunago ta gutxiago, ordea; geroago ta ezerezago, orratio.

Errenderiko neska bat izan zun bere lagunetan barrukoena bigarren urtean. Txoroska askia ta tuntuna zan, neska au; eta Malentxok izan zezakean lagunik okerrena bai, noski.

Ondartzaburuan dagon dantzatokira eramán zun arek iñular batean Malentxo. Ango musika naasigarriak, ango dantzaldi lizunak eta mutillen

agoetatik entzun zitun ausardikeriak, labea bezela, sutan jarri zioten buru-barnea. Etzuan, agian, loaldi aundirik egin gau artan. Biurrika ta zurrunbilloka zebiltzkion irudipenean «La Perla»n alkarri loturik ikusi zitun neska-mutil bikoteak. Orduezkero, geroago ta gogozago ta sarriago joaten zan dantzaldietara.

«Nere etxekoak ba'lekie...» —esan zun aurrenengoz kolkorako; baña etzuan izan, bear zan biotz-damurik.

Egun batean, irakasletxetik bere bizitokira zijoala, mutil gazte batek irriparka agur egin zion eta luzaroan atzetik begira jarri zitzaion lotsagabe. Urrengo egunean ere toki artantxe bertan egin zun mutil arekin oztopo. Ezpainartean irribarrea zarabilkilla ondoratu zitzaion mutilla, ta, agur egiñaz, aldendu. Lenago ere ikusi zun Malentxok aurpegi uaxe nunbait. Zertatik ezagutzen ote-zun? Goraintziak piztu ta itzali buruan zebiltzkiola, ara nun sortu zitzaion batbatean argi-izpia. Bein baño geigotan ikusi izan zun Zarautzen aurreko udaldian mutil uaxe; ango neskatxakin ta udaldiarrakin dantzatzen ibiltzen zan maiz enparantzan.

Irugarren egunerako, bigundu zitun zerbait Malentxok bekainarteko zimurrak. Begipeko irriño biguñakin artu zun mutillaren agurra. Eiztari ikasiarentzat igarbide zeatza zan neskaren begietako irriñoa. Ara gazteluaren ormak arin zirrikatu ta zartatu; ara biotzeko izotza bereala urtu. Bein orrera ezkeru, gainberakoa izan oi da, eiztariantzat, gañerako lana.

Egun arietan Donostiko ostikolari-taldeak ostiko-txapelketa irabazi zula-ta, aundiro ospatu zuen donostiarrak gertakizuna. Dantzaldia izatekoa zan iñularrean Boulevardeko enparantzan, baña euriak eragotzi zun gau-jolasa. Ez kendu, orratio, gaztediari bein amestu dun jaia; bereala aurkituko du beste nunbait galdutako jolastokia.

Kontxako uztaiak zearkatuz, «La Perla»ra dijon neska-mutil erreskadak ibai-ibilli biurriaren antza du. Alere, errazki iresten ditu, eldu-ala, areto zabalak ibaiak aora daramazkionak. Ordu-rarte salduketa-lanetan jardun dan denda-otseña; titarez jostorrazaren begiondoa ainbeste bider bultzakatu dun jostuna; betazalak erre arte begiak zorroztu bear izan ditun landolaria.

Araxe dijoaz Malentxo ta bere laguna ere. Arnabarrezko zurubietatik beera jeisten asi diranean, ua da ikusgai zoragarria begietaratu zaiena! Ua da jendetza! Goikoaldetik begiraturik, beeko solairuan oñak irristaka labainduz, alkarloturik dabiltzan bikoteak, sapaiko argiontzi dirdaitsuen argirik ezpa'letor, Akelarreko arpeetan zoro-dantza duten sorgin-taldeak iduriko lukee. Ainbestekoa da ango jirabira ta iskanbilla!

Aretora sartu zanean, egun arietan nunai agotik agora zebillen musika ezaguna entzun zun Malentxok. Musika arek eragin zion biotz-zarraztara, nola eutsi agopetik irtenda, gañezka zijoakion poz-oiuari? Eskillaratan beera lasterka zijoala, burdinaga-ondoan zegon mutil batenakin egin zioten oztopo begiak. Norbaiten zai zegola zirudin mutil arexek. Begiztatu zuanekoxe, erne ta bigunki agur egin zion neska ederrari.

Dantzaten asi bezain laster, ara nun dijoakion mutilla beste lagun batekin. Nola uko egin, irribarrea ezpañetan dula, baimen-eske urreratu zaion zalduntxo garatuari? Esku atsegiñez kiribildu du arek besoakin gerriondotik eta bekoz-beko, begiz-begi, bularrez-bular, dantzari ekin

diote solairuan leunki oñak labainkatuz. Sua dario mutillari begi bietatik. Neskatxa, berriz, zalduntxoaren besoetan bildurik, kabiondoan sugetzarrak bigurritu dun txoriñoa bezelaxe dabil: zorabiatua, naasitua, matail-gañetako sukarra itzali eziñik.

—Zure begi ederrok ain nere urrean ikusteko aspalditik izan dedan gogoia —ixuri zion mutillak mintzo bigunez belarrira, dantza-bitartean.

—Gezurrak egoki esaten ba-dakizu, beñepein —erantzun zion Malentxok maxioka. —Nundik nora ezagutzen nazu, ba?

—Bein Zarautzen, zuk oartu ere gabe, ondolan egon nintzatzun luzaroan begira. Ordutixek dauzkat zure begiok nere buruan josita.

—Ajaja...! Etzaite, ba, orrenbeste zoratu. Itxuragabekoa litzake zu zeran adiñeko zaldun batek ni bezelako neska bategatik burua ain errazki galtzea-ta.

Biziro gezurtatzen zion, ordea, biozpeak, parrealgara-artean ezpainak agertu nai zioten ajolarikeza. Bestelakoa erakutsi nai izan arren, atsegarri zitzaizkion aren biotzondoari mutillak belarrira ixurtzen zizkion itz eztiak.

Ain zuzen ere, eroki dantzatzen zan bitartean, txint batean joan zitzaizkion ordubete ta erdi. Konturatu zaneko, bederatziak ziran: etxeratzeke garaia, alegia. Orduan izan ziran aren estuasunak; orduan lenbailenka etxera-bearrak; berandu etxeratu zalako, zerbait esango ote-zioten bildur zan, ba. Dantzatokitik irten ziranean, bere etxeraño lagundu nai izan zun mutillak Malentxo; baña ezagunen batek ikusi zitzakealakoan, bazterrik bazter ibilli ziran; eta, andik asko urrindu baño len, egin zioten alkarri azken-agurra.

—E'nagizu araño lagundu, norbaitek ikusi giñazke-ta —esan zion Malentxok.

—Tira, ba. Zure guraria ala ba'da, zoaz bakkarik. Aurrerakoan, lagunik onenegotzat artu alziñeiket? —galdegin zion arek eskutik ibillia eragotziz.

—Ene, Jesus! Bai azkar ibilli nai dezula! Urrengo batean erantzungo diot zure galdeari; ezpai det orain erantzuteko astirik. Bildur naiz nere etxeakoak aserretuko ote-zaizkidan, ain berandu noalako.

—Biar bertantxe bear det, gero, Malentxo gaixto, zure erantzuna. Biar eguerdian, irakasle-txetik etxera zoazenean, ikusiko degu berriro alkar. Ordurarte, Malentxo lirain...? —itaundu zion muzinki mutillak.

Azkeneko itz oneik jaulki zitun bitartean, eskuen artean estutu ta laztandu zun maiteki Malentxoren esku xaloa. Gero, erdi toteldurik bezela egon zan luzaroan, arinka ta jauzika zijoan neskatxa liluragarri begira.

Etzan, agian, gizaseme bikaña mutil uaxe; baña, alere, neskatxen artean gainbera ta ollarra bera baño ere jeikiago ibiltzen zekiana, bai. Bereala zorabiatzen zitun neska buruariñak aren ausardikeriak eta azpiko mintzaerak.

Belearen ipurtaldea baño beltzago zitun buruko illeak eta sudurpeko ille-mordoska erneberria; sagarbeltza bezaingoa, berriz, aurpegiko azala. Begiak, orratio, masusten parekoak izan arren, betzuloetan, oitura zunez, dirdai-jarioka jirabiratzen zitunean, utsa adiñeko ziztada eragiten zien neskatxen biozpearri, arrano pola! Ortixek zetorkion, nunbait, emakume txoroak zorazteko indarra.

Amaika ixeka ta maxioka aragin izan zien, beñola, mutil onen izenak eskoletako umekondo biurriai! Olakoetan, ordea, ezer ezin zezakeala igarritakoan, katu ostikotua bezelaxe, zokondora urbiltzen zan makurka. Kontu izan, orratio, aren ustegabeko atzamarkazko eraso zitalari. Leon Bravo Picó ziran mutil onen izen-abizenak eta ara nola zegioen deadar mutikondo lotsagabeak adarjoka:

*A León Bravo Picó
una mosca le picó,
pico-pica, le picó
y Leoncito se murió.*

Demorriozko maxio madarikatua! Sualdiak kiskaltzen zuan olakoetan buru-konkorretik bea-tzetaraño Leon gizajoa. Barrenaldia irakitan, begietatik txinpartak zerizkiola, amorrualdiak gainduta, aginka ta ostikoka erasotzen zien bere lagunai. Txikituko zitukeyan, al-izan ba'lu; ausiko ziekkeyan burua, bere eskura egon izan ba'litz, zartada batez. Baña ukabil sendoak bear ziran

orretarako-ta, bere ezin utsean, irain loiak agotik zeriozkala gelditzen zan zotinka.

Bein, ordea, mutilkoskoak axeka gorrian zebiltzkion batean, maxiolariai eraso zienean, beste norbaitek oñez-oin jo, ta estapurutzean lurrera jaurti zun zerraldo. Sudurretik odola bar-barka zeriola zutitu zanean, ua izan zan ikusleen parrezka lertu bearra! Ua parre-karkarari eutsi eziña!

Negarrez minoiuka joan zan etxera gure mutilla. Baña, bai al-dakizue nola ordaindu zun Lonek urrengo egunean, egin zioten biurrikeria? Aurreko eguneko maxiolaria ormagain batetik jauzi egiteko zegoalarik, atzetik ixilka ondoratu-ta, bultzada batez buruz bera bota zun ormagai-netik eta besoa ausi zion. Urrengo batean, berriz, jostorratz aundi bat erdialderaño sartu zion atzekoaldetik, oargabean, beste mutiko bateri.

Arrezkero, etzirala txantxetakoak Lontxuren zigorrak-eta, pakean utzitzen zioten mutilkoak aren ateraldi gaiztoen bildurrez. Mertxilla ta belaxka-itxurakoa izan arren, zimela zan mutilla. Izena zerbait bigundu ta gozatzearren, «Zito»

deitzen zion bere amak «Leoncito» laburtzetik. Ala izendatuko degu guk ere aurrerakoan.

Orain amabi urte, eratsi zun nunbaitetiko egaldia Donostin Zitoren amak, bere seme baka-rraz beste, sendikorik etzula; baña emakume zirikatzaileak eta jakinmindunak etzuen argitu sekula nundik nora ibillia zan emakume au Donostiratu baño len; etzuen egundo aren gaz-tetangorik ezer jakin. Mingain gaiztoak ziosae-nez, lotsa zemaioken zerbait ezkutatzen zun arretaz bularpean. Zertatik, bestela, bere bizi-tzazkoak ainbestean ezkutatu ta estali bearra? Etzukean iñork aren agotik txintik aterako iñola ere.

Donostin egiten zun emakume onek negual-dia, baña udaldiaren atean, Zarautzera jotzen zun. Ango ondartzaburuko jauregitxo batean bizi-izaten zan udazkenerarte. Eskuarte ba-zun, itxuraz. Ala salatzen zun, beintzat, zegian bizitza lasaiak eta nunai agertzen zun apaindasunak.

Ogetabost urte zitun Zitok gure edesti au asten dan garaian eta bere amak berrogeta bi. Emakume ederra zan, artean; eta, urteen buruz, gaztetango dirdaitasun aberatsa zerbait gandu-

tu ta lausotu zitzaiola irudi arren, etzizaizkon agortu artean lengo edertasun-kondarrak.

Berorrelaxe adierazten digu etzinaldera dijo-akigun eguzkiak, illunabarreko zear-izpien bidez, bere eguerdiko edertasuna ta urre-dirdai itzalia. Ardura aundiz zaiten zitun beti, zirudianez, emakume onek soñaren egokitasunari zegozkion txukundubear eta apaindubearrak. Bere burua noizbait aundiro eder etsi izan zun, noski.

Zijoan tokira zijoala, bere seme bakarra izaten zun bere ibilaldietan eta irtenaldietan lagun; etzezakean, orratio, zearo itzali bere atzetik uzten zun marmarra. Arlo ontan, eiz-txakurrak baño, usnatzalle zorrotzagoak izan oi dira emakumeak. Bai al-da ariek usaindu ta usmatuko ez lukeenik ezer? Ez omen zan bear bezelakoa Zitoren amaren ibillera; ez omen zan bear zan bezain agirikoa aren bizitza. Ara emakume berriketarien jardunak eta marmarrak or-emenka ixilka ixurtzen zuena.

* * *

Lasterka bizian eta binaka gainditu zitun Malentxok bere etxeko eskillarak, berandu zijoalakoan. Arratsalde artan, ordea, ostikolari garaitzalleen bidera irtena zan Donosti osoa. Iritsi-berria zan, artean, etxekoandrea ere-ta, garaiz etxeratu zan neskaxa.

Obe. Igarriko ziokeen, bestela, etxekoak matail-buruetako sukarra ta kiskaltasuna. Ez uste, gero, eskillarak lenbailenka igobearrak piztu zionik matailletan zeramakin sua; leendik zekarran naiko sukarra, arraietan!

Apalondoan, ikasketari, oi bezela, burua lotu bearrean, leio-oñari besoak egotziz egon zan gauerdirarte.

Gaugiro atsegiña zegoan. Iñularreko euri-erauntsia atertu orduko, zearo garbitu zan ortzaldea ta zidarrez zipirtinkatzen zitun illargiak inguruetako mendixken kaskarrak. Ortze-zear zebiltzan laño-mordo zuriskak noizbeinka estaltzen zioten illargiari aurpegi zerbela; baña aizearen ufada indartsuak bizkor zeramazkin berriro alderen-alde mendiburuen gibelera artilezko pirrinta zuri ariek. Bitarte artan, zeruan ñir-ñirka ziarduen izar dirdaitsuak. Kiñuka ari zirala

zirudin, sorgin gauzaleen begiak iduri, Igeldoko argiak.

Atsanka bizian dabil, berriz, Kantauriko itsaso menderakaitza arkaitzondoekin burrukan. Eztira oraintxe asiak zeingeiagoka arerio oek biak; ez da, orratio, aserre-burruka orretan orainartean garaiturik izan. Tinko diraue arkaitzak; ermo darrai itxasoak arkaitz-erroetan aztaparrakaz atzamarka. Ez da or, ez garaitzallerik, ez garaiturik.

Illargipetik noizbeinka igarotzen diran laño zurien antzo, dijoazkio Malentxori irudimenean oldozkunak, bata bestearen atzetik. Itxasaldera zuzentzen ditu begiak. Ez dakuse begiok, ordea, ezer. Buru-barnean irakitan darabillkin beste zerbaitek lausotzen baitio begiratua.

Orma-kakoetan aztapar zorrotzez mats-aiena josten dan bezelaxe, isatsi zitzaion, arrezkero, Malentxori gogoan Zitoren irudia. Maizagokoak izan ziran, orduezkero, mutillarekiko ikusaldiak. Eta, bein neskañoak biotzeko ugaldeari atea zabaldu ezkero, nola lijoazkioke atzera esira, gainbera parrastaka amildutako urak?

Orrez gañera, ezkutuko maite-jolas oetxek dira gaiztoen eta zirikatzaileen. Itxasoaren uraz-piko etorri indartsua dan bezela. Ustegabe zintzurtean kiribilduz, maidirapera sartu zaigun sugea bezelaxe.

V

MENDI-EGUNA

Ernio-mendiaren gandorretik ingurubegira

Iñularrari aurretik bidea argiztatzuz dijoazkion izarrakin izketan zijoala, iritxi zan Balendin Dorronsoroko atadira; ango maspeko gerizpean Martin apaiz jaunak eta Agerreko indiano gazteak aparria bukatu zuten garaian, alegia. Nagusiak begiztatu zuaneko, esan zion:

—Mendi-eguna diagu biar-eta, Ernioraño joateko asmoa zeukagu. Gogoko al-zaik gurekin joatea?

—Bai, bai. Ba-dakizu, nagusi jauna, zure erabagiekin erara ibiltzen naizela beti.

—Oa, ba, laisterka batean, Olaldeko abarkeitariagana ta esaiok ia biar bere zaldikoan Zelatunaraño bazkaria eramango liguken. Oa Larrainzarko nagusiarengana ere ta esaiok biarkoz auzo-laguntzan zaitu ditzala gure etxeondoa ta

gure abereak; ezpaitala emakumeak besterik izango etxean iñular arte.

Erne zegon, ordea, oi bezela, etxekoandre Josebe, eta bere anaiaren itzak entzuki, erantzun zion:

—Egun batez gure etxeko eginbearrak burutzeko, ez degu iñoren laguntza bearrik; orrenbesteko burubidea izango al-degu, beintzat. Ez, ba, deirik egin, Balendin, Larraintzarko nagusiarri.

Laisterka aldendu zan berriro Balendin ain gogoko zitzaion agindua betetzera, ta etxeburuko sagastia zangarteka zearkatzen zun bitartean, zakurrak zaungaka aurrea artu nai zion. Mollarriko arkaitzak berriztatzen zuen geroxeago zakurraren zaunga-otsa.

Ordu-laurden bat geroago etxeratu zan mutilla, bere eginbearra bete ondoren, eta apaldu ordukoxe, oeratu ziran gau artan Dorronsoroko bizidun guztiak; urrengo goizean egunsentirako nagia atera bearra zegon, ba.

* * *

Astindu dezagun bizkor egunabarreko loa ta gijoazkion bidera gaurko argiurratze zoragarriari!

Gau-amets atsegiña baño ederrago datorkigu egunsentia eguzkiaren aurrelari. Eztai-egunean zaldunak emaztegaia bezelaxe, dakarki arek eskutik apaiñez jantzita. Eguna argitu-ala, artzaimutillak arkoskorak bezela, zabalduko ditu zabaldietan zipirtztinka, zorroan bilduta darabiltzkin dirdairik ikusgarrienak.

Orduantxe ziztatuko digue begininia gau-intzak, or-emenka, ostoartean erein ditun zidar-pitxiak; baño eguzkia bere gojarlekura igo-ala, bigunkiro arnasaztuko ditu ta atxikatuko pitxi oek eta bere buruntzari egotziko.

Nunai karakazten dun bezain ederzale ba'litz gizona, ba-leukake, agian, nun ase eder-gosea egunero; baño goiz-edertasun oetan gogoa murgiltzea baño atsegiñago zaio maindirapeko egona, bere nagi zoroan. Magaletik ondasunak eskuzabalka ixuriz datorkigun erregin onek, ez du txoriena beste agurrik izaten, geientsuenean, egunabarrean.

Eguzkiari aurretik zetorkion argi-larraña, bat-batean lertu da geroxeago. Gandu urratuen arte-tik, argi-ikara iduri, buruz-buru zearkatu du lur-gaña lenengo urre-izpiak. Orainarte bekokia estali dion lausoa erantzita, ederren eder eta begien ikusgarri, agertu zaigu eguzki jaunaren aurpegi lausogabea.

Garai ontan, gure Errialde eder, ire zelai ikus-garrietatik maite-kantu zoragarrietan erantzun-go zeone eguzkiaren lenen-mosuari, zozoak, bedigarroak eta kaskardoak. Ekin zeon ere txi-txarrak saraspeko jardun lazkarrari; baita ere kir-kirak ateondotik bere kantu mintzo-bakarrari. Eta saraspetik, galtsorotik, artasorotik, belarditik eta sagastitik zomorrotalde ugariak, bakoitzak bere mintzoera berezian, agur-egingo zeone aundiro ta ozenki eguzki-jaun irtenberriari.

Goizeko bostetarako, Dorronsoroko atadiko burni-kakoan lotuta zegon Olaldeko abarkataria-ren zaldikoa astalastaira gañetik alde bietara saskiak zintzilika zitula. Ernai zebillen ordurako etxeakoandre Josebe mendialdia zutenentzat baz-karitakoak gaitzen eta asta-saskietan bear beze-la jartzen. Libek eta Mikele neskameak lagun-

tzen zioten zeregin oetan. Ez, ordea, Malentxok; maindirapeko epelean zun, artean, arek lo lasaia.

Ondo zekian etxeakoandreak, gizonezkoak etxealdean aikomaikoetan ibilli arren, bein mendira ezker, gogoz jaten dutela eskuratu dezaketen dana; gose-esnale zorrotza baita basoa, eta danetik oparo jarri zien bidariai otordurako: arrautza egosiak, piper amorratuakin bakallaua, ollasko erre bi eta sagar erreak. Etzizaion aztu ere, otorduko ugaria zerbait ezkotzeko, zarato bat ardao; orrez, gañera, bazkaria bear bezela bukatzeko, baita ere katillu bana kafe.

Arraiek ezpa' du, etzan zikoizkerian ibilli etxeakoandrea; an sartu zitun saskietan, bear ziran ontzi ta edontzi ta katilluak. Etxean bezain egoki ta eskurakoi ibilli zitazkean mendi-gizonak. Eta Josebek jarri zituan bezelaxe, ur-gañean ontzia labainkatzen dan baño bigunago joango zan dana mendi-tontorreraño.

Etxekoandreak astasaskiai azkenengo orraztua eman bezain laster, irten ziran Dorronsorotik mendizaleak eta zintzo lotu zitzaizkon bideari. Izan ere, azkar ibilli bearra zegon, zortziretarako

Pagoetako mendigaña irabazteko; kiskalduko zitazkian, bestela, eguzkiaren galdapean maldar-gora.

Izkillu bana zeramakien bizkarrean Balendinek eta Agerreko indianoak. Eiza-usaira, zaungata jauzi zegien zakurrak. Baña, etxetik asko urrindu baño len, zaldizaiaren ibilli makala utzita, basopeko bidetxiurretatik sartu ziran eiztariak eta apaiza.

Mendigizon bizkorrak ziran irurak-eta neurrizko ibilli sendoari eutsiz, goizeko ozkirri atseginean, bereala atzeman zuten Pagoetako gandoorra.

Ua ikusgai zoragarria andik begietaratu zitzaiena! Gaualdiko lurrinak sortutako lañomordoak zurizkatzen zuten, artille antzo, zokondoaldeko zelaia; baña, goizaldean artzaiak bordatik banaka ateratzen ditun ardiak bezela, urtuz dijoaz eguzkiaren mosuetara. Lañoak urtuala, garisoroak eta artasoroak erakusten dute burualde orraztua.

Igita-garaia da. Txigortu bear ditu legortek zearo gari-saillak-eta, ekin dioe baserritarrak lurrari urrezko jantzi aberatsa erazten. Oraindio

berandu izan ez arren, lenbailen jo bearko dute igitaiak gal-zuztarra. Ezperen, bildur izan, egun batzuez geroago, ebakitzeko eskua egotzi-ala, galburuak soroan bertan aletuko ez ete-diran.

Ori ondo jakinda, goiz-goizetik josi zaizko baserritarrak igita-lanari. Eskuetan igitaiak dir-dai-jarioka dituela, bizkar-ezurra lurrera kako, ari dira igitariak or-emengo soroetan aldraka. Ain zuzen ere, jua zaie gaurkoz langileai garairik atsegiñena, goizeko ozkirria, alegia; eta, au da orain eguzkiaren kiskaldubearra!

Labe goritik irtena dirudi egoaizearen arnasak. Ez da atsegiña izango, arraietan, eguerdiko beropean gaurko igita-jarduna! baña, nola nai dan dala, etxealdeari bear bezela begiratu nai ba'zaio alegiñean jardun bearra dago.

Ixil dago, bitarte ontan, basoaldea beroaren beroz lurrun-jario. Egoaizearen arnas bigunak dardarazten du noizbeinka pagadi orraztuaren adatsa; geldiro, ordea, nagiak gerriondoa zurrundu izan bai'lio. Gogoz entzun oi dira atse-denaldian, ibarraldetik belarrietara datorzkigun zakur-zaungak eta abaroaren billa gerizpera bildu diran txorien txioak. Eupada latza dagie

nekazariak ura eradatera errokondora daramazkin abereai; eta mendiz mendi ta basoz baso dijoa arek egin dun oiuren oiartzuna.

Pagoetatik zerbait urrutiratu ziranean, Martin apaizak galdegin zien lagunai:

—Ez al-zaizue eztarria legortu? Burugabe jokatu gaituk, orratio, gaurko egoaize kiskalgarri onekin, zaldizaiari edari danak uztean!

—Ezkerraldeko pagadi ortan ba-da iturritxo bat; erakutsiko dizuet —erantzun zun Balendinek.

—Ibillaldi latza ta luzea danean, ez dek, agian, laguntzalle bikaña baso-iturritiko zurruta otza. Ba-dek, arranotan, beste oberik zerbait —jardetsi zun indianoak. (Bere aitagandik zetorkion Agerre gazteari «indiano» ezizena).

—Ez kezkatu, Agerre; laister izango degu eztarria nun ezkotu. Goazen arin Altzolako etxebilerara ta an Lizarretako gure maiztarraren etxean emango digue zerbait.

Orduerdi batez geroago, Lizarreta-baserriaren ondoan egin zuen urrengo geldialdia. Etxealde bikaña zirudin baserriak. Iru sorok inguratzen

zuen azpikaldetik eta aurre-gibeletatik; sagasti ta belardiak, berriz, etxeburutik.

Gaztañadi omen zan aintzina goikoaldeko sailla; baña gaztainondoak naiko zarkindu ta usteldu zirala-ta, lareun sagarrondo sartu zitun nagusiak orain zortzi urte. Amabi milla ogerleko balioko omen zitun sagasti gazteak.

Azpikaldeko garisoroan igitan ari dira, une ontan, amar gizon eta erabat daramakie aldapaz gora sailla. Eguzkiak burua artu ez dakien, lastotxapelez estaltzen dute kaskarra. Eskukaldi bakoitzean zumea bezela biguntzen dute gerrialdea ta bizkarra makurtzen; eta itai-kirtenean eskua gogor tinkaturik, beso kozkordun zaintsuak ukalondoraño galtzu-artean aurreratuz, zarrastaka sendoetan ebakitzen dute lastoa, eta moztu-ala, atzekoaldera jaurtitzen maillaka eba-kitakoa.

Baña igitaien ibilliak oztoporik izan ez dezan, iru neska narok ateratzen ditue zuztarretik indarka gariarteko bababeltz-landarak eta, besamenka bilduz, ondoan pillatzen. Azaoketan diardue, berriz, atzeraxeago agure bik eta iru emakumek.

Noizbeinka artzen duten eskukatik, lasto batzuk bereiziko ditue, eta belaun-kiñuz gerrikoa egotzi ondoren, kibiztoz lotuko diote. Ba-da mutikoentzat ere naiko lana gaur, galtzuartera erori diran buruxkak biltzen eta soroaldera dijoazen txori ta egazti gosetiak uxatzen. Bien bitartean, geldiro ta arretaz tolesten ditu aitonak metatxoetan gari-eskuteak.

Ez dago an, arraietan, iñor nagi; ez du an iñork atsedetik. Danak kaketzen dute bizkarra; danak erasotzen diote ermo lanari. Eguzkiari darion suak bazter guztiak kiskali bear ditu. Izerdia ta patsa darie gizonezkoai. Matailgorritu dira, noski, emakumeak ere. Au da sargoria! Au da sua! Au da txigortubearra!

Bidetxigorrean gora norbaitzuk dijoazela oartu duenean, langileak batbaten zuzendu ditue gerriak, ikusmiñaren aitzakian, atsedendia artuz. Igitai-kirtenean besoak tinkaturik zutitu ditu igitariak ukalondoak bekokiko izerdi-jarioa txukatu bitartean. Lurrezko pipa atera due lastotxapeletik agureak; artazorroak, berriz, sakeletik gizon gazteak. Bidariak araño urreratzen diran

bitartean, eskuazpian igurtzikatzen due astiro toxatik ixuritako kebedarra.

Auots garbiz eta txapela erantziz erantzun dioe danak ao batez apaizak egin dien agur maitekorriari. Eta alkarrizketan asten dira; baña itzal aundiz eta begiramenez erantzuten dioe danak Martin apaiz jaunari, apaiza ta, gañera, etxe aren nagusia baita.

—Agur, jaunak; garigirorik ederrenetakoa dezue gaur —esan die apaizak soro-barreneraño iritsi danean.

—Ez da garigiro eskasa; baña eguzkiaren kiskaldubear au baño atsegiñago litzaiguke gerizpeko egona —jaulki zun irriparka mutil gazte batek.

—Nolako garia dezue aurten? —galdegin zion, urrengo, maiztarrari.

—Lastoa ba-degu ugari; galburuak, orratio, arintxoegi. Legorteak txigortu baiditu zearo.

Atsedenaldia belarritik artuz, artzuloko oroldioartean gorderik zeukan txarroa aterata, edontzi bana ardao eskeni zien etxekoandreak bidarriai. Langilleai zegokien, urrengo, edanaldia.

Txitak olloloka inguratzen duten bezelaxe urbildu zitzaizkon danak etxeakoandreaki zurrutara; zulagarria zan, ba, agian, egarriaren eztena. Edontzia eskutik-eskura zebillen bitartean, mingainpetik ateratako ziztu legorra ortzartetik jaurtitzen zuen gizonezkoak, eta arnas batean edari gozoa edanik, ozenki garrazkatzen zuen eztarri lazkartua.

Egonaldi laburra egin zuen mendizaleak Lizarrretako etxeazpian eta maldarrari eraso zioten berriro; alegintxoan, basoetako gerizpe atseginiñetatik ibilliz, orratio.

Langilleekin soro-barrenean alkarrizketan zeuden bitartean, galeperraren poxpolin-kantua entzun zun Balendinek an inguruan eta izketaria-kandik alderatu zan.

«Geldi emen, Lau!» agintzen zion noizbeinka zakurrari, aren ibillia esiratu nairik. Alako batean, ordea, garoartean kuzkur eta belarri-erne gelditu zan zakurra basakatuaren gisan. Izkilluaren oina sorbaldan tinkatu zuanean, «ekin, Lau» oiugin zion Balendinek; eta zakurra- ren jauzi bizkorrera, galeperrak ego-ukaldi bal-

darrez eraiki zun egaldia. Baña eiztariaren eztandak eratsi zun, ego-ikaraka, egazti gizena.

Ezkerraldeko ariztin eratsi zituen, gero, Age-rrek eta Balendinek eskillasu ta birigarro batzuk. Etzegoan, ordea, basopeetan astia buru-gabe ematen ibiltzerik.

Iturriotzko mendi-galdorra menderatu zue-nean, irrintzi alaiz agurtu zitun Agerre gazteak Ernioko arkaitzak.

—Ez al-dabilkizue zerbait biozpean zirika? —galdetu zien lagunai—. Naizen baño ere euzkota-rago naizela zirudidak mendialdean nabille-nean.

—Gaurko egunean, orratio, mendialdetik iges-ika zijoazkiguk gazteak urietara, —erantzun zion apaizak.

—Bai, ala dek. Baña orpozulotik erten dan ardazburua bezela, kurrinka latza dariela ibiliko dituk gazte oik bizitza guztian.

—Etzekiat; baña egin al-gentzakiokek ezer gaurko gizartearen iraduari?

—Anbat uke, gaurko urirabear zoroak bio-tzean egundo ikutu ezpa'gindu. Aizea bezain

burujabe mendietan ibilzeko jaioa dala zeritzaidak euzkotarra.

—Ain zuzen ere, amaika egite arrigarri egin zizkien mendi oetantxe gure asabak beren burujabetasuna aldeztuz.

—Bai. Mendi oetako zokondo bakoitzak millaka oroitzapen zekarzkiguk burura.

—Bai, noski. Ara! Orain ogei gizaldi, erromatarren erasoari eutsi-eziñik gure aurrekoak oneraxe bildu ziranean, leoiak bezela burukatuz, aldeztu ziaten Ernion eta Iturriotzen, artean galdu gabe gelditzen zitzaien lur-zatia.

—Oraingoagoak eta gaurkoagoak dituk, berriz, Zumalakarregi gudariburu ospatsuaren ibilliak. Santa Krutz ere, katamotza bezelaxe burukatu uan oraintsu Iturriotzen Españaoko agintariak bialdu zizkiguen gudariakin eta zakurrak izutu ditun ollandak bezela gainbera zalapartaka uxatu zizkin.

—Iru bei-uztarrikin arrastaka eramane omen ziten bein lera montzean kaño bat Errezildik Aiara, Iturriotz zearkatuz.

Onelaxe alkarrizketa atsegiñean zijoazela, Iturriotz gainditu ondoren, bereala atzeman

zitzen Zelatungo barruti zabalak. Bigunkiro kulunkatzen ziran ango belardien mototsak aizearen arnaspean. Gogoko zitzaion aurpegiari ere aize-ufadaren esku-atseginka biguna. Etzan an zokondoaldeko kiskaldubearrik nabaitzen.

Zuazketako saletxearen azpikoaldetik gainbera barreatzen dan larranbilludiko iturriondo ozkirrian egin zuen orduerdiko etzanaldia. Tella-tutik ke adats ugaria zeriola agiri zan beeraxea-go Aitzarteko artzaiaren ardiborda. Larraul alde-ra dijoazen pagadien gerizpeko itzalean larratze-ra goizaldean irtenak ziran aren arkume, bildots, arkazte, ardi, ardizar eta artaldeari beti aurrelari dabilkion ari adar-biurria.

Lanean ari zan artzaia bordapean, eta leiati-llatiko noizpeinkako begiraldiz zaitzen zun paga-diko artaldearen ibillia. Eupateko sendo batekin atera zuen gure bidariak artzaia bere lanetik. Gaztaigiten ari zan mutilla eupateko-otsa entzun zuanean eta, eskuartean nasketan zerabilkin kaikuko mamia utzita, eskuak alkar zartakatuz, atalasean gelditu ziranengana itzuli zan. Oek, ordea, etzezakeen ondo ikusi barrukorik; ainbes-tekoa zan barrualdeko ke-lañoa.

—Kaxo, Patxi —esan zion maitekor Agerrek—
. Errege bera baño ere obeto bizi aiz emen,
mutil. Iretzat dituk emengo txorien xintarik gozo-
enak; iretzat eguzkiaren mosurik bigunenak. Ez
datorkikek oneraño arerioen bekaitzik. Ez deza-
kek iñorekiko burrukarik. Ez dek ik emen Jaun-
goikoa beste nagusirik, ez jaberik; ire buruaren
jabe aiz.

—Gure bizitzazkoak jakin-uste dezute kaleta-
rrak eta, bai al-dakizue, ba, ezer? —erantzun
zion artzaiak parrezka—. Txorien xinta ezetzik,
ekaitzaren orroa ere badatorkigu maiz buru-
gañera. Piztirik amorratuenak ditugu, berriz are-
rio: sapelatsa ta basatxakurra.

—Arrano pola! Gizona gizonarekiko dan baño
pizti gaiztoagorik ba al-dek iñun? Gaurko egu-
nean gizarteak darabiltzkin aginkak eta burrukak
ikusirik, amaika bider sortu izan zaidak andik
iges egin eta artzaien artera etortzeko gogoia.

—Je,je! Esan, bai; ordea, gure eskasak eta
emengo ipar-aize zorrotzak aurki uxatuko zin-
dueke berriro urietako atsegin-bizitzaren billa.

—Aizak, Patxi —jaulki zion apaizak—, ez ezak
utzi gugatik eskuartean erabilkikan lana. Jarrai

egiok lanari. Ain zuzen ere, ez dut egundo ikusi gaztairik egiten.

Artzai menditar ezjakiñari zegokionez, itz giarrez eta laburrez azaldu ziezten bidari jakinmin-dunai gaztaigitearen lanak. Atsegin zitzaizkion Agerreri artzaiaren ateraldiak; eta berak ere, mutillaren etorria aizatzearen, maiz ixurtzen zion izketariari gatz-alea ta gazimiña.

Saletxearen sapaetik zearka dijoan gapirio-muturretik zintzilikatzen dan pertzean esnea epeldu bitartean, uretan beratu bear da gatzagiatu, zapi zuri batean eaulki ondoren, gatzagi baetu ori esnari nastu.

Kaikuko epelean orduerdi batez dagoala, mami biurtzen da esnea; baña mami-gañera bere neurrian gazura bereizi dedin, eskuzko erabillia bear du. Mami au, bear bezela txikatu danean, gaztanzumitzean jartzen du artzaiak bi egunez. Azala zimeldu, gogortu ta oriskatu dakion, luzaroan ketan egotea du onena. Azokan erakutsiko due gero gaztai oek aurpegi dirdait-sua; erosleak izango ditu ugari nunai artzaien esku-erakutsiak.

Ordu-laurden bat egin zuen mendizaleak Aitzarteko artzaiaren bordan eta «gero arte» esanaz, joan-agurra egin zioten irurak maiteki.

—Laster iritsiko dek gure mandazaia ta esaiok orxe, bordaondoko gerizpean zabaldu dezala mai-zapia, esan zioen joakeran.

Menderakaitza ta neketsua da, agian, mendiaren bizkarra. Gizakumeentzat baño obeto dirudi auntzak ibiltzeko egiña, arrartean urratu duen bidexka estuak. Bidexkaren oetik oñak daramazkitzuela, ertzeko arri-konkorretako bat ustegabeen jotzen ba'dezue, tximista bezela oldartuko da maldar-beera ta pirritan gainbera amilka dijoala, ez du aren ibilliak oztoporik izango arik-eta zokondoko arrekazuloa jo arte.

Aldapa-gora ibillibearrak iztazañai demaien nekearen truke, ba-due, orratio, begiak zerikusi ederrik aski. Mendiaren zintzur larrugorriak buruz zeruko urdiña zulatzen dun garaian, bele-taldeak dabiltz garrasika arkaitzetan; izkilluaren mendera urreratu gebe, ordea, maltzurak baitira piztitxu oek.

Sugeak baño biurraldi ugariagoak dagizki zokondoaldean Azpeititik Tolosara dijoan bide-

zabalak eta Errezilgo etxeak, mendi-egaleko aldapan oztopo eginda, bertan errotu diran arkaitz zurien antza due.

Maldar-gorako ibilli neketsuari zebiltzkiola, bidexka ondoan agiri dan leiza-zuloakin egin zun Balendinek oztopo. Luzaroan entzun zuen zuloaren aora arek jaurti zun arri-konkorraren ibilotsa.

—Jaungoikoak zekik noraño dijoan leiza au, jaulki zun.

—Txarri bat erori omen-uan bein leiza-zulo ontatik eta, bai al-dakizue egun batzuez geroago nun azaldu zan? An sakonaldeko baserri artantxe; bi kilometro egongo dittuk emendik. Txarri-kurrintza entzun omen-zin egun batez okulun ango nagusiak eta arritxabal baten azpian zegon zulotik Ernioko txarria agertu —erantzun zion Agerre gazteak, beatzez errekaondoko baserria erakutsiz.

Izan liteken buruntzarik ederrena jantzi diote euzkaldunak, Ernio-mendiari burualdean. Ogei gizaldien luzeran biozpean sakonki barruratu dan sinismenak eraman du ara kurutzta ta arkaitz bizian errotu. Ez da inguru arietan kurutzta berei-

zia Ernion jarri ez du erririk eta udaero egiten diote aldraka ikusaldi maitekorra. Mendi-gandorrean kurutzetik kurutzera Kalbarioa esan ondoren, kolorezko galartzuz lepaldea apainduta jeisten dira erromeritar gazteak kantari igande-arratsaldean.

Kalbarioa esanaz kurutze batetik bestera ibilli-ala, arri gañean itsatsita uzten ditue emakumeak argizari piztuak eta eguzkiaren galdape kiskalgarrian koipea bezela urtzen dira. Kontuz ibilli, orratio, bide ontatik zear, argizari urtuan labainduta burua arkaitzetan ausi ez dakizuen; an baitaude pillotuta azkenengo amar gizaldien sinismenak ara eraman ditun argizari-kondarrak.

Senda-tresna ikusgarri batzuk agiri dira beeko kurutzearen besoetatik zintzilika. Urte guzirako zuengandik gaitzak aldendu ta uxatu nai ba'dituzue, sartu gerritik, izterretatik, lepotik, besoetatik eta bizkarretik burnizko uztai biritil aiek. Ara dijoazen danak egiten due beste orrenbeste.

Baña, irakurle, zure begien ikusgarri arrigarritzat, amestu zentzaken begiratokirik ederrenetakoak nai ba'dezu, zoazkio goiko kurutzeari ondo-

ra. Ez dezu egundo ikusi izango, araingo ikusgai zoragarririk. Zorabildurik bezela gelditzen dira ara igotzen diran guztiak.

Izarraitz eta Urraki mendiak estaltzen duten lurralde pitiña izan ezik, begien aurrean degu Gipuzkoa osoa lilluragarri. Gandor jeiki ontatik, begipean ditugu erririk zoragarrienak. Ollarrari olloak bezela, magalera urbilduz dijoazkio mendiari Gipuzkoako erriak. Begiratoki amesgarri onetatik bezaingo ikusgai ederrik begietaratu ete-litakio ikusleari iñundik?

Lenengo mallan, legor-erririk aipatuena, Kantauri-itxaso asarrearen erasoak ikaraturik igesika bai'lijoaz. Ara or Tolosa, Azpeiti, Aia, Andoain, Errenderi. Tarteka, berriz, artasoroak, pagadiak, belardiak eta sagastiak bitxiztatzen due legor-erri oien gerriko apaña.

Andiko aldetik, eguzkiaren argipean dirdirka diarduen itxaserriak ziztatzen digue begininia, asi Zumaiatik eta Biarritz uriñoraño. Itxasertzean alaiki murgilduta agiri dira erriño oek itxastxori zuriak iduri. Aruntzago, berriz, nork igarri nun etetzen dan itxasoa ta nun asten zerualde urdiña? Ain garbi ta begien kilikagarri dago lurrari

maite-igortzika dijoakion galartzu urdiña. Luza-roan oarki jarri ezkeru, zuriune ta beltzune batzuk ere ikusi litezke begirariz: itxasontzien itzalak eta arrantzalien ontzixken aize-oial zuriak dira.

Ikuszelai zoragarri oni inguru-begira burtzozaturik zeuden bitartean, sapelatsaren garrasia entzun zuen eta, geroxeago, ikusleen buruen gañetik eraiki zun piztiak itzulinguruka egaldi arroa.

Erdi-lotan daude sakonaldeko erriak; logura sortzen baitu eguerdialdeko sargoriak. Gerizpera joanak ditugu txoriñoak ere eguzkiaren zulatu erreari eutsi eziñik. Maite-kantuak mintzo ixillez alkarri ixuriz ibilli oi diran enarak ere. Bealdean, tellatupeko abeetan ditue garai ontan jolasaldiak. Zanpagarria ta aulgarria da beroaren eztena. Nagiak eta ixiluneak gainditu du izadi osoa. Onelako ikusgai kilikagarriak giza-kolkoari eragin oi dioten biotz-ikarari eutsi eziñik, apaizak oiugin zun.

—Bedeinkatua dedilla Jaungoikoa! Aren beata izadian argiro ikusteko, ez dek iñun au bezelako biderik.

—Orain bost urte, Larraulen egin nin bi illabetez udaldiko atsedenaldia-ta, egunero etortzen nindukan tontor ontara —erantzun zion Agerre gazteak—. Emendik begira nengoela, ikaraldi ziztagarria sortzen zitzaion beti nere biozpearri. Jaungoikua bekoz beko begira zegokidalakoan, alegia.

Egia esan, mendigañeko arkaitzaundi larrugorritu aiek, Jaungoikoak asarrealdian errotik ateratakoak eta ostikoka irauliak dirudie; azpikaldeko arru ta amiltoki izugarriak, berriz, burua zorabiatzen due, noski. Sapelatsak eta arranoak dira ango bizidun bakarrak. Ango ixillak eta mugarik gabeko ikuszelai arek biotza zorrozki zulatzen due. Jaungoikoaren begiratupean bai'geunde, ikara-zimikoak eta egonezin arrigarri batek zirikatzen du biotza.

Ordubetez egon ziran mendi-galurrean ikusgai biotz-erdiragarriari begira erdi-toteldurik, eta, bein begiak naiko ase ziranean, aguerdiburuan, aldapa beera asi ziran. Gora-ibillia ezetzik, beerakoa ere naiko neketsua zan, belaun-dardara sortzen baitu beerantzako ibilliak.

Zelatungo belardietara jetsi ziraneko, Aitzar-teko saletxeko babesean zabaldua zeukan abarkatariak mai-zapia. Zirika zebilkien ordurako gosearen eztena-ta, eldu bezain laster ekin zioten bazkariari. Janzalea da, agian, basoko ibillia, eta gogotik ari ziran danak jaten. Abarkataria ta bere seme mutikoa ziran mai-serbitzari.

Otordua erdiratu zanean, artzaiak galdegin zien mendizaleai:

—Berri jakingarriak omen-dituzue egunoetan Zarautz-aldean?

—Ze berri, gero? Nik dakidanik ez, beintzat —erantzun zun Agerrek, bere lagunai begira.

—Abarkatariak esan didanez, apustu bikaiñen bat dezue izateko laster —geitu zun arek.

—Etzekiat ezer. Zein apustu?

—Balendinek jakingo du zerbait.

Zorrotza zan ustegabeen egin zioten zirikal-dia-ta, naiz bere gogoia biurrikatu bear artarako, zerbait azaldu bearra bideratu zitzaion Balendini. Artean, ordea, etzion ezer esan bere nagusiarri ta naiago zukean aopean dana gorde, ari aurrenengoz adierazi arte.

Orrez gañera, aren iritziaren bildur zan; baña onaizkero, nola ezkutatu, an ordurako norbaitzuk zekiena? Bera ixildu arren, besteek agertuko ziokeen bere ezkutua. Bideratu zitzaion zoria naitaez buruzkatzea zegokion eta mintzodardaraz asi zan:

—Bai, burugabe jokatu nitzan atzo ta bear baño geiegitxo itzezin nun eztabaidako beroaldian. Oi bezela, atzo ere, Getarira joan giñan arratsaldia ematen Lopategiko Agustin eta ni; eta, ango sagardotegi batean geundela, ume purtzil batzuek Txandres arrantzalearen seme Joxe, itzez iraindu ondoren, burrukatzera zijoazkion bidegabe, ta aren alde irten nitzalako, ni ere itxusiki iraindu ninduen. Au zala-ta, eztabaida zorrotza sortu zan; eta nik, ero onek, aien itzezinbear errezari erronka zoro batez erantzun nion. Bai, ordea, ondo damutu orain.

Martin apaizak, ordea, ondo ezagutzen zun bere morroi zintzoa ta ba-zekin arek etzitula atea ainkeriz egundo zabaltzen; izatez ere, etzala burrukazalea. Orrez gañera, orrelako zeingeiagoka ta indar-neurketen zalea zan, eta bere morroiaren naigabea oarturik, esan zion:

—Gizonak, buruz dabillen bitartean, beintzat, ez dik izan bear egite zintzoen lotsarik. Zer apustu egin zenduen?

—Txandresen semeak eta nik eraman baietz orduerdi batean Molarritik Getarira, Txantxiko arrantzalearen ontziska.

—Egingo al-zendukee marka ori?

—Nik baietz uste.

—Noizko egin zendue apustua?

—Amabost egun barru jokatzeko.

Tira, ba. Bein itza eman ezkerro, itzari eustea zegokiok gizonari.

* * *

Jaungoikoaren beatz ikuseziñetik zilintzaka, eguzkia eguerdialdetik etzinaldera neurkiro jeisten dan bitartean, pagadietan eta gaztainadietan barrena dijoaz iru gizonak. Garai ontara ezkerro, udazkeneko aizeak zugazburuetatik banaka erasten ditun ostoan antzera, ba-dijoaz garisoroetatik etxera, igitariak, jardun latzak aulduak eta zimelduak. Iturriondoetan ezkotzen

ditue ur-xaplatekoka lepagañean eguzkiak ateratako erremiñak.

Orainarte saraspeetako itzalean erdilotan egon diran oloak ere, belardietan due azkenengo aztarrikaldia. Gogokoa due beiak ere oraingo larrealdia. Larre-bitartean, zintzarria dilindanga dabilkie lepoan eta buztan-ukaldiz edo ostikoz uxatuko ditue euli-eztenaren ziztada miñak. Errekondoetan narrugorrian eta garrasika dabiltz ume-taldeak. Txarriak, berriz, osiñeko lokatzazuloan egin due etzanaldi atsegiña ta, bien bitartean, txarrikumeak kurrintza lazkarra digie uxarreari muturra kendu gabe.

Illunabarraren atean begiztatu zuen mendizaleak Zarautz. Etxeko eginbearrak zai zegozkio-la-ta, bere lagunengandik aringa aurreratu zan Balendin.

Bidean oztopatu zitzakeanen ikusmiña eragoztearren, bidezabala artu bearrean, etxearen gibelaldetik itxasaldera barreatzen dan sagastiko bidetxiurretik jo zun. Baña an, sasipean ollandari begira dagon basakatua bezala, naigabe zorrotzazegokion zai mutillari.

Sagasti-barreneko mugatik Dorronsorora zijoala, txokondo itzal batean dagon seskadi ezkututik, norbaitzuen itzotsa belarrietaratu zitzaion ustegabeen. Nortzuk ete-ziran txokondo babes artan izketaldia zutenak? Jakinmiñak zulatu zion batbatean biozparrena-ta, seska jeikien artetik begira, entzuerne jarri zan lipar batez.

Jesus, ene! Iparbeltzak dardarazi dun adaburua baño areago astindu ta irauli zion asarreak barrualdea. Sugeak eldu izan bai'lio ere, etzuan alaingo biozmiñik artuko. Egia ete-zan begiak erakusten ziotena, ala zorabialdiak lausotu ete-zion ikusmena?

Begiak zorroztu zitun berriro ta belarriak luzatu ere bai. Gezurra zirudin; baña, ez, ez.. Etzeukan begietan lausorik; argiro ikusten zitun begipean zeuzkan neska ta ondo-ondotik muzinka ta laztanka zebilkion mutilla. Suak artu zun burutik oñetaraño. Ordea, begiak ezetzik, belarriak ere naigabea izan zezaen, itzegiten zutenai erne jarri zitzaien berriro.

Eserita zeuden koskatik batpatean jeiki zan Malentxo ta bere lagunari esan zion:

—Etxeratzeko garaia det. Agur, Lon!

Eta itz oek jaulkitzen zitun bitartean, igesika bai'lijoa, seska artean sartu ta ezkutatu zan jola-sean jauzika. Mutillak, ordea, laisterka aurea artu zion, eta eskutik elduz, ibillia tinkarazi.

Zergatik zoazkit ain azkar? Zure aurpegiño zoragarri orri begira negokizuke betiko zoratuta.

Ai maxiolari gaiztoa! Zenbat neskeri esan ete-diezu beste orrenbeste?

Zu bakarrik zaitut nere erregintxo maiteño ta sorgin zorabiatzalle!

Bekoz beko zeuden seska artean neska-mutil biak alkarren ondoan, begietatik maite-sua txinpartaka zeriela. Eta maiteberoaldi zoro artan, gerri zumetik neskaño xaloari besoa bilduz, gartsu bereganatu zun mutillak eta besoartetik igesegiteko indarka zebilkion bitartean, musu bat egotzi mataillan. Mutiko biurriak kabian atze-man dun txoritxo lumatuberriaren antzera, igesegin zun Malentxok arnasberoka mutillaren besoetatik.

Nola susmatu zezakeen ezkutu-maitale biak, maite-jolas artan norbait begira zegokienik? Orrelako susmorik izan ba'lue, buruzago ta erneago jokatuko zitazkian; baña mendizaleak

artean itzuli gabeak ziralakoan, zabar eta arduragabe zebiltzan.

Urde zikiña, alena —oiugin zun Balendinek sasiartetik begiak zorrotzurik eta Malentxogana igesegin nai zion zakurrari lepogañeko larrutik eutsiz.

Gogoak eman zion antxe bertan lepo-zintzurretik elduta, pizti nardats bati bezelaxe, mutillari burua zanpatu ta lertzea. Ordea, Malentxori kalterik ez erakartzearren, lurrean josi zitun oñak ordukoz eta andereño lerdena etxeatzetik barrura sartu zala iduri zitzaion garaian, eskupean indarka zeukan txakurra askatu ta sagastibaztarretik ezkutuka zijoan mutilla beatzakin erakutsiz, «xaxa orri, Lau» esan zion.

Ekiñala bizian zalapartaka oldartu zan zakurra gainbera tximista bezain azkar eta arek gibelaldetik egin zion erasoari eusteko beste ez izanda, sasiartean txinbulika erori zan Zito, zakurra-
ren aginpean. Aiek izan ziran orduan mutillaren aieneka ta istilluak!

Ordukoz naiko zigorra izango zualakoan, seska artetik irten zan Balendin eta zakurrari deiegin zion. Soñekoa arrataz beterik eta erren-

ka zutitu zan mutil ozkatua, oiuka. Balendinek, ordea, zapotzar bat izan bai'litz baño jaramon geiagorik egin gabe, betoker eta mintzo legorrez esan zion:

—Galtzori oetxez ditu besteren salean nolainai ibiltzeak.

Eta oiuka ta zotinka ari zanari begiratu ere gabe, etxealdera zuzendu zan.

Bien bitartean, iñularreko arginabarrean bilduta, aldapa-beera zijoazela, alkarrizketa au zerabilkien apaiz jaun Martinek eta Agerrek:

—Zerbait iri azaldu bearra zeukat. Ezpaiak lotu natxeok, ordea, orain arte; baña adiskide onari dana esatea zegokidak, naiz naigabea sortu nere biotzean —jaulki zun Agerrek.

—I autan bezelako adiskide leialagandik letorkikedana, nere onerako izango dek-eta, esaidak ire azaldubear ori.

—Ire illoba Malentxoretzazkoa dek.

—Zer da, ba? Kezkaturik naukak.

—Mutil bat zebilkiok ondoren eta, marmarrak dionez, anbat ez dek izango mutil ori zuen sendiarterako egokienetakoa.

—Etxekoa izaten dek olakoetan ezjakiñena ta ez natxekian ezertxo ere. Zarautztarra al-da mutilla?

—Ez, erbesteko udalditar bat baizik. Bere amarekin bizi dek, baña isil-misilka belarrira ixuri diatenez, anbat izango die sendi orretan zerbait lotsaz ezkutatu bearrekoa.

—Noiztik ete-dabiltza alkar aituta?

—Lagun ezagutuberriak ez dituk izaten baz-tarzale; bai, ordea, maitale zarrak.

—Jakiñaren gañean naizan ezkerro, lenbailen buruzkatuko diat arlo au. Bien bitartean, bildu ezak sendi orretzaz jakin ezakekan dana.

Ontan, Inurritzako eleizdorreko ezkillaren danga-otsa barreatu zan ibarzelaian eta inguru-ko mendiak eta itxas-arkaitzak berriztatu zuen geroxeago oiartzuna. Iñularreko Agur, Maria esan ondoren, Dorronsoroko atadian bereizi ziran alkarrengandik adiskide biak illargi zerbela-ren argipean.

Pozik etxeratu zan Agerre, biozpean eztenka zebilkion naigabea ustu zualako. Egin zuana egiteko, azaldutakoa baño geiago ere ba-zuan

oraindik, nunbait, kolkopeko osiñean. Etzan, ba,
gizon ura berriketari ariña.

VI

ZERUA GOIBEL, BAÑA BIOTZAK ILLUNAGO

Zearo aldatu zan zerualdea urrengo goizera-ko. Gauerdian asi ziran laño lodiak, ardizarrak iduri, medi-gibeletik agertzen eta, leendik itza emanda daudenen antzera, alkarganatzen. Burrukan ekin zioten, berriz, geroxeago odei zuriak eta alkar gainkatuz, adarkatuz eta bultzatuz, goizalderako, batzuk besteakin estutu ta naasituta, zerupe dana artillez estali zuten.

Sargori zegon, ordea, alaere. Etzan aizealdirik nabaitzen; geldi ta logale zetzan izadi osoa sargori kiskalgarriaren lozorroan. Bealdetik zera-bilkien egaldia enarak. Arizti aldetik, berriz, okillaren oiua zetorren noizbeinka. Euriaren zantzua omen-dakar egazti oiulari onen kantuak, agureak diotenez.

Goiz jeiki zan Balendin, oi bezela, egun artan ere. Nagia atera ordukoxe, sega amostua zorroztera juan zan etxeburura. Ukaldika sartu zun lurrean txingura ta, itxasoari begiz begi eserita,

segaren ezpañeko akatsak mallu-dangaka leuntzen ekin zion. Garai artantxe zijoazen arrantzaleen ontzitxoak portuti itxaserdira, aize-oialak aizeari zabaldurik; baña aurki bildu bear izan zituen oialak eta arraun-indarrez ontziak erabili. Ezpa'zekarren aizeak ufadaren kemenik.

Segaren akatsak txingura gañean dangaka zanpatzen zitun bitartean, Malentxoren irudia zebilkion Balendini irudimenean atergabe itzulbiraka, argiontzari gabez mitxeletatxoak ibiltzen zaizkion bezelaxe. Nola susmatu zezakean, ordu-rarte ain garbi ta zerutiar uste izan zun andereño ederra, gizon txalu baten besoetan ikusibear zukeanik?

Artean etxean iñork etzekian ezkutu gaiztoa salatu zun ustegabe aurreko egunean. Eta orain, ezkutu orren jabe izanda, zer zegokion mirabe leialari? Ikusitakoa bere nagusiar adieraztea? Baña, ez, al-zan egite lotsagarria gizonarentzat, bere burua salatari zital egiñaz, andereño baten izen onari alako kutsu larria egozte? Ezer ez azaltzekotan, berriz, noraño amildu ete-zitekean irristaka gazteño burugaldia? Berak ainbeste

maite zun gazteño xaloa? Aren aldez larrua ere emango zukean pozik Balendinek.

«Au dek, ordea, orain batbatean sortu zaidan buruauste galgarria...! Zer egin? Nola jokatu...?» —oiugin zun gizajoak.

Upelean irakiten dun ardao eginberriaren antzera zebiltzkion Balendini burutapen oek. Buru-barrengo suak eraginda, geroago ta azkarrago ta maizago zeramazkin txingura-gañean malluaren dangadak.

Bukatu zun, azkenik, bere lana; sartu zion segari kertena; lotu gerrian sega-potuaren ugela, ta segaren orpotik saskia buruzbera zera-makiala etxeburutik sagasti-ondoko belardira juan eta zarrastaka indartsuan besoen kiñaldi neurtuetan, belarra maillaka ebakitzen asi.

Bien bitartean, e'tzebiltzan zabar eta logale etxealdean emakumeak. Zazpiretan ematen zun meza Martin apaizak Inurritzako elizatxoan eta aren meza entzuten zuen, egunik utsegin gabe, Josebe etxekoandreak eta bere alaba Libek. Meza-ondorenean, eguneroko zeregiñai lotzen zion bakoitzak bere burua.

Etxekoandre ernaiari zegokionez, egoki bananduta zeuzkan Josebek etxe-barneko eginbearrak. Etzeukan an iñork zer egin zezakean galdetu bearrik; ba-zekian aurretik bere bete-bearra. Izan ere, ezin-ala eginbear ditu etxebarruak emakume langillearentzat.

Sukalde bi zitun Dorronsorok garai artan lenengo oñean. Kebide itxia ta burnizko labea zeuzkan batek. Sukalde berri ontan beneatzen zituen otordukoak; baña ba-zun ere aintziñako sukalde zar suburu zabalekoa. Antxe, kebideari barrendik zintzilikatzen zan laratzetik pertza exegita, egosten zituen olloentzako ta abereentzako janariak. Mikele neskamearen ardurapean egoten ziran bealdeko lanak eta garbiketak.

Josebe etxekoandreari zegokion, berriz, bigarren oñeko logelak zuzendu, orraztu ta txukuntzea. Libe izaten zun maiz laguntzalle goiko zeregin oetan; besteetan, baña, atsegiñago zitzaizkion ari bealdeko lanak eta araxe jeisten zan. Atsedenaldirian eta opor-garaian etzuan Malentxok lanjakiñik.

Elizatik etxeratu bezain laster, sukaldera sartu zan Libe egun artan eta neskameari galdegin zion:

—Gaituta al-daukazu olloentzako orea?

—Bai. Aza-osto egosiakin eta iriñakin egin diet gaurkoa. Orra or kutxa-ondoan pertza.

—Neronek eraman bear diet gaur —jardetsi zun arek.

Eldu zion Libek pertzari eskulekutik eta, atadira zijoan bitartean, olloai deika asi zan. Etxetik asko urrindu gabe zebillen artean ollo-taldea-ta, karakaz eta zalapartaka erantzun zioten etxeko-andre gaztearen deiari.

—Ux, ux...! —zegien ibillia eragozten zioten egazti gosetiai, ibilbidetik uxatu naiaz.

Ollo-talde artan, ba-ziran andereño liraiñak eskutik zintzilika zeramakin ontziraño jauzi egin-da, orea mokokatu nai zuten egazti lotsagabeak ere. Etxeatzeko iturriondora eldu zanean, jarri zun ontzia lurrean eta, aste betean gosez ilbearean egon bai'lira, eraso zioten ore-pilloari, aldameneko lagunari noizbeinka mokoka zorrotza erantsiz. Lepoa luzatuz eta biurraldikatuz

iristen zituen ore-zati legorrak peaporaño irristakatu arte.

Mokoka ta zalapartaka ziarduen bitartean, banaka banaka zenbatu zitun Libek egazti jaleak. Bein eta berriro zenbatu bear izan zitun, ordea. Bat, bi, iru.

—Ez, ez; ez da agiri gure ollo nabarra. Nora joan ete-da txoroska ua? Purr, purr...! Ain otxana izanda, besterik ez bezelako arrautzagillea, gañera-ta, bai tuntuna dala gaxoa —ixurtzen zun eztiro andereño liraiñak ezpainarteko xokondo gorritik.

—Aizu, Mikele, ez al-dezu ikusi gaur gure ollo nabarra?

—Ez. Atzo ere etzan agertu iñularreko janaldira. Nunbait kabia eginda, lokatua egongo dala susmatzen det.

—Bai? Aurki billatuko diot, ba, bere gordelekua.

Eta etxeatzetik sagastialdera zuzendu zan Libe, antxumearen gisan jauzika. Sagastiko sasiartean eta sastraketan egin izan zun lenago ere kabia ollo aek eta txitak jaio arte, sasipean

egon ere. Orain ere ba-zitekean alako zokondo-
en batean egotea.

Etxeburuko langa gainditu-garaian entzun
zun Balendinek zerabilkin segaren zarrazta-otsa.
Eta mutillarren begiztatzeak etzion, agian, nai-
gaberik sortu neskatxoari; bai, ordea, pozaldia-
ren ziztadak biozpea zirikatu.

Ain otxan eta ain eskurakoi ikusirik, norbai-
tzuk uste zuen etzeukala Libek bularpean bio-
tzik. Irribarre gozoa loratuta gelditu zitzaion beti-
ko ezpainartean. Irribarre arek etzion egundo
igesegingo agoarte zoragarritik, ez naigabe-
garaian, ez pozaldietan. Esan zitekean aren bioz-
pean ekaitzaldirik eta aizealderik sekula etzala
sortu. Urmaeleko ur gardenaren antzekoa zun
gogoia; maiatzeko eguzkiaren irriñoa bezelako-
xea; enarak urratzen dun ugin-bitsaren gisakoa.
Ondorengoz, biotzik gabeko aingeru-iruditzat
epaitu izan zuen norbaitzuk.

Baña orrela epaitzen zuenak, etzekien Libe-
ren biotz-barrengorik ezer. Bein baño geigotan
arinduagotu izan zitzaizkion biziki biotzaren tau-
padak; baño nork igarri olakoetan ezer, aurpegi-
ko tankerarik, emakumetxo ikasiari? Biozparren-

go aizealditxoak neurritatzen eta esiratzen zekiana zan, ba.

Norbaitzuk besterara uste izan arren, bazitun aundiro atsegiten zioten gauzak; alere, eskurakoi ta errazki jarriko zan noznai bere amaren edo osabaren gogoerara, naiz orretarako bere biotza biurritu bear izan. Berorrelaxe ixurtzen du usairik gozoena, arkaitzondoko itzalean ezkutuka jaio dan loretxo apalak, norbaitek ustegabe oinazpian zanpatzen dunean.

Etxeburuko langa gaindituta, belarditik Balendin begiztatu zuanean, pozaldi azkar batek ziztatu zion Liberi biozpea ta arenganaxe zuzendu zituan urratsak. Ondo zekin neskañoak, olloaren gordelekua lenbailen aurkitzeko, etzezakea- la izan eskuartean aren laguntza baño bitarte oberik.

Bai al-zan, ba, alaingo mutil azkar eta ego-kiak etzezakeanik ezer? Ez segan, ez aizkoran, ez lanean, ez egokitasunean, ez indarrean, etzan inguru arietako mutil gazteen artean, aren ukon- dorañoakorik. Nai izan ezkerro, erraz ausiko zitu- kean arek danak edozertan. Alaere, ordea, etzuan egundo indarrik burugabe erabiliko;

etzion sekula iñori bidegabekeririk egingo. Beti neurrian, beti egokitasunean jokatzeko zana zan. Onelako mutillaren laguntzarekin nola bizitzeko galzoririk larrienak biotz-zabalki buruzkatu ez? Gainberako ibilli erreza zitakian uaxe nornairentzat.

Beste munduko gauza al-zan ontziburu ikasi arekin itxasoa aldeaz alde ikararik gabe zearkatzea? Eta belardi-zear zijoala, andereño samur eta xaloak biziro aundi-esten zuten Balendinen indarra ta trebetasuna.

—Egun on, Balendin —agur-egin zion maiteki—. Ez al-dezu ikusi inguru oetan gure ollo nabarra?

—Gaur ez —erantzun zion arek—; baña aurreko larunbatean, bai, bi bider ikusi nuan emendixek seskadi-aldera zijoala.

—Egun oetan ez da etxera azaldu-ta, ementxe nunbait kabia egin ote-dun nago.

—Seskadiko sastraka oietan egin ezpa'du.

Eta biak seskadiko sastraka-artera zuzendu ziran bata bestearen atzetik. Bereala aurkitu zuten Balendinek ollo maltzuraren egotokia. Aurreko egunean mendialdetik zetorrela zakurrari lepotik

eursiz sasiartean gordeta egon zan tokitik, olloaren kabira bitartean, etziran egongo iru oinkada.

Ixillean atzeman nai izan zun Balendinek olloa; baña sasipetik eskuak luzatu ziozkan bezain laster, egoak arrotuta, karakaz eta istilluka irten zan bere oetik burrukalari; ta bizkor eraso zion atzemalle ausardiari egaztiak mokoka, «klok, klok» egiñaz.

—Atoz, Libe. Amar arrautza dauzka jaiotzeko ta txita jaioberri bi.

Urreratu zan Libe sasiondora ta egaztiño jaioberrietako bat eskupean kutunki artuz, bigunkiro laztandu zun. Gero, berriz, aren mokotxua ezpain gorrietara urreratuz, maitekiro mosukatu-ala, ara nola mintzatzen zitzaion:

—Pi, pi, pi! Gaxua! Auxe egaztitxo polita! Bazenduen, ba, noski, etxealdean jaiotzeko toki oberik. Nola ekarri zaitue zoko ontara gure ollo nabar tuntunak?

—Etxera eraman nai al-zinduzke? galdegin zion Balendinek.

—Bai, bai. Jarri egizkidazu poliki mantaleko txokoan eta emenxe eramango ditut epel-epellean.

Kabiondotik banaka-banaka atereaz, magaleko txokondo epelean jarri ziozkan poliki arrautzak eta txitatxoak. Urrena, berriz, gibelaldetik moko-zartaka zebilkion olloloka atzemanda, gal-tzarbean zeramakilla, etxeko atadiraño lagundu zion etxekoandre gazte liraiñari.

* * *

Gertakizun oen bitartean, ardura aundiko zerbait zerabilkien eskuartean Martin apaiz jaunak eta bere arreba Josebek, Etxeko gela nagusian orduerdiko ezkutu-izketa eginda, erabaki zeatza artu duenen tankeran, irten ziran biak orduerdiaren buruan.

Jeikia zan ordurako oetik Malentxo ere-ta, gosari-ondorenean osaba Martin atadira irten zan garaian, Libek sagastitik eraman zitun txitai begira ta laztanka ziarduen etxeko danak inguru-aldran. Alkar-izketak zioa bideratu zion bezin laster, Malentxori bekoz-beko begira jarri zitzaion osaba Martin eta ara jaulki ziona:

—Baña, Malentxo, geroago ta zurbillago ta argalago aurkitzen aunat. Gaxo al-ago? Zerbait al-daukan?

—Nik? Ez, orixe! Iñoiz baño ere osasuntsuago nabillela esango nuke.

—Ire egunetik egunerako argaltze orrek kezkatu rik natxeukan, ba.

—Zer ardura dio, ba, piska bat argaltzeagatik osasunez ondo ibilli ezker o?

—Alaere, ire osasunari arretaz begiratu bearra zegon. Bildur naun, orrela jarraitzekotan, argizaria bezelaxe urtuko ote-aizanan.

Alkar-izketa au zerabilkien bitartean, atalasean azaldu zan Josebe etxe koandrea ta bere anaiaren azkenengo itzak entzun zituanean, ara zer esan zun:

—Ni ere aspalditik nabil Malentxoren osasunagatik naigabetua. Juan dan astean, Zarautztik onuntza nentorrela, bidean egokitu zitzaidan Sabas osalari jauna. Nire kezka azaldu nionean, bai al-dakizue zer erantzun zidan? Aldi batekoz mendi-aldera joatea lukeala osabiderik onena. Ordea, nere alabarengandik aldendubearraren biozmiñak eragotzi dit orain arte esanbear au.

Baña, orretzaz mintzaten asi zeraten ezker, ara nire iritzia. Lasturretako maiztarraren base-rriara jua bear zendukee aldi batekoz Libek eta zuk.

—Baña, ama! Zergatik kezkatu orrenbeste nere osasunagatik? Oso ondo nago. Gañera, zuengandik ain urruti joateak, bai, gaxotu bear naula zearo! Nola bizi gindezke luzaroan baserri artan? Ama, ez ezazu orrelakorik esan!

—Ez, ez. Ez dira txantxetakoak osasunareki-ko gauzak —jardetsi zun osaba Martinek—. Len-bailen osabidea jartzea da onena; geroago ta okerrago izango litzake, bestela. E'letorkio gaiz-ki Liberi ere ango egonaldia.

—Tira! Norbaitek lagundu bear ba'dio, poz pozik lagunduko diot nik —erantzun zun Libek—. Lenago ere izan gindunan antxe txikitan. Ez al-aiz gogoratzen?

—Ama! Ez det nik ara jun nai.

—Amaren aginduetara ibiltzea ta makurtzea zegokion alaba onari, Malentxo —erantzun zion osaba legor-antxean.

—Ea, ba, biar edo etzi juateko gertutzen ditu-gun eskuarteko tresnak eta jantziak. Ain zuzen

ere, ez dezue bear beste munduko gauzarik baserri batera joateko —geitu zun Josebek alkarriketa amaituz.

Etzuan izan Malentxok geiagoren bearrik osabaren eta amaren itzak noraño zijoazen igartzeko; begitarte azkarra baitue jatorritik emakumeak giza-biotzari dagozkionak iraduz sendutzeko. Aurretik oarki artutako erabaki tinkoa zirudin agertu zutenak. Zergatik zetorren, bestela, batbateko lenbailenka ua? Onean ezpa'zezakeen, aien agindura naitaez makurtu-eraziko ote-zuen susmoa sortu zitzaion. Eta bere ezin-ezean, negarrari atea oro zabalduta, matailletatik beera malko mardulak zerizkiola, zotinka saminiñean asi zan. Ua zan neska maiteminduaren biozmiña!

Logelako ispilluaren aurrean orrazketan ari zan Malentxo orduerdi batez geroago ta aurpegi liluragarriari paregabeko urre-buruntza zegioen ille bitxiztatuen artetik, aundituta agiri zitzaizkion begizuloak. Urrezko mataza dirdaitsua esku-atseginkatzen zun bitartean, biozpeko labean egosten zijoakion asmo bat. Irakin-garaian ontzitik ganezten dan esne egosiaren

antzera, zijoakion zerbait biozparrendik burura. Eta barrendik zijoakion etorri indartsuak, gainbera zeramakion norabait gogoia labainka.

Nola eten zitzakean batbatean urte batzuez lenagotik Zitorekin zerabiltzkin artuemanak? Nola zuztarretik atera zartako batean, ain sakon erroturik zeuzkan biotzondokoak? Bestaldetik, berriz, etxekoai dana adieraztekotan, nola artuko ote-zizkioen bere azalpenak? Nola eman, gañera, amari bere leengo ibillien berri? Ua estuasuna! Ua barrendiko lertubearra! Zer egin zezakean zori artan?

Kezka zulagarriaren bean, lertu bear zitzaion barrunbea; naastu bear zitzaion burua. Estuasun artan, samindasun zorrotzak gainditu zion berriro bularpea. Biozmiñak lausotu ziozkan begiak. Eta biozparrendik irten zitzaion negar-ugaldeari eutsi eziñik, mai-gañean tinkatutako besoen artean ezkutatu zun aurpegi zoragarria begiondo aundituetatik leiarrezko bitxi ugariak dizdizka zerizkion bitartean. Orrelaxe egon zan zotinka luzaroan.

Alako batean, ordea, barrualdeko zerbaitek eraginda, eserita zegon arkitik batbatean jaikita,

burutik zerion adatsa arinka bildu ondoren, bere gelatik irten zan begietatik txinparta-jarioka. Gela nagusian zegon une artan osaba Martin eta araxe zuzendu zan neska biotz-samindua.

—Osaba, zergatik bialdu nai nazue Lasturre-tara? —itaundu zion mintzo-ikaraka.

—Neska, zergatik artu den arlo au orren estu? Ire osasuna bear bezela zaitzeagatik izan den. Itxasaldekoa baño bearrago zain osasuna-rentzat legorraldeko aizea.

—Nere osasunari begiratu nai ba'diozute, utzi nazazue emen nagon bezelaxe. Askoz ere oke-rago izango zait emendik joatea.

—Baña, Malentxo, zertatik sortu zain orren-besteko tema estua ta samiña? Beste zerbaite-gatik daginala negar esango niken.

—Tira, ba. Itz ori aitatu dezun ezkerro, gauzak argi ta garbi esan bear dizkizut. Ba-det nere zergatia Zarautztik irten nai ez izateko.

—Neska, ez aunat egundo ikusi gaur bezela. Zerk sutzen aun orrela? Baretu adi lenengo, ta gero itzegingo diñagu; aizatzaile zitala den, ba biozmiña.

—Ez, ez. Lertu bearrean dabilkit barrualdea. Zarautztik aldendu bear dedala esan didazuenez gero, biozparrendik datorkidan min izugarriak sutzen nau oraintxe zoratzeraño.

—Jesus, ene! Ori den ire joera lotsagarria! Buruzago jokutzen ekiñalakoan negonan. Baña etzekiñat noraño oan oraingo zoroaldi onetan. Ezin diñat susmatu zerk sutu aunan orrenbeste-raño.

—Zarautzen zerikusia daukatalako, ez det jun nai emendik iñora.

—Zer daukan zerikusirik emen?

—Mutil batekin.

—Mutil batekin? Zer esaten ari aiz, gero?

—Bai. Donostin ezagutu nun mutil batekin daukat zerikusia.

—Baña, Malentxo, bai burugabe jokatu aizana! Bai al-dakin, gañera, mutil ori nor dan eta zein senditakoa dan?

—Nik dakidana da berak maite naula ta nik ere maite dedala.

—Au den buruaustea dakarkigunana! Noiztik darabilkizue zuen arteko artuemana?

—Ba-dira bi urte mutil ori Donostin ezagutu nuela.

—Baña nola asi itzanan izketan beste geiago gabe mutil ezagun-ez batekin? Burugabea izan aiz, benetan!

—Bai, burugabe jokatu naiz, egia! Baña beranduegiko gauza da, lengo utsegiteak orain zuzendu nai izatea.

—Ez gindunan orrelakorik asko uste! Lo lasaiegia izan diñagu, agian, orain arte. Gaurko egunak, orratio, buruauste samiña zekarkigun.

—Osaba, ez da izan nere asmoa zueri samiñaldi au erakartzea. Onaizkero, ordea, nola zuzendu nezazke arinkeriaren ondorenak? Ezpai'det mutilla uzteko adorerik. Lagundu nazazu, arren, osaba, nere zorigaitzean.

—Tajuzko mutilla ba'litz, ez ukene zuzendu-eziña arlo au; ez gindukene arekikorik eragotziko. Baña elizkoia, langillea ta sendi onekoa ete-da? Bear bezelakoa ete-da?

—Ez dakit nundikakoa dan; baña neretzat oberik eziñekoa izan da, beintzat.

—Maite aunagu, Malentxo, ta ire gauzak arretaz begirartu ta zaitzea zegokigun. Berorrexega-

tik, orrelako baimena zoro eman baño len, gura-soak arduraz aztertu bear dizkiñae gorabera guztiak. Lege oneko mutilla ba'da, ez diñagu gure baimenik ukatuko. Baña nere laguntza nai baldin ba'den, nere eskura utzi bear ditun aurretioz gauzak eta nere erabakietara jarri.

—Zer egin bear det, ba?

—Oraingo eginbearrik lenengoena guretzat, ire osasuna bear bezela zaitzea den. Beraz, oa Lasturretara amabost egunerako ba'darik ere. Bitarte ontan, aztertuko dizkiñat astiro bear diranak eta, bidezkoa ta itxurazkoa izan ezkeru, itzultzen aizaneko, gure baimena ere izango den. Jartzen al-aiz nere agindura?

—Amabost egunerako besterik ezpa'da, joango naiz.

—Ba-den, ordea, oraindio geiago ere. Arik eta nik gauza oek bear bezela argiztatu ditzadan arte, ez den arekiko artuemanik bear ezertan.

—Osaba...!

—Naitaezko betebearra den. Leen burugabe ta zarpail jokatu bai'aiz, orain buruz eta erne jokatzea zegokigun, ni bitarteko naizan ezkeru beintzat.

—Tira, ba. Beteko det ori ere.

—Nun bizi da mutilla?

—Ondartzaburuko jauregitxo batean udaldi-bitartean. «Maitearena» deitzaio jauregitxoari.

Utsa adiñeko oñazea kendu zun, arranotan, Malentxok biotz-gañetik. Odei beltz izugarrien artetik, itxaropenaren irriñoak ziztatu zion beginina. Bai biotza lasaitu ere, ondorengoz! Negera zeriola irten zan osabarengandik; baña orduko malkoak etziran leengoen senideak. Pozaldia-
ren garaikoak baño. Uginartean ondatu-zorian arnasestuka dabilenak, eskua luzatu dionari dagion irribarrearen senideak ziran oraingo malko eztiak.

Gela nagusitik irtenda, zurubietan beera zijo-
ala, amarekin egin zun Malentxok oztopo bidean. Begiratu laisterrez aztertu zun arek alabaren begitarte-ta, begiondo gorriztatuak oarturik, bigunki jaulki zion:

—Zer den, Malentxo! Ez al-din amak ire gauzak jakiteko eskubiderik?

Amaren itz samurrak eta zirimola entzun zituanean, nola eutsi begietara berriro zetorkion ugaldeari? Orduantxe bai zabaldu ziozkala atearak

alderen alde negarrari! Neskaño gaxoa! Ikaraldi-ka eldu zion lepotik amari alaba biozminduak eta bi aldiz musukatu zun luzaro. Itz oneik ixuri ziozkan, bitartean, maitekiro:

—Zoaz osabarengana, ama; zerbait esan bear baitizu arek.

Zalantzan zebillen Josebe goiz guztian eta etzuan geiagoren bearrik izan bere anaiarengana gela nagusira jakinmiñez arinka joateko. Beste orduerdiko alkarrizketa izan zuen berriro anai arrebak.

Amaika bider ikusi izan ditugu mutilko biurriak urmaelean arri-konkorra jaurtitzen eta geldi ta nare zegon ixurki gardenean blaustatekoz naspillaldia ta ekaitza sortzen! Ara or, nola jaio zan biozmiña Josebe etxekoandreairen biozpean, anaiarengandik bere alabarekikoak jakin zituan. Ordea, naigaberik zulagarrienetan, gogoñaze garaian alegia, bear zuan eroapena Jaungoikoarengan aurkitzen zekiana zan emakume ura.

Zori artan, eginbearrik larriena, mutillarengandik nolabait aldi batekoz neska aldendutzea zan. Gero, aldia bitarteko zala, gainberago ta

errezago esiratu zitezkean gauzak. Bien bitartean, gañera, mutil ua nor zan eta zein sendititik zetorren jakin bear zan. Betea zegon, beraz, eginbearrik larriena. Urrengoak ere, Jaungoikoaren laguntzarekin eta aldiak bitarteko izanik, berenez joango ziran orpora, zulotik irten dan ardazburua bezelaxe.

Bien bitartean, goizaldean artillez estalita ikusi degun zerualdea geroago ta illunduagotuz dijoa eguerdiranz. Orroaldi zakarrak datortz noizbeinka urrunaldetik; aldizka, berriz, aizealdi laisterrak, mendiak eta basoak isastu ondoren, auts-lañoak arrotzen ditue bideetan. Beltzez jantzi da zearo itxasaldetik zeru-muga. Ekaitzaren zantzua usnatu duenean, lenbailen itzulbira eginda, portura datortz egiñalan ontzixkak. Buru-gañetik daramakigue itxastxoriak egaldia garrasika lurraldera.

Euri-tanta lodiak dakartzi lenengoz aizeak egoetan; geroxeago, ordea artalea zakutik gañeztu zaion errotariari bezelaxe, kazkabarerauntsia darie lañoai. Turmoiaren burrunba-ots izugarria lertu da Ernio-mendiaren galdorrean.

Ara, berriz, tximistak ortze-zear irakaldika jolasean, suzko suge biurriak bai'lira.

Zitzu zorrotza dagi, bitartean, aizeak zugaztietan eta tellatuetan. Artasoroak eta garisoroak ere bizkarra makurtu bear izan dute, arranotan, erasoaren azpian! Zuztarretik atera bearrean darabilzki zugaitzak; arakatu ta astindu ditu azpikoaz gain gari-metak. Eguerdia izan arren, illunaurrea dala dirudi; ain dago illun; ain dago goibel.

Goizeko sargoria, orratio, batbatean itzali da; ezur-miña dagi oraingo otzaldi galgarri onek. Ara! Kazkabarraren ondoren, arri-erauntsiak zurizkatu ditu txint batean belardiak eta soroak. Au da zalaparta! Au da arriaren sarraskia! Burrumba izugarria dagie berriro turmoiak bata bestearen ondoren eta alkarren atzetik jolaska dabiltz tximistazko suge gorriak. Orduerdi betez ez du iñork entzun ekaitzaren orroa besterik. Bildur-ikaraz totelduta begiraratzen dute baserritarrak leiotik soroetara. Jaungoikoaren izena! Alper-arriak oinazpian geldiro zanpatu izan bai-litu bezelaxe, lotu dira garisoroak eta artasoroak!

Baña, ez, ez. Etziran ainbestekoak izan ekaitzaren kalteak. Ainbesteko burrunba-otsa ta aizealdi zakarrak ikusirik, azpikoaz gain dana irauli, sutu ta zartatu bear zuela zirudin; baña, Jaungoikoari eskerrak, erauntsi-ostean, baserri-tarrak soroetara irten ziranean, aundiro lasaitu zitzaien gizagajoai biotzondoa. Gariak, bai, auspeztu ziran eta artoak zerbait makurtu ere bai. Baña ordutik amabost egunerako artoak zutituko ziran. Bai orixe! Bestaldetik, berriz, naiko eskasak ziran lenago ere gariak-eta, etzeturren andik galkuntza aundirik.

Ekaitz-ostean, odol-kusku ikaragarria bezelaxe azaldu zan eguzkiaren uztaia odei urratuen artetik. Baso-usaia zekarkin aizeak nunaitik. Belardietatik eta soroetatik jeikitzen zan lurrunaren usaia zan gozua!

* * *

Osoro argitu zan zerualdea arratsalde-erdirako ta arginabarraren adol-izpietan jantzirik zijoan eguna etzinaldera. Garai artantxe, iñularren atean, iritsi zan Getaritik Zarautzko portura

Txantxikoren ontzitxoa. Txandresen seme Josek eta bere lagun batek eraman zuen arañño arraun-
indarrez. Itxedoten zegokien ordurako kai-ezpa-
ñean Agerre ta aiek begiztatu bezain laster,
mandatari bat bialdu zion Balendini laisterka
Dorronsororaño, lanean asteko zai zegozkiola ari
adierazteko.

Balendin eta Lopategiko Agustin portura
bildu ziran garairako, jende-mordoska ugaria
eraman zun ikusnaiak portualdera ta, bidegaiñe-
ko ormari ukalondoak egotzita, ikusmiñez begiak
zorrozten zituen. Umekondoak, berriz, ankarte-
raño sartuko zitazkian aozabalka. Agotik agora
ibilli zan, ba, aurreko egunean apustuaren
berria-ta, alde batera edo bestera dirua jarriko
zukeen askok, zizkua arriskatu baño len, begiz
ikusi nai zuen arraunlarien lana. Ba-zeuden an
Getaritik bertatik ikusnaiz juandako norbaitzuk
ere; ango apustulariak bialdutako zelatari mal-
tzurak ziran. Beraz, kontuz eta erne ibilli bearra
zegan; ez nolana ta ajolagabe.

Illunaurreak itxasgañean itzala zabaldu zun
garaian irten ziran portutik gure gizonak. Nasa-
ren ezpañean lotuta zegoan ontzia bultzada

indartsuz ormatik aldendu ondoren, zisne bat bezain lerdan jeiki zan portu-atetik itxaserdirantz. Txairo urratzen zun muturraz ugiñen saiets urdiña, ibilli-ala.

«Eup! Ori dek sasoia!» —oiugin zien Agerrek arraunlariai lurraldetik begira zegozkien itzotza galdu zuenean; aien adorea piztu nai zun eupada arekin. Indarraldi bakoitzean, irringa lazkarra zegien arraunak lokarriaren igortzian. Agerrek artu zun ordukoz lema, eta aren aginduen neurrira zeramakien ekiñaldia Balendinek eta Joxek. Atzeraxeagotik zijoakien, berriz, Agustin txaneltxo arin batean; Bein Mollarriko arkaitzaren mugara iritsi ezkerro, txaneltxora jauzi egiteko asmoa zun, ba, Agerrek. Orrez gañera, apustu-egunerako bear bezela zaildu ta oitu baño len, marka au egiteko gai ziran edo ez jakin nai zuen lenbailen.

Astuna zan, agian, Txantxikoren ontzia ta Getarin zanik zarpailenetakoa ta baldarrenetakoa. Berorrexegatik aukeratu zun Balendinek ontzi astun eta erabilgaitz ura, bere erronka jaurti zuanean. Batezere, portuko atea gaindututa, itxasandiko saillera sartu ziranean, ermo tin-

katu bear ziran, arranoetan, arraunak, ibilbidetik ontzia okertu etzedin.

Ondo baretu gabe zegon, artean, itxasoa ta aizealdiak noizbeinka arrotzen zitun nasialdie-tan, ugiñen gandorreraiño igo ondoren, ur-zokondora oldartzen zan batbatean, oinpeko salairua zartatu zaion abere amildua bezelaxe. Etziran nai bezin azkar eldu Mollarriko arkaitze-taraño.

Mollarriko arkaitz-muga jo zuenean, tink egin zuen arraunlariak. Agustinen txanela oinkada baten neurrira urreratu zitzaienean, bertara jauzi bizkorra egin zun Agerrek eta lagunai oiugin zien:

—Oraintxe erakutsi bear diguzue marka ori egiteko lain zeraten edo ez. Gaurko itxasanditu au ez dek aukerakoena orretarako; baña, obe. Noiznai egingo dezue, itxaso barean, gaur dagi-zuena baño geiago.

Joxe jarri zan lemazai; Balendin, berriz, arraun-aulkian. Lematzat, orratio, etzeramakian Joxek arrantzaleak erabilli oi duen tramankulu sastarra. Apustu ua irabazteko, lemazaiak, ibilbi-dea zuzendu ezetzik, arraunlariari ere ermo

lagundu bear zion eta, orretarako, lema-tresna-rik egokiena arraun aundi bat zan. Ez da, orratio, gabetik goizera ikasten dan lana lema-arrauna bear bezela, laguntzalle ta eskurakoi, erabiltzea. Jardun orretan ikasia izan bear du, eginbearra egoki ta txairo betetzeko.

—Gertu al-zerate? —otsegin zien Agerrek.

—Bai!

—Tira, ba. Ekin, mutillak! Eup!

Aurreko zear-aulkian oiñak tinkaturik, atzeal-dera burua ta gerria kakotuz, egin zun Balendinek lenengo indarraldia. Ontziari, bear bezelako ibillia egotzi zionean, neurkiro zerabiltzkin arraunak, errotako maratillak dagin krakatekoaren antzera. Ondartza-aldera okertzen zuen uginaldiak ontzia. Oker-ibilli artan, al zanik gutxien bidea luzatzearen, itxasoaren azpiko indarrari sendo eutsi bear zitzaion, demorrio pola!

Aizak, Joxe! Biedari ezetzik, Balendini laguntzeari ere begiratu bear diok —deadar egin zion Agerrek Txandresen semeari.

Etzeukan mutil onek iñork aizatu bearrik; gogoz eta sukar lotu zitzaion ekiñaldiari. Alaere, orratio, Agerreren deadarra entzuki, eskuetan

zerabilkin arrauna urpean erdiraño sartuta, arraunlari ikasiak dakien azpiko inguru-erabilli sendoz, bikainki laguntzen zion Balendin indartsuari, gerria ta soña zumea bezela bigunduz.

Iru ordu laurden egin zituen Mollarritik Getariko portura. Lenengo ekiñaldian izateko ta, gañera, itxasaundituan egiteko, etzan, noski, marka eskasa egin zuena. Urrengo egunetako jardunak egokitu ta zailduko zitun lanera. Atsan-ka ta arnas-estuka iritsi zan Joxe Getarira, egin zun indarraldiakin. Ain zintzo jokatu zan mutilla.

Balendinek, ordea, indarrak neurkiroago ta buruzago erabiltzen zekin. Ba-zekin arek bere kolko-barnean, egin zuan marka baño ere geiago egin zezakeala. Nork igarri, ordea, ari zenbateraño zezakeanik? Gainbera labainka dabillenaren jasez zegian beti bere lana. Begitarte alaia atera zun Agerrek; ondo ezagutzen zun, ba, Balendinen izaera.

Lenengo ekiñaldi au bukatu zutenean, Txan- txikoren ontzia Getarin utzita, txanelean itzuli ziran Zarautzko iru gizonak. Urrengo egunerako lan-tresna batzuk erosi bearra zeukala-ta Agust- tin uriaren biotzera aldendu zitzairen bitartean,

ondartzaburuan jeikitzen diran jauregien artetik Inurritza aldera zijoazen Agerre eta Balendin.

Baña jauregitxo baten ondora eldu ziran garaian, tink egin zun arek eta otsik atera gabe ixilka ibiltzeko kiñua egin zion bere lagunari. Zearo estalita zeukan ordurako gau-itzalkari illunak zerualdea, baña jauregitxoaren ezkerreko leiotik irtetzen zan argi-txirristara, «Maitearena» irakurri zun Balendinek sarrerako ateburuan. Zuaitz bi zeuzkan etxeak ezker aldeko baratza-txoan, eta, ain zuzen ere, argia agiri zan leioaren parean pikondo batek zabaltzen zitun adarrak.

—Pikondo orretara igoko al-itzake? —galdegin zion Agerrek aopeko mintzo ixillez Balendini. —Ire nagusiaren gurari bat betetzeko, etxe orretakoen gorabera bat jakin nai nitek.

Aurki susmatu zun mutillak Malentxorentzazko zerbait ete-zerabilkin Agerrek eskuartean-da, erantzun zion:

—Ez da gauza zailla zuaitz orretara igotzea.

—Tira, ba. Igo adi ta usmatu ezak barrualdea, ia ezer ikusten dekan. Kontuz ibilli, orratio, iñork barrundatu ez agian.

Katua bezain arin igo zan Balendin zuaizburura ta barrualdetiko leio-zapi saretik lipar batez begiratu ondoren, igo zan bezin zailu jetsi zan.

—Ezer ikusi al-dek? —itaundu zion arek berriro.

—Bai, baña naiago nuke zerorrek zere begiz ikusiko ba'zendu nik ikusi dedana.

—Norbait ba-al-dago barruan?

—Emakume bat eta gizonezko bat daude. Ezkonberriak dirala esango nuke —jaulki zun Balendinek maxioka.

Orixe ikusi nai nikan. Bultzatu nazak azkar zuaitz-gañera.

Esan eta egin, lentxeago Balendinek egin zuana berbera egin zuan Agerrek ere, eta jauzi ariñez zuaizburutik jetsita, lenbailenka aldendu ziran biak ixilka toki artatik. Zangarteka zijoazela, Agerrek galdetu zion:

—Bai al-dakik zein dan leiotik ikusi degun gizona?

—Ez nik.

—Orixe dek Inurritzatik Zarautzera dijoan bidezabalean jokoetxea jarri nai izan duna, Leopoldo Vargas dik izena eta erne ibilli bearreko

piztizar tajuzkoa izan bear dik. Emakume ori, berriz, aspaldi entzun nikan gizon orren emazte-orde emegaldua zala-ta, gure begiok ikusi duena ezin ukatu. Malentxoren ondoren zebillek aspaldi ontan emakume purtzil orren semea-ta, orixe dek arlo ontan gauzarik okerrena. Ez dik izan bear zirtzillu eskasa mutil orrek ere. Vargasen antzeko piztizarra!

Demorrio likitsa! Etxe orretakoa al-da Malentxoren ondoren dabillen mutilla?

—Jakiñaren gañean al-itzan i ere? Txalu orre-xeri Malentxorekiko bideak, geien da geiago, eragoztea nai giñukek lenbailen.

—Ez ete-zabiltzate beranduegi?

—Beranduegi? Zergatik?

—Aizu, Agerre. Malentxori kalterik eta naigaberik ez erakartzearren, ez nuan iñori ezertxo esateko asmorik, baña gauzak orrenbesteraño nastu diran ezkerro, ta mirabe leiala naizan alde-tik, dakizkidanak azaltzea dagokit. Baña, Agerre, ezkutu oek ez due erten bear iñolaz ere zure kol-kotik.

Aurreko egunean mendialdetik etxera zeto-rrela sagastiko seskadian gertatu zitzaiona edes-

tu zion Balendinek bere lagunari. Eta orrelaxe alkarrizketan zijoazela, zerabilkien zangarteka zailuan, ordulaurden batean begiztatu zuen, illargiaren argi zerbelera, Dorronsoroko torrea. Orratio, an ere ustegabeko naigabe zorrotza artu bearrean ziran gure gizon biak.

Atadialdeko atean azaldu ziran garaian, Libek esan zien:

—Gure txakurrak zerbait ba-du. Orduerdi batez ementxe egon da oñaze-kaliskaz eta lentreago ezkutatu da etxeatzetik arrastaka ta minoiuka. Oñaze aundiak zitun, nunbait, errukarriak. Juango al-zakio billa, Balendin?

Susmo txar batek ziztatu zion une artantxe Balendini begitartea ta laisterka irten zan zakurraren billa. Etzuan, ordea, urrutira joan bearrik izan. Etxeburuko langa-ondoan zegoan ordurako ilda.

Ua izan zan Balendinen biozmiña! Asko maitezun txakurra-ta, aren ustegabeko eriotz arrigarrak biziki zarrastatu zion kolkoartea. Besoartean artuta eraman zun atadiraño. Etxeko danak agertu zuen aieneka txakurraren eriotzazko biozmiña. Libe lirañak kutunki mosukatu ere

egin zun bein baño geiagotan. Lelo bat zerabilkien danak agoartean.

—Norbaitek erail du zakur au. Batbateko eriotz au lupuaren ondorengoa da. Nor izan ete-da orrelaingo gaizkillea? Ez genduan uste iñun areriorik genduanik.

Ara zer zion Malentxok berak ere:

—Bai, bai. Biozgabea ta gaizkillea izan da, benetan, zakur au orrela erail duna.

Etzekian asko neskaño xaloak zein zan alako gaizkillea. Etzezakean iñolaz ere susmatu alakorik. Bestela, aopean lotuko zukean bere itza. Ordea, Agerrek eta Balendinek, bai, ba-zekien nor zan eriotz ikaragarri aren egillea ta biak ao batez zioen:

—Txalu likitsa! Gaizkille zirtzilla!

Andik orduerdira, Martin apaiz jaunarekin ixilizketa egin ondoren, Inurritzatik Zarautzera edatzen dan bidezabaletik zijoan Agerre bere etxera gaugiro eder artan, izarren argipean.

VII

GAUPIZTIEN ARTZULOAN

Ames bat bezain eder eta dirdaitsu azaldu zan eguna. Magalondotik baratzaldean loreak ixuriz dabillen erregingai lilluragarria iduri, zeterren arpi-pitxiak noranai zabalduz. Etzekarren aurpegian, ez lausorik, ez ganduaren kutsurik. Urre lanbro ugaria zerion eguerdira zabaldu-ala. Eta berdiñik ez dun argiontzia dirdaira, ziztaldi atsegiña bialtzen zien noizbeinka begiai belardietatik eta sastondoetatik gau-intzezko pitxiak.

Ara nola dijoazen ontzitxoak arrantzura aizeari oialak alderen alde zabaldua. Atzo baño ekarkorragea izango al-due arrantzale gizagajok gaurko jarduna! Aukerako itxasgiroa da, agian, gaurkoa. Arrantzaleentzan izan liteken zantzurik oberenetakoa izan oi da izurdeen buruzgainkazko jauzia ta olakoetan itxastxoriak erabilli oi duen bealdeko egaldia. Orrez gañera, or-emenka agiri diran urdin-une bereiziak, antxoa-taldeen ur-azaleko ibillia erakusten

digue. Onelakoetan, izaten due, noski, itxas-egaztiak gosea nun ase.

Sagastietatik garisoroetara, eta artasoroatik belardietara, jolasaldi biurriak darabiltzki, moxal irrintzilariaren antzera, itxasaldetik datorren aize bigunak. Jolasaldi orietan, artoak esku-atsegin-katzen dituanean, maite-ikaraldika bai'lebiltz, kulunkatzen due gerritxo lerdena ta burualdeko lorea.

Goiz-nagia astindu ondoren, sabel-irakitan suspertu da izadi osoa. Zamorro-talde ikusgaitzen otsa datorkigu nunaitik belarrietara. Aurretik alkarri itzemanda daudenen antzera, maite-beroaldiak eztenkatzen ditu bizidun guztiak, naiz zentzudun, naiz zentzunik gabeko belarkiak izan. Auxe da izadiaren ezta-egun zoragarria! Jaungoikoak ludia egin zuan lenengo egunean bezain bero dirau oraindio izadiaren erraietan maite-iradu indartsuak.

Arrigarriak dira, orratio, izadiaren gauzak! Bizidun batzuk itzaltzen dijoazen bitartean, beste batzuk bizitzara datortz une artantxe. Bizidun bakoitzaren erioak berak ere, amaika bizitza sortzen ditu! Eriotzaren ondoan bertan, bizitza

berria sortzen da. Ara or izadiaren zoria! Noiz arte iraungo ete-du maite-sortze arrigarri onek? Jaungoikoak daki! Arek izadiari bizitz-arnasa ukatzen dion egunean, dana ilgo da, dana ezerez utsean ondatuko da. Bitartean, or ibilliko dira mako ikuseziñetik zilintzan, mugarik ez duen sailletan pirritaka, ludi, izar eta eguzki, zerk aizatzen ditun jakin ezik. Bizidunak, berriz, laisterka datorkien eriotza atzeratu naiean, aitasemeen-gana luzatu nai due bizitza. Egun bateko lore zimel-errezak izan, ordea, bizidun guztiak!

Goiza erdiratu zan garaian, zalpurdi arin bat irten zan Dorronsoroko ataditik eta zaldizaiaren asku-zigorraren otsera, laugainka irabazi zuen zaldi biak bidezabala ta, asi baizen bizkor eutsi zioten luzaroan lenengo ibilliari.

Zarautztik Zestonara bitartean, ez du bideak aldapa-une aundirik eta asitako neurrian pirritatu ziran gurpillak araño, bideko arkoskoetan labainduz. Baña nekezagoa ta zaillagoa zan andik aurrerako ibillia. Aizarnako bideari eraso ziotenean, aurki geldia gotu zuen aztaka bizkorra, eta, maldar-erdiraño eldu ziranean, patsetan blai-eginda zijoazen atsanka ta lurrun-jario.

Lau ziran zalpurdian zijoazenak: Libe eta Malentxo aizpak, osaba Martin eta Agerre. Malentxoren gogoaz besteko irteera ua zerbait gozatzearren, atergabeko itzjarioa zerabilkin Agerrek eta eskurakoi laguntzen zion Libek zeregin artan.

Iztun atsegiña izanda, somatu al-izan zituan izkirimiri ta gazigezak jaulki zituan, bururatu zitzaizkon ipuiñik parregarrienak ere bai. Sekulako ateraldi gaztunak ere egin zituan; baña jaio-unean bertan izoztuta gelditzen zan Malentxoren ezpañetan irriparrea.

Orrez gañera, malkoak ezkotzen ziozkan begiondoak bein baño geiagotan. Alperrikakoak izan ziran egin zituen alegiñak; eta, Zestonatik Aizarnara aldapa-gora zijoazen garaian, agortu zorian zebillen Agerreren jarduna, itzalibearrean zan laister aren ipuiñen gazimiña.

Izan ere, etzion ezer asko laguntzen osaba Martinek; etzeukan, nunbait, arek berriketarako gogo aundirik. Biotza zearo naigabetu zion uste-gabeko estualdiak. Buruauste astuna bideratu zitzaion, arrano pola, gabetik goizera, gutxienean uste zuenean. Eta, artean, osabidea eskuratzeko

garaian izan ezkerro, ainbestean. Gertatuak gertatu, ondabidetik irtetzea nolabait jaritsi ezkerro, gauzak esiratu zitezkean artean.

Baña bein neska maitebidean gainbera irristaka asita, nork lekike noraño lijoaken? Txinpartaren jeikikoa zan Malentxo txikitandik eta, arekikoak bear bezela esiratzeko, kontuz eta erne ibilli bearra zegon. Ba-zitekean, bestela, arek esiaren gañetik jeiki nai izatea. Gauzak astiro aztertu ta erabilli bear ziran, dana ez ondartzeko.

Esku leuna ala zorrotza bear zan estualdi artan? Nola ekin bear zitzaion arloari? Onean ala gogorrean? Buruauste samiña, benetan! Eta, orrez gañera, nor ete-zan korapilloaren errudun? Malentxo bakarrik? Bera ere, guraso-ordeko bezela, ez al-zan zabarkeri osoan jokatu? Neska-ren ibilliak garaiz orpotik zaitu izan ba'litue, sortuko al-zitakian alaingo korapillo biurririk?

Osaba Martinen gogaien joan-etorria oneraño iristen zan garaian, atsekabeak illuntzen zion biziro begitartea; eta Agerreri bere jardunean lagundu nai izan arren, leengo naigabealdiak ziztatzten zioten berriro kolko-barrena, ta zalpurdiaren txokora urbiltzen zan, biozparrengo oñazea

ezkutatu zairik. Bereala itzaltzen zitzaion ari ere ezpañetako irriparrea.

Aizarnako eleiztorrea noizpait begiztatu zue-
nean, danak poztu ziran eta zalpurditik jeisteko
gertutzen asi ere. Eleiz-aurreko enparantzaren
itzulbiran inguratzen dira kaleko etxe guztiak.
Pelotan jokatzen zebiltzan mutikoak enparan-
tzan zalpurdia iritsi zan garaian eta, erbestea-
rrak ikusi zituenean, jokoa utzita, aozabalka
urbildu zitzaizten umekondoak ankartera. Aurki
azaldu ziran etxe-ateetan beste ikuszale geiago
ere. Olo batzuk zebiltzan aztarrika enparantza-
ren erdian; aruntzatxeago, berriz, zakur bi jola-
sean jauzika. Piano baten tintin-soñua zetorren
apaizburuaren etxetik.

Enparantzako ostatu-etxe batean utzi zituen
zeramazkien jantzi-zorro ta emakume-tresnak,
Lasturretako mutikoren batek gero astoan era-
man zitzan, eta, lau lagunentzako bazkari on bat
gaitzeko agindua eman ondoren, Lasturretako
bideari lotu zitzaizkion bereala. Orduerdi bateko
bidea zegon, geienez, kaletik baserri artara.

Erritxoaren eskuialdeko soroak ebakitzen
ditun bidetik igo ziran bidariak muñotxo batera

ta andik Beamara dijoan bidea artu zuen. Ermo ari ziran lanean baserritarrak inguruko soroetan. Gari-metak eguzkitara zabaltzen, batzuk; besteak, artalorak abereentzako besamenka biltzen; aruntzago, berriz, segaz allurbea ebakitzen. Lanari zintzo lotuta ari ziran danak egun zoragarri artan.

Aurreko eguneko ekaitzaldiaren pean bizkaroker gelditu ziran artoak ere eguzkiari burua zutitu nai zioen. Gerriondotik kiribilduz zijoazkien artaloreai baba-aienak maiteberoaldi gartsuan, aren maite-mosuaren billa. Loretan agiri ziran aien orrien xangoetako kimondoak ere ta ollandaren gandor jaioberriak zirudien lore-pinpinak, lurrera burua makur. Jatortasun berezia egozten dioe, benetan, artasoroak gure basoaldeari.

Orduerdiaren buruan, bidearen oker-une bat ganditu zuen garaian, etxe billeratxo begietartu zitzairen zelaitxo batean. Baselizatxoaren inguruan lau etxek zuten kabia intxaurrondoan gerizpean. Iru lizarrondo zitun, berriz, elizatxoak bekoz-beko, bere egonaren zaitzalle bezela.

Sarrerako burni-agazko esi sendoaren gibelaldetik luzatzen dan bolatokian, iganderoko

goiz-meza entzun ondoren, bolan aritzen ziran inguru arietako baserritarrak. Goialdeko larrea zuen artaldeak ere, antxe billatzen zuen aterpea ustegabeko erauntsi-garaian. Nun aurkitu ua baño toki babesagorik? Eguterara begiz-begi sakon-unean egoteaz gañera, ezkerreko mendi-bizkarrak ezkutatzen zun itxasaldeko aizealdietatik.

Zelaitxo babes au begiztatu zuen garaian, bidariak zeramakien bideondoko sasietan zabaldua, zapi zuri lexibatuak agiri ziran eguzkitara legortzen. Oiuka ta karrasika zebiltzan an inguruan mutilkoskoak txapelera masustak biltzen. Zelaiko itzalpean, astaemeak garagarra irabazten zun bitartean, jauzika zoroak zerabiltzkin astakumeak aruntzaxeagoko belardian. Eskualdeko garamendietara joan ziran artaldeak eta, noiz-beinkako marrakaldi luzez larrealdia eten eta zintzarriari eragin-ala, bidariai begiratzeko itzultzen zuen ardiak burua.

Ezkerraldetik lenengo mallan ikusten zan etxeak Lasturreta zun izena. Etxebillera artako ardandegia zan; baño ardao-saltzeak bakarrik

etzuala ezer asko ematen-da, soroko lanari ere ekin bear zitzaion zintzo, arranok ezpa'du.

Ain zuzen ere, egun artan gari-jotzen ari ziran atxebarruan, eta, bidariak etxera urreratu-ala, geroago ta argiago entzuten zuen gari-eskuteak arritxabaletan zartaka ateratzen zuen dangatsa.

Erbestear batzuk bide-zear zetozela barrundatu zuenean, lanaldia utzita, marandioko leiotik begira jarri ziran danak ikusmiñez. Aurki ezagutu zitun Mari Joxepa etxekoandreak etxera zijoazkionak, gaztetan Dorronsoron neskame izana baizan, eta gal-autsarentzako buruan bilduta zeukan buruzapiz bekokitik zerion izerdia atxikatuz irten zitzaien bidariai ongi-etorrika ta agurka.

—Nolatan etorri zakizkide gaur, aurretik ezer gaztigatu gabe? Jesus, ene! Zer bazkari jarri nezakizue orain, ezpai'taukat urdazpikoa ta arrautzak besterik...?

—Ez kezkatu, Joxepa —erantzun zion apai-zak—. Ez daukazu gaur guretzako bazkaria baneatu bearrik.

—Ene! Baña nere etxera bein etorriko-ta, ordun bazkaldu gabe jun? Ez, ez. Ez dizuet utzi-ko eguerdiburuan iñora joaten.

—Kaleko ostatu batean, guretzako bazkaria gaituta eukitzeko agindua utzita, etorri gera ta eguerdirako ara joateko asmoan gabiltz.

—Jesus! Baña, zergatik orren azkar?

—Beste zeregin batek ekarri gaitu, Josepa. Gure neskatxa oek biak amabost egunez zure etxean eukiko ziñuzken jakin nai nuke. Emengo mendi-aize osasuntsu au ondo letorkiela-ta, egun batzuez ementxe utzi nai ginduzke, zuk al-badezu, beintzat.

—Bai orixe! Pozik eukiko ditut! Oek neska bikañak egin zeratena! Orain urrena ikusi zin-duedanean, umekondo batzuk ziñaten artean; baña emakume egin zerate.

—Nun dituzu zure semetxoak? —galdegin zion Libek.

Ara! Ementxe datortz. Jesus, ene! Ori mutur zikiña dakarre. Nundik nora ibilli ete-dira alproja gaizto oek? —eta deadarka asi zitzaien.

Baña mutikotxoak amaren deadarra i baño jaramon geiago zegien an zeuden jaun eta ande-

retxo ariei. Zear-begiraka ta aozabalik gelditu ziran biak muki-jario ta ezpainondoak masustaugelduz beztuta, abarketa gorrien mutur-zuloetatik beatzak agirian zituela.

—Atozte nigana, maiteok —esan zien Libek kutunki. —Ara nolako gozo-pilloa emango diodan lenengo datorkidanari!

Bietan zarrenak bost urte-inguru zeuzkan eta Liberen eskeintea entzun arren, etzan igitu zegoan tokitik; txikiena, ordea, gozoen usaira, geldiro urreratu zan eta andereñoak eskuan zeukan papel-zorrotxo atzeman ondoren, igesegitera zijoan. Arek, baña, maiteki eldu zion; eta, lepora jasota, mutiltxoaren mukien eta zikiñaren nazkarik gabe, mosu mardul bi egotzi ziozkan matail gorrietan.

—Ene, baña, Libe! Zikinduko zaitu zearo ume orrek! —oiugin zion Josepak.

Ordurako, gari-jotzea utzita, izerdiak aurpegiaren itsatsi zion gal-autsa sukaldeko arraskan, ur-xaplatekoka garbitu ondoren, atadira azaldu zan Iñaxio etxejoauna ere ta danai bostekoa estutu zien banaka azpainartetik irribarrea zerio-la.

Goiz asi zerate gari-jotzen —esan zion Martin apaiz jaunak.

Zearo txigortuta zeuden-da, lenbailen lan au eskuartetik kentzea erabaki degu.

Bien bitartean, marandioan lanean ari ziran mutillengana joan zan Agerre ta ariekin izketan asi:

—Mutillak, zintzo ari zerate lanean... —esan zien.

—Jardun bearko, arranotan!

—Latz-samarra da, noski, gari-jotzeko lana.

—Naiko latza; baña lana bera baño ere oke-rago da bizkarretik beera sartzen zaigun autsaren eta galbizarraren errea. Nork burutu oriek ematen duen egonezin zulagarriakin.

Geldiune laburra egin ondoren, berriro ekin zioten mutillak lanari. Zepari, Leunda ta Berraondo ziran iru gazteak. Baso-lanean bezain nagusi, soroko jardunean ere; aizkoran bezain trebe, laiaketan eta goldea erabiltzen. Iraun aundikoak eta zaillak, naiz udako galdape kiskalgarran, naiz neguko aintziar-garaian. Etzuen ariek egundo izan nekearen bildurrik. Lanaldia amaitutakoan, iñork soñua jo ezkeru, kriskitiñak eta

ankak arin erabiltzen oituak. Etzekien ariek, arrano pola, aula zer zanik; etzuen nekearen berririk. Langille bikañak ziran irurak.

Arri-txabalean azaoak zartaka zaplainean aletzen zituen bitartean, pozkiro zegokien Age-re begira gizaseme indartsu ariei. Neska batek urreratzen ziezten bizkarraldetik azaoak eta, aletu-ala, soñaren itzulaldiz artzen zituen bakoiz-ka pillotik berriak eta iru edo lau zartako indar-tsutan, eguzkitara luzaroan egon dan artillea baño ariñago uzten zituen lastoak. Aitonak bereizten zitun gero eskuareaz alkarrengandik agotza ta gari-alea. Eskute aletuak, berriz, sapai-ra jaurtitzen zituen arrika.

Ikusgarria zan mutil bikain arien jarduna. Bizkarraldean zeuken pilloa agortu-ala, urritzeko biur batekin besamenka eramaten zitun neskak azao berriak. Pozik egongo zitakean antxe Age-re mutil gazte jator ariekin alkarriketan; baño onaizkero gainbera Aizarnarako bideari lotu bear zitzaizkon. Naiko berandu zan, ba, bazkaltzeko.

Martin apaiza bere illoben egonatzaz Mari Josepakin astiro izketatu zanean, agur egin danai, eta kalerako bidea artu zuen berriro. Irten

baño len, orratio, otoitzaldi labur bat egin zuen baselizatxoaren atean.

Egongiro atsegiña zegoan itzalpe babes artan. Ez eguzkiaren kiskaldubearrik; ez beroaren errerik. Arrizko aulkian belaunikatuta, otoitz laburra zegian bitartean, etzezakean Malentxok susmatu, toki artantxe bertan artuko zuala egun batzuez geroago, bere bizitzazko erabakirik zeatzena.

Aizarnako kalean zeuden berriro ordubaterako. Bazkalondoan errialdea geldiro ikusi zuen eta; arratsaldea erdiratu-garaian, Lasturretako astazaia iritsi zanean, neskatxen tresnak saskietan egoki jarri ondoren, joan, agur samurra egin zioten alkarri. Malkoz dirdirka jarri zitzaizkon Malentxori begiak. Bularpean biotza lertu izan ba'litzaio ere, etzion samiñaldi garratzagoak kolko-barrena gaindituko. Ezin zezakean itzegin Malentxok mintzo-dardaraz; ainbestekoa zan sortu zitzaion zotiñaldia.

—Osaba, errukitu zakit! esan zion arrenga erdiragarrian.

—Buruz jokatu adi, Malentxo. Al-dedan guztia egingo diñat ire alde. Ba-dakin maite aunagula.

Beraz, iri geien dagokinana egingo diñagu. Ire onaren billa gabiltzan.

—Emen luzaroan uzten ba'nazue, gaxotu ta ilgo naizala deritzait.

Ukigarria ta erdiragarria zan, agian, joan-agur uaxe! Zarrastaldi bikaña eragin zion Age-rleri ere neska maitemindu ta biozminduaren eskariak. Gañera, maite degun norbait etsipenean buru-makur eta apal, ezarri diogun zigorrera jartzen zaigunean, biotz legorra bear litzake, benetan, aren gogo-oñazea norberarena bezaintzat ez artzeko.

Etzuan Libek malkorik ixuri; etzuan negarrik egin. ez uste, orratio, biozpean zarrastaldirik nabaitu etzuanik. Leendik oitua zegon, ordea, biotzaren biurraldietara ta samiñaldietara. Zerk erasan zezakion orain aren biotzondoari? Au zala-ta, norbaitzuk uste zuen biotzik gabeko emakumea zala Libe; baña, bai zera! Oker zebiltzan iritzi orretan zeudenak. Beste iñork baño biotzondo aberatsagoa erakutsiko zuan arek bear zan garaian.

Orain neskato biak Lasturretara dijozen bitartean eta bidezabaleko arkoskoetan zalpurdia labainkatzen dan bitartean, irabazi dezaiegun azkenengo oei aurea ta gijoazkien Zarautzko uriño zoragarrira.

Ordurarte ia egunero ikusten zuen alkar Malentxok eta Zitok. Batzuetan, zerbait erosi bear zualako aitzakian; besteetan, bere lagunakin arratsaldea eman nai zualakoan, arratsaldero joaten zan Malen Zarautzko kalera ta nolabait ere beti aurkitzen zun Zitok arekin ezkutu-izketa egiteko bidea.

Beraz, aurreko astelenaz geroztik neskarekiko berririk izan etzualako, zearo artegatuta zebillen mutilla. Zer gertatu ete-zitzaion? Zergatik ez ete-zan azaldu aurreko egun bi arietan? Gaxo ete-zeguan? Ain osasuntsu ta sendo agertu zan lengo astelenean-da, nola gaxotu zitakean orren azkar? Ez, ez. Beste nunbait billatu bear zan zergatia.

Eta, buruan oldozkun oek azpikoaz gain irauliz zerabiltzkiala, askabide bat bakarra aurkitzen zion korapilloari. Dorronsoroko morroiari egoz-

ten zion gertatzen zanaren errua. Ijito tzar bat bai'litz, berari astelenean txakurra xaxatu ondoren, gero salatari dollor baten gisan jokatu zan nunbait, morroi petral ua! Txatxu aundia zan alako gizona! Gañera, morroi zarpil uts arek, bai al-zeukan arien arteko gauzetan zertan sarturik? Baserritar kaiku sastarrak zanpatu bear al-zuan bera zan bezelako gizon ikasia ta asko ikusia?

Orrelaxe berekautan izketan ari zala, kolko-pean zamorro beltz ikaragarri batek burua jaso zion. Aurrenengoz, ustegabe jaiotako narda besterik etzan. Orduezkero, ordea, geroago ta beltzago, geroago ta izugarriago biurtu zan kolko-pean sortutako zamorro nardagarria. Eta, mutilaren odolgaiztoak eta bere izaera beztuntsuak, gainbera zeramakien ikusieziñera ta gorrotora. Nork-eta morroi txatxu arek sartu bear al-zun arien bitartean? Kontuz ezpa-zebillen, txakur amorratua bezela jipoituko zukean.

Arratsalde artan bertan Malentxorekin nolabait itzegin bear zula-ta, Inurritzako bidea artu zuan Zitok iñular aurrean. Dorronsoroko saillen mugara eldu zanean, bideari jarraitu bearrean, bideondoko arresiaren gañetik jauzi eginda,

sagastira sartu zan. Luzaroan inguru-begira ibiliaz gero, zokondoko seskadiraño aurreratu zan zalantza bizian ta geldiro ta begi erne zelatatu zun etxe-ingurua. Etxeatzeko iturri-askan garbiketari ari zan une artan neskamea.

—Demorriozko neska purtzilla! Nolabait ortik uxatu alba'neza —zion berekautan.

Etzuan izan, ordea, luzaroan zai egon bearrik. Laster bukatu zun Mikelek bere lana ta, garbiketata-ontzia meakezurrean tinkaturik zeramakiala, etxebarrenera sartu zan. Txakurraren bildurrik ez izan-da, sagastiaren mugan zegon zotaskazulotik, basakatua bezela, labainkatuz, arrastaka, etxe-ondora urbildu zan. Iñork ikusi etzezan, zokondo-une batean etzanda lotu zan zelatan. Ordulaurden batez orrela egon arren, etzuan ezeren zantzurik atera. Iturriaren ur-jarioak zegian txirrista-otsa besterik etzijoakion belarrietara.

Lurreko etzanalditik zutitu gabe, ziztualdi ariñez otsegiten zion noizbeinka Malentxori. Zantzu ura entzun izan ba'lu arek, nola edo ala erantzungo ziokean; ondo ezagutzen zun neskatxak ziztu-egikera ua. Alere, baña, etzan aren eran-

tzunik iristen. Zer gertatu ete-zitzaion? Ala, inguru-begira ernaian ezkutuka zegoala, gau-zapi beltza zabaldu zun illunak zerupean eta ludia illunbean bildu zan zearo.

Garai artantxe, Balendinek, etxeko eginbearrak burutu ondoren, bigarren arraun-aldira joateko usteen, etxetik erten eta sagastiko bide-txiurra artu zun; andik zan, ba, laburrena Lopa-tegirako bidea. Baña, zugazpetik bideari ekitera zijoan unean, norbaitek ixilka zegion ziztu biguna entzun irudi zitzaion. Norbaitek dei zegiola uste izan zun; baña, urratsak tinkatuta, oarki egon arren, etzan iñor agiri inguru artan.

Ontan, ordea, ziztualdi berriak ebaki zun aizea an urrean. «Nundik demorrio zetorkidak zantzu ori? —esan zun berekiko—. Ortixek zokondogune ortatixek datorrela zirudik. Axeka zebilkidak norbait. Noan bertara».

Pendiz-gañetik jauzi eginda, zokondogunera urreratu zan garaian, lurretik batbatean zutitu zan mutil batekin egin zun ustegabeko oztopo bekoz beko. Illunpe artan etzun ezagutu mutilla; beraz, etzekian nor zanik. Baña mutilla laisterka

astera zijoakiola oartu zun bezain laster, besotik elduta, bertan tinkarazi zun naitaez:

—Zer dagizu emen? —galdegin zion legor.

—Zer ardura dizu zuri? —erantzun zion arek lotsagabe—. Zaitu eitzazu zere gauzak besterenetan sartu gabe.

Aurpegiz-aurpegi jarri ziran unean ezagutu zun mutilla. Nork adierazi, une arek Balendinen biozpeari eragin zion zarrazta zorrotza? Azpikoaz gain irauli zion asarreak barrunbea ta antxe bertan pizti likits bati bezelaxe lepoa biurritu ta bizkarra austea gogoak eman zion.

—Norbere etxean egin lezake gizonak nai duana; ez besterenean —jardetsi zion Balendinek asarre.

—Eta zure etxean al-da, ba, au? Zure saillak al-dira oek?

—Ez, ez dira nereak; baña etxe-inguruan zelatan dabillen napurra astindu ta uxatzeko, ez det iñoren baimenaren bearrik. Aldegin zazu, ba, arin emendik.

—Orrelaxe egiten diote zaunga zakur tzarrak etxera urreratzen dan edozeini. Izan ere, zer zera, ba, zu zakur bat baño geiago etxe ontan?

—Txakur askok ez dute lotsa aundirik bear, zirtzilipurdi batzuen aurrean bekoz-beko agertzeko.

Ezkerreko besotik gogor lotuta zeukan mutilla, bitarte ontan, Balendinek, eskutik askatu ere gabe. Bultzada indartsuz lurrera jaurti zun zotz igarra bezela. Gero, berriz, eldu zion berriro besotik eta bultzaka sagasti-zear zeramakin.

Baña mugako esira iritsi ziran garaian, mutil ziztripuak ustegabeko indarraldiz besoa askatu ondoren, gerritik aizto bat aterata, ukaldi bizkorrera erantsi nai izan zion sabelondoan Balendini. Saietsean zirikatu duen katamotza baño ariñago alderatu zan, ordea, au; eta, aitzua zerabilkin eskuko muturretik atzemanaz, bizkarraldera biurtu zion besoa. Mutillari eskutik kendu zionean, sagarrondo baten gerrian sartu ta ausi zun galtzairu zorrotza. Ara zer zesaion, bien bitartean:

—Ez adi geien da geiago onera azaldu; bestela, egunen batean egundoko gorriak ikusi bearrean aiz, txalu ori.

Eta, lurrean oñaze-oiuka gelditu zan mutilla bultzada indartsuz ormagainetik andiko aldera

bota zun ollo-luma bezelaxe; eta geiagoko jaramonik egin gabe, Lopategiko bideari lotu zitzaion.

* * *

Bein piztiaren zantzua sendu zuan ezker, aren ibilliak zearo argitu ta eguerdiratzea zegokion Agerreri. Malentxoren onaren billa zebiltzan danak; danak maite zuen neska biozmindua. Baña ari basapiztiaren atzaparretan erortzen utzi baño len, erriko zurrumurruak or-emenka ixurtzen zituenak, egiak ziran ala ez, bere begiz ikusi nai zuan. Edozein bidetara joko zukean Agerre leialak ainbeste maite zun sendi artako nekatxa ederra zorigaitzean amiltzen ez ikustearren. Bearrekoa ba'zan, illargipeko gau-ibilli ezkutuan, naiz napur maltzuraren joera izan, piztiaren aitzulora bertara joango zitakian, ondamentitik neskañoa aldentzearren.

Aizarnatik itzulita, bere etxean apaltzen ari zan bitartean, zurrumurruak aintziñatik errialdean zabaldu zituanak zerabiltzkin buruan itzulinguruka. Zurrumurru ariek geldiro ausnartu-

ala, asmo sendo bat sortu zitzaion. Leendik ziurki zekizkianaz gañera, areagokoak argiratu bearra zegon.

Jendeak ziotenez, Leopoldo Vargas ori Biarritzko ta Donostiko jokoetxeko otseiña izan omen zan; «croupier» ikasia. Ez omen zuan parerik ez Biarritzen, ez Donostin joko-txirringa erabiltzen. Jokoetxe orietan sartu-irten aundia zuen guztiak ezagutzen zuen garai artan gizon au.

«Eskuzuria» («Blancamano») deitzen zioten jokoetxeetan; ain zan egokia, ikasia ta besterik ez bezelakoa, joko-txirringa bere gogora erabiltzen. Etzan nolanaiko jokalaria izan bear, arekin aurrez aurre jokoan asteko. Aberats-izenean bizi zan aspalditik, bai Donostin, bai Zarautzen; eta, ziotenez, jokoan irabazia omen zun eskuarteko dana. Atera ortik nolakoa izango zan piztitzar au, jokoetxeetan biltzen diranen artekoetan lenengoena ta nagusiena izateko.

Donostiko jokoetxean zerikusi aundia zeukan jaun batek eraman zun Eskuzuria Biarritztik ara; bere jokaldietarako lagun ikasi bat nai zuan, ba, arek. Alkar-artuta ibilli izan ziran, arrezkero,

gizon biozgaldu ariek biak. Gainberako zeregiña zan, orrela, jokoetxera zijoaken buruarin oituga-beak zearo lumatzea. Nun aurkitu zezakeen gizon ariek biak urre-iturri oberik? Orduetzkeru, egunetik egunera zabalduz eta ugarituz zijoan Vargasen eskuarte.

Garai ontan azaldu ziran Donostin Zitoren guraso gazteak. Madridtarrak ziran eta senarrari Ministerioan ematen ziozken udaldiko oporraldietan, Donostira joaten ziran. Apainkeriak eta lasainaiak zoratuta zerabiltzkin sanar-emazteak. Atsegin-bizitzari burua lotu zioten ezkeru, aundizkien neurrian bizi nai izan zuen; dantzaldietan eta jaialdietan erakutsi nai zuen burua noiznai.

Eta jakiña! Ministerioko alogeraren etorria, etzan orrenbesteko zorakerizko ibilliari eusteko lain. Legezko etorriak ematen dunaren gañetik ibiltzen asi ezkeru, goiz edo berandu, laster azalduko ziran zuloek nun edo nun. Orduan sortu zitzaizten sanar-emazteai sekulako estuasunak eta itobearrak!

Jokoetxera joan zan egun batean, Vargasen eskuetan erori zan gizon ua. Eskuartean zera-mazkin diru-pitiñak zearo galdu ondoren, estua-

sun larri artan, erokeri galgarri artan, bere etxe-ko tresna ta eskuarteko ondasun guztiak jokatu zituan itxumustuan zoroak. Eta burutik oñetaraño oro lumatu zutenean, ollo zapogorriaren antzera, irten zan jokoetxetik buru-makur eta biotzillunik. Arrezkero, etzuan iñork jakin arenik geien da geiago. Norbaitzuk esan zuen Zurriola-ko ugin-lertokian galdu zula bere burua; besteak, berriz, erbestera igesegin zula. Nolanai ere, etzun iñork izan aren berririk egundaño.

Semetxo batekin gelditu zan aren emazte Ester, ezertako eskuarterik eta etorririk gabe. Ogetalau urte zeuzkan eta emakume ederra zan. Ester au zan bezelako emakume apainzaleak eta atsegin-zaleak etzezakean luzaroan iraun larrial-di estu artan gaiztobidera jo gabe. Vargas bioz-galduaren atzaparpean oldartu zan eta jabe bezela agindu izan zion aurrerakoan. Eskuzurria-ren eskuartea lasaitzen zijoan neurrian, agertu izan zan Ester gizartean; geroago ta apañago, geroago ta bitxiztatuago ta dirdaitsuago.

Etxeoin baten jabe egin zan lenengo Donostin; jauregitxo bat eskuratu zun gero Zarautzen. Alargun-izenean agertzen zan nunai; baña ixil-

pean eta kolkopeko ezkutuan gorde izan zitun beti bere bizitzazko goraberak.

Iñork ezer galdetu ezkeru, beste zerbaitera joko zun ezari ezarian, eta kito. Zito bera ere, bere amaren bizitzazkoen ezjakin osoan bizi izan zan. Sendi aretako adiskide min bat bezela azaltzen zan berriz, Vargas.

Donostiko jokoetxean artueman aundia zuten jaun batzuk, beste jokoetxea eraiki nai izan zuen Zarautzen, udaldian ara joaten ziran aundizkien babesean. Orretarako bear zan beste diru batu zuenean, etxe berriaren oinarriak jarri zituen bidezabalaren oiñean. Ontan, baña, Primo de Rivera bakar-agintaria jabetu zan indarrez Españaño agintearetzaz eta jokoa ta jokoetxeak gale-razi zituan zearo.

Ordea, jokoetxe guztiak itxita zeuden garai artan, luzaroan iraun zun Zarautzko jauregi aberats batean ezkutuko jokoetxe batek. Vargas zan ixilleko jokoetxearen jabe. An biltzen ziran gabero udalditar aundizki batzuk eta jokoetxeetara inguratu oi diran gizagaldu sabelzuri batzuk ere.

Gaberdiaren buruan, berezibiletan (en automóviles) joaten ziran Donostitik piztitzar batzuk

eta Vargasen jauregian, gau-dantzaldi ta gau-jaialdien izenean, joko-txirringari ekiten zioten gela ezkutu batean urrengo goizalderarte. Jaialdi ariek alaitzeko, Donostitik bertatik eraman izan zituen bein baño geigotan neskagalduak ere. Dantzaldi lizunai loturik, edari moskortien laguntzarekin, atsegin-bizitza eroari burua emanda ibiltzen ziran egunsentirarte gizagaldu ta emakume galdu ariek. Sarritan joaten zan Zito ere jokaldietara Vargas piztitzarraren bebesean.

Oldozkun oek zerabiltzkin Agerrek ausnarka apari-bitartean eta, bere lagun bategandik ixilpean entzun zitun gauza arrigarri ariek, egiak ziran ala ez, bere begiz egiztatzeko gogoia sortu zitzaion. Etzan ordea, gauza erreza artzulo artan sudurra nolanai sartzea. Oso ezaguna izan ezik, etziokeen iñori aterik zabalduko.

Apalondoan, apain jantzita, kapela arturik, kalera irten zan bere adiskide udalditar baten billa.

Zaragozan ikasketak egin zituan garaian eza-gutu zuan udalditar ura ta, arrezkero, adiskide ona izan zun. Bere kolkopekoak azaldu lezazkion ari bildurrik gabe; ain zun arek izaera zabala ta

onbera. Aregandik zekizkin Vargasen bizitzazko gorabera guztiak ere.

Kafe-etxean egoten zan adiskide ori egunero apalondoan gaberdirarte, ta araxe zuzendu zan Agerre. Etzegon, artean, an udalditarra; baña andik asko luzatu gabe, atea zabaldu orduko, Agerre begiztatu zuanean, besozabalka ta agurka urreratu zitzaion. Egia esateko, nai baño ere obeto zetozkion gauzak Agerreri; eta zioa bideratu zitzaion bezin laster, ezari-ezarian, Vargasen egiteetzazko gaia atera zun.

—Geroago ta jende geiago zijoak etxe orretako jaialdietara —jaulki zion ixilpean udalditarrak—. Gaur esan didatenez, aspaldian izan duten jaialdirik aundienetakoa izan ziaten atzo. Amar neskata ekarri omen zizkiten Donostitik.

—Ikusgarriak izango ditu, orratio, jaialdi oriek —erantzun zion Agerrek, zetorkion bidea buruzkatuz—. Ainbeste edari gozo, emakume ederrak, dantzaldiak.

—Ikusgarriak? Etzegok emen alako egurasbiderik iñun. Iru edo lau bider izan nauk ni ere; baña kontuz ibilli bearra zegok. Gutxieneen usten

duenen batean, errizaien askuetan eroriko dituk goiz edo berandu legetik atezko ibilli ortan.

—Ni ere joango nindukek pozik egun batean, zernolako atsegiñaldi zorabiatzalleak darabiltzkiten ikustearren. Ez al-dek ik adiskide aundia Vargas ori?

—Bai. Aspalditik ezagutzen dit. Orren Donostiko ibillaldiak ere ondo ezagutzen dizkit.

Eta berriro ere, Vargasen ibilli narratx nardagarriari eraso zion udalditarrak. Ordurarte ajolagabe entzun izan zitun Agerrek zizkamizka ariek guztiak; baña oraingoan geldiro ta arretaz luzatzen ziozkan belarriak aopera, itzik ez galtzearren.

Andik orduerdi batera, bekokialdea untzez estalita zeukan jauregi baten aurrean egin zuen geldiunea adiskide biak. Ixillik zegon etxea illunpean, iñor bizi ezpa'litz baño areago. Ezkutuko txirrin batetik udalditarrak egin zuan deira, otsein batek txokondoko leiatilla zabaldu zun. Arek izen-txartela eman zionean, leiatilla itxita, barrualdera ezkutatu zan otseña. Geroxeago, ate nagusiaren zirriku batetik sartu ziran biak etxebarrura. Arnabarrezko eskillara-buruan, Var-

gas bera zegokien zai. Egoki ta bero agurtu zituau jaun sartuberri aiek.

Gizaseme bezela, gizon jeikia ta atsegiña zan. Beltzez jantzita zegoan. Jantzi beltzaren ondoan, zan baño ere zuriagoa zirudin aren aurpegiko azal zurbillak. Burutik oñetaraño aztertu zun Agerrek gizon ura. Geldiro itzegiten zun, itzak kolkopetik irten nai ezpa'lioie bezela. Itzak eta ibilliak arduraz neurtzen zekian, gizon arek.

Arenik oargarriena, ordea, begiratu zan. Betule beltzen azpitik, galtzairuaren zartzada zorrotza zegioen begiak. Aiztoa bezela sartzen zan aurpegian aren begiratu sakona. Gogo-indar aundia dute au bezelako gizonak. Nornairen gogoia menderatzeko laingoa ba-zan begiratu aztertzele ua. Sugearen aurrean txoriñoak izan oi duten zorabialdia sortu bear, noski, gizon aren joerak gogo-ergeldun edozeini.

Eskillara-buruko aretoan zeuden oialezko jarleku ankazabaletan eserita, izketan jardun ziran bitartean, aruntza ta onuntza gelditu gabe zebillen atea ideki zien otseiña, zurruna baño zutia-go ta tenteago, zerbaiten zai bai'lego. Aretoa ezker-eskuitara mugatzen zuen arnabarrezko

abetxo baten ondoan, iru zaldun ari ziran alkarriketan, sapaiko argiontziak zabaltzen zuen argipean.

Ordulaurdeneko izketaldiaren ondorenean, ezkeraldeko ibilbide estutik gelatxo ezkutu batera sartu ziran gure gizonak. Ateak egin zun otsera, erdiko mai biribillaren inguruan eserita zeudenak, burua itzuli zuen zijoazenai begiratze-ko. Begiratu azkarrez aztertu zitun Agerrek gelatxoa ta bertan zeuden danak.

Gorritzta zan ormak estaltzen zitun papera; urdiña, berriz, sapaitik zetorren argia. Maiburu-koak zeragizkion eragiñaldietara, zipotea baño ariñago zebillen mai-gañeko txirringa gelditu ere gabe; ta, biraldi bakoitzean, ermo zorrozten zituen danak begiak.

Emakume batekin eskuz-esku, zaldun gazte bat ari zan jokoan, Agerreri buruz-buru. Aurpegi biribil beltzerana zun, ille beltz dirdaitsua, begi sakonak eta iketzez egiña zirudin ezpaingañeko beltzuneak. Sua zerion gizon ari alde guztietatik; arabiarra zala esan bear azalari ta okotzari begiratu ezkeru.

Gaztea ta kilikagarria zan, agian, arekin jokoa ari zan emakumea. Leendik ezagutzen zun Agerrek emakume ua. Zarautzko jatetxerik onean zegoen eta, udalditarrak ziotenez, Floridako kondearen emazteordea zan. Onen atzealdetik jokalariai begira zegokien emakume pantzetar illegorriak, begiraldi luze ta kiskalgarrian biltzen zun jarrairo aurreko zaldun gazte arabiar-antzekoa.

Beste iru zaldunek osatzen zuen ezker-eskuira maibira dana. Mefistofelesen antzirudia berbera zan ezker aldeko agura buruzuri, sudurkakoduna. Txinpartak bezela zebiltzkion begiak betzulo sakonetan dirdirka; aurpegia margul eta eskugain argaletan zaiñak agirian zitun, zugaitzuztarrak bezelaxe.

Bestaldetik zegoen zaldunaren izena, berriz, jokoetxeetan sarrera aundia zuten danak ezagutzen zuen. Ez omen zekin iñork nundarra zanik, ez nundik nora zebillenik ere. Iru edo lau izkuntza zekizkin gizon onek eta egaldi azkarrak egingen zitun toki batetik bestera. Gaur Zarautzen bazan, biar Donostin izango zan, etzi Biarritzen, etzidamu, berriz, Montecarlon edo urrutirago

oraindion. Egunez etzuan arenik iñork ikusiko; gaupiztia zan. Azkenik aitatuko oek danak geroago jokoan sartzeko zai zeuden: goizaldean azaltzen ziran ba, jokalaririk purrukatuenak.

Une artan, txirringaren zaitzalle bezela maiburuko zegoana, irakurlearen ezaguna da: Zito berbera. Arek zerabilkin joko-txirringa ta, jokaldi bakoitzean, diruaren banaketan, euneko erdi bat kentzen zion irabazleari. Jokoak dun irabazirik garbiena auxe da: jokoetxeak kentzen dun orrenbesteko au. Ez du irabazi onek, ez lakarik, ez makarrik. Gari-jotzalleengandik gari-alea bezain dirdaitsu joaten da irabazi au.

Jokaldi batzuetan dirua aruntza ta onuntza ibilli zan arren, azkenerako, zaldun gazte beltxe-ranaren eskuetara jun zan dana. Jasoaldi bakoitzean, begi-irriño atsegiña bialtzen zion emakume illegorriak. Alako batean, eskuartekoak zearo garbitu ziozkanean, jokoa utzita maitik jeiki zan emakumea ta ondoan zegokion pantzetarrari esan zion:

—Nekatu naiz oraintxe. Goazen dantzara.

Eta emakume biak joko-gelatik irten ziran. Ordurako pianola baten soñua entzuten zan

alboko aretoan eta, lipar batez geroago, solairu dirdaitsuan oiñak irristatuz, dantzaldiari ekin zioten emakume ariek. Zaldun eta emakume geiagoko ere urbilduz zijoazen ixilka aretora. Ondorengo, iskanbilla geroago ta gorago zijoan, aizealdiak astintzen dun itxas aunditua bezela.

Emakumeak jeiki ziranean, Agerreren lagunak jokaldi batzuk egin zitun; baña bereala aspertu zan eta zutitu zanean, bere jarlekua ari eskeñiz, galdegin zion:

—Jokatu nai al-dek, Agerre?

—Tira, ba. Jokaldi bat bakarra egingo det, jaunak. Orra or ogei ogerleko.

Larogei ogerleko irten zitzaizkion jokaldian ustegabe ta jaurti ziozken diruak jasota, ordurako sartu ziran zaldun jokalariai tokia ematearren, jokogelatik irten ziran lagun biak. Larogei ogerleko ariek, Zarautzko gaxoetxeari utzi ziozkan biaramunean.

Agerre ta bere laguna Vargasen etxetik irten ziran garaian, sorgindantza zirudin jaialdiak. Ango ijiji-ajaja! Ango oiua! Ango erokeria! Emakume tzar emegalduen besoetan burtzoraturik zebiltzan batzuk; besteak «Champagne» zora-

biatzallearen indarrari eutsi eziñik; arago, berriz, joko-txirringaren aurrean alkarri nola narrua kenduko. Eta, adiskide izenean, alkar agurkatzzen ziran basatxakur ariek danak! Bakanak dira, benetan, gizadiaren gauzak!

Atea irabazita, iskanbil artatik aldendu zanean, alderen alde zabaldu zun Agerrek bularra arnasa ao betean artzeko, pozaren pozaz. Dorronsoroko sendiari zion maitasunak eraman zun gau-piztien artzulo artara ta, bere zeregiña bete ondoren, gau-aize ozkirriak aurpegia jo zionean, atsegin-zarrazta gozoak zirikatu zion biozpea adiskide leialari.

VIII

ESKALE MALTZURRAREN ESKUETAN

Amorraldiz itxututa gelditu zan Zito, Balendinek sagastiko ormagainetik bidera jaurti zuanean. Al-izan ba'lu, an bertan emango ziokean jipoiaren ordaña morroi lotsagabeari. Zapotzar bat bezelaxe zanpatuko zukean oinazpian urde zikiña. Nola, ordea, ari eraso? Nola azpiratu gizon ua? Irakitan zebilkion barrualdean odola; baña, bere ezinezean, besteren sailletik arrikatu ta uxatu duten zakurraren antzera, aldendu zan andik illunabarraren magalean buru-makur.

Etzuan, ordea, gelditu nai baserritar zarpail ari nolabaiteko ordañik eman gabe. Eta erantzun ori lenbailen egiztatzeko bidearen billa ibilli zan gau osoan kezkatu ta urduri. Beti bereakin irtezen oitua zegon txikitandik eta orain ere ala nai zukean. Baña, nola egotzi zigorra morroi txaluarri? Onela, buru-barnean oldozkunak sortu ta itzali zebiltzkiola, odolaldi kiskalgarriak sutzen zun berriro burutik oñetaraño. Geroago ta gorrotaga-

rriago azaltzen zitzaion uaxe! Nork-eta, morroi sastar arek oinperatu bear! Nork-eta ijitotzar arek makilkatu bear!

Baña, edesti arrigarri onen ariari jarrai baño len, irten gatzaizkion bidera irakurleak onaizkero kolkopean zirika darabilkin galdera bati. Egiazkoa al-zan Zitok Malentxori aitortzen zion maitasuna? Ala, katuak atzaparretan sagua jolasean darabilkianean bezelako maite-jolasa besterik ez ete-zan?

Egia esan, lenengoz alkarrekin izketan asi ziranean, leendik beste neska askoengana urreratu izan zan bezelaxe, juan zan Zito Malentxogana. Eiztari bezela, alegia. Baña tolesik gabeko neska ua, basakatuaren atzaparretan usakumea bezela, mutillaren eskuartera azaldu zanean, zan bezain sutsu jokatu zan lenengo egunetik eta leiarra bezain garden erakutsi zion biotzondo.

Beraz, biozgabea ta ankerra bear zukean alako neskarentzat errukirik ez izateko, usakume arentzako maitasunik ez izateko. Eta ibilli ta ibilli, zer gertatu zitzaion? Berak zabaldutako

sarean erori eiztaria. Maitemiñak jo zion biotzondo.

Au zala-ta, aurreko egun bi ariek ezker, Malentxoren berririk izan etzualako, buru belarri eginda zebillen. Zer gertatu ete-zitzaion neskari? Nora ezkutatu ete-zan? Egund biz lenagotik aingartsu ziraun maitasuna, nola itzali zitakean goizetik gabera orduko? Ez, ez. Etxe artan morroiaz gañera, beste areriores bat ere irten zitzaion, noski.

Zori ontan, arterañokoan umekerietan ibilli zala-ta, gizon egiñari zegokionez, arloa buruzkatzeko asmoa artu zun. Malentxoren gogoak bere alde ziraun bitartean, erreza ta gainberakoa zerizkion gañontzekoari. Ain oitua zegon bere burukeri guztiak indarrean aurrera ateratzen. Bein aldarte txarrak jo ezker, etzuan arek egundo atzerakarik egingo. Oraingoan ere bereakin errez irtengo zalakoan, artutako asmoa lenbailen egiztatzea erabaki zun. Kasaarin uts arek, ordea, etzekin ortarako norekin eta nola jokatu bearra zeukanik.

Erregeseme bat bezain dotore zijoan Zito urrengo eguerdi-aurrean Zarautztik Iñurritzara.

Etzebillen, aurreko egunetan bezela, ezkutuka ta zelatan. Bide zabaletik Dorronsoroko atadira iritsi zanean, ezpaian eta zalantzan ibilli gabe, burni-sarezko ateburuan zegon ezkillari lokarritik eragin zion deika.

Garai artan, etxeatzeko gerizpean eserita, alkarrekin izketan ari ziran osaba Martin eta Agerre. Aurreko egunean ikusitakoen berri zemaion onek apaizari. Berri arien aurrean, erabaki zeatzak artu bear ziran; etzegoan aikomaikoetan ibiltzerik. Nola utzi ainbeste maite zuen Malentxori basapizti gaizto arien atzaparretara joaten?

Eta, alkarrizketan ari zirala, gutxieneen uste zuenean, Josebe etxeakoandrea urreratu zitzairen arinka, eta zerabilkien izketaren aria etenaz, ara zer esan zion bere anaiari:

—Martin, zure billa dator mutil gazte bat. Zurekin itzegin nai omen-luke.

—Zein da?

—Ez det ezagutzen. Oso apain jantzita dator; udalditar bat dirudi.

Susmo azkar batek ziztatu zion Agerreri begitarte-ta, etxeakoandreaki galdegin zion:

Beztaka ta zimel bat al-da mutil ori? Zenbat urte ete-ditu?

—Bai, beltzerana ta giarra da. Ogetabost urte baño geiago ez ditu izango.

—Arranopola! Oker ezpa'nabil, Malentxoren ondoren dabillen mutilla berbera dek, Martin, billa datorkikana.

—Mutil ori gure etxera? Zer erantzun dion, Josebe?

—Zurekin itzegin nai lukeala esan didanean, ezagunen bat dezulakoan goiko gelara eraman det eta an itxedoteko esan diot.

—Eta sartu egin al-da lotsagabe ori? Zer nai ote-du?

—Oa, Martin, eta gauzak argi ta garbi esaizkok. Ementxe egongo nauk zai, zuek amaitu arte.

Barrenaldetik barbarka zetorkion aserrealdia gaindituta, Zitoren billa joan zan apaiza. Apaiz-jantziaren sakeletan eskuak sartuta, etxebarruko itzalean ezkutatu zan bereala; baña bestaldeketik zetorkion argi-illunera, etzan zearo itzali gizaundiaren irudia, arik-eta ibilbidea okertu zuan arte.

Asarreka itza zan Martin jauna ta norbaitek asarrerako bidea eman arren, etzan aren eraso, iparbeltzarena bezela, azpikoaz gain batbatean iraultzen zanetakoa. Eroapen aundiko gizona izan.

Eroapen ori, orratio, etzetorkion jatorritik. Ipurterrea izan zan gaztetan; aitz-gañetik oldartzen dan ur-parrasta bezelaxe zijoakion noiznai asarrealdia bularpetik. Baña urteak erakutsi zioten eroapenaren jakintza. Labean astiro erregorritzen dan ogi-azalaren antzera, umatu zan gizon onen biotza. Alaere, ordea, barrendiko iraduari atek oro zabaldu ezker, gainbera amilduko zitakion asarrea. Indarraldi zeatza egin bear izaten zuan oraindio ere, noizikbein, bularpean pizten zitzaion sualdiari eutsi ta itzaltzeko.

Atalasean-barrena sartuta, atearen gibealeko maratillari eragin bitartean, alegin gorriak egin bear izan zitun biozparrendik zijoakion asarrea esiratzeko.

Gela nagusiko atea ideki zuanean, ormatik exegitako argazki bati begira zegoan Zito zutik; eta, atek egin zun otsera itzuli zanean, gizon biak bekoz-beko gelditu ziran. Olakoetan gertatu

oi dana, gizaundi aren aurrean, zan baño ere txikiago ta aulago zirudin mutillak. Lenengoz barrualdetik irten zitzaion iradu indartsuari erantzunaz bere asmoa egiztatu izan ba'lu arek, etxera ustegabeen sartu zitzaion piztia, lasto igarra baño ariñago, jaurtiko zukean leiotik beera.

Zito, ordea, gizaseme bikain aren aurrean etzan berealakoan kikildu. Belaxka itxurakoa izan arren, etzan braust batean adorea ta ausardikeria galtzen zituanetakoa-ta. Atearen otsera itzulita, apaizari bekoz gelditu zan bezain laster, aintzinako adiskide izan bai'lu, bostekoa luzatu zion agurtzeko. Arek, orratio, sakeletik eskuak atera ere gabe, gela-erdian zutik, mintzo legorrez, galdera au egin zion:

—Zerbait nai al-dezu nigandik?

Kilikagarria zan, benetan, gizon aren itxura. Mutil ausardiaren adorea ondatu zorian zan orduantxe. Atzekoz aurre zearo nasitu zitun itzegiteko zeramazkianak. Azken-txanda eman zionari, lenengoz belarritik elduz, ara nola asi zan mintzatzen belaun-ikaraka:

—Bildur naiz egunen batean zuen morroi lotsagabeakin burrukaldi gorrien bat izango ez ete-dedan. Olakorik gertatu baño len, zuri adierazi nai izan dizut.

—Zer lotsagebekerri egin dizu, ba, gure morroiak?

—Atzo makilkatu nai izan ninduan; eta, nik utzi izan ba'nio, makilkatu ere egingo ninduan.

—Ez nekin ezer. Zertatik sortu zitzaizuen asarrealdia?

—Zuen saillean nengoalako, zartakoka bialdu nai izan ninduan sagastitik. Ez det uste zuengandik orrelako agindurik artu izango duanik.

—Ez. Guk ez diogu agindu iñor makilkatzekorik; baña arritzekoa da gure morroia dan bezelako gizon benak, ezer geiago gabe, iñor jotzea. Galdegingo diot gero zergatik jokatu dan orrela.

—Beste zerbait ere ba-nekarkin esateko. Malentxoretzaz itzegin nai nizuke.

—Malentxoretzaz? Nor zera, ba?

—Aren senargaia.

—Malentxoren senargaia? Noiztik?

—Aspalditik. Eta orain egun oetan aren berri-rik ez dedan ezkerro, norabait joan ete-zaidan bil-durrez, nun dagon jakin-naiz etorri naiz.

—Arrigarria da, noski, gizon zentzundun batek, gurasoen baimenik gabe, neskatxa gazte-ño batekin gauzak ain burugabe erabilli nai iza-tea. Malentxok bere osasuna zaitu bearra dauka luzaroan, beste ezertan naastugabe. Emendik urrutira joana da.

—Auxe izan da, ba, ni onera etortzearen zer-gatia. Aspalditik Malentxo egunero ikusten oitua nago-ta, arenik ez dakidan ezkerro, biozpetik indarrez zerbait kendu diatela esango nuke. Ura berriro lenbailen ikustearren, mendiak, malda-rrak, leizak eta itsasoa bera ere zearkatuko nitu-ke. Neke aundiagoak ere jasango nituke oraindio arengatik. Ain zaletua nago aretzaz.

—Naiko lana ba-du orain Malentxok luzaroan, bere osasuna zaitzen. Bitarte orretan, ez du bear beste kezkarik. Aztu egitzazu arekikoak. Aztu ezazu aren izena.

—Ikusi ezpa'neza, ere, ez al-nezakio idatzi, beintzat? Nola bizi nitake aren berririk gabe?

Nola nebilke arekiko artuemanik gabe? Errukitu zakit, jauna!

—Baña, zer egin nai zenduke Malentxokin? Gauza oek ez dira txepelkerian erabiltzekoak. Edota, astia ematen zabilta; edota, bestela, Jaungoikoak agintzen dun erara, eraman nai dituzu gauzak. Malentxo, ordea, gazteegia da oraindio ezkontzeko. Oraindik ez du olako buruausteetan sartu bearrik.

—Eta ez al-du ezer balio, gure arteko maitasunak? Berak maite nau; eta nik ere maite det. Ez al-da ezertarako alkarrentzako degun maitasun ori? Ez al-gentzake sendi bat egin...?

—Bide orretara jo ezkerro, gizonak burubide zeatza bear du. Sendi baten buru izateko, nola-baiteko irabazia ta etorria bear dira. Ogibiderik bai al-dezu? Nola bete ditzakezu, bestela, sendi-buruari dagozkion eginbearrik larrienak?

—Ogibiderik izan ez arren, nere amak eskuarte ba-du. Nunai bezain ondo biziko litzake Malentxo gure etxean. Nere amak ere ondo artuko lukela uste det.

—Zertan jarduten zera? Zer lan egiten dezu?

—Ez daukat lanbide jakiñik. Ordea, ez det bear ere lasai bizitzeko.

—Baña, gizartean ainbeste bider gertatu izan danez, zure amaren laguntzarik gabe bizi bear ba'zendu, zertara joko zenduke? Zein bizibide aukeratuko zenduke?

—Nola gertatu leikit olakorik? Orain bizi geran bezela bizitzekotan, ez det lanik egin bearrik.

—Gure etxean, berriz, bear izan edo bearrik ez izan, noiznai lanegiten saiatzen ikasiak gera. Malentxo ere, berdin. Beraz, nere illobarentzako izango danak, gizon egin bateri dagokionez, bere eskuko lanez sendiaren ogia irabazteko laingoa izan beariko du. Arterañoan, ez buruan ames zororik erabilli. Orrez gañera, gazteegia da Malentxo oraindio olako gauzetan buruaustea bilatzen asteko. Gauza oek astiro ta burubidez aztertu ta erabilli bearrekoak dira.

Eta azkenengo itz oek garratz-antzean jaulki bitartean, ate-kisketari eraginda, gela nagusiko atea alderen alde zabaldu zuan, Zitoren erantzunari itxogin ere gabe. Zer erantzun eman zeiokean, gañera, gizon zeatz aren itzari? Eskuan jira

ta bira zerabilkin kapela jantzi, ta andik lenbailen ertetzea beste biderik etzuan izan. Erauntsiak tximukatu dun ollaskoa bezelaxe irten zan etxe artatik.

Etzitzaion iruditu apaizari mutilla, leendik uste zuan bezin nardagarri. Etzirudin biotzondo txarreko gizona. Baña ikaragarrizko leiza zegon Maitearena jauregian bizi zan senditik Dorronso-rokora. Mutil arek izan zun azkeratik, Libek eta Malentxok izan zuen azkerara ere, bitarte aundia zegon. Gizartean ezerk alkartu e'lezaken bitartea dago Jaungoikoaren aginduen begiramenean beti bizi izan diranetatik, Aren legeak ausita, nolanai jokutzen diranetara. Nola aztu zezakean gizon zentzundunak izugarrizko bitarte ura? Mutil ua bear bezela, Jaungoikoaren bildurrean, azia izan ba'litz, emaitz ederrak eman lezazkion, bearbada, biotzondoak. Gizona, ordea, dan bezela buruzkatu bear da gizartean; ez beste azkera batekin izango litzakean bezela.

Dorronsorotik Zito irten zan garaian, eguerdi-burua zan eta, an egin zizkoen eskariai makurtuz, bertan gelditu zan Agerre bazkaritan. Atadiko mats-aien aberatsaren gerispian egin zuen

eguerdi artako bazkaria. Gaurko gizartean ez dira noiznai eta nunai aurkitu gentzazkeanak adiskide leial eta zintzoak; baña, bein orrelako bat azaltzen zaigunean, oso atsegiña izan oi da nornairentzat, kezkaldietan batezere, maiaren ondoan biotzondokoak alkarrekin maitekiro erabiltzea. Atsegingarria izan zitzaien, agian, Dorronoroko atadian bazkaldu zuten guztiai jatordu-bitarteko izketaldia. Biotzak itzegiten zuen, ba, danen agotik ezertariko gandurik eta estalkirik gabe.

Bien bitartean, berriz, orduerdi batez lenago erregeseme bat bezain arto Dorronoroko atera azaldu zan gazte apaña, gozoen orde z pipar gorri ezpainondoak igortzikatu diozkatzen ume-kondoa baño erreago ta zitalago zijoan Inurritza-tik bere etxera. Goizean arek uste izan zun, bera zan bezelako zalduntxo aundizkia, agurka ta bizkar-auspezka artuko zuela baserri artan. Baña sutondoko epelean lotan dagon katuari baño areago erori zitzaion burura apaizagandiko ur-parrasta otza.

Bere zori artan, beti bezela bere burukeriakin aurrerairtetzeko zein bidetatik jo zezaken asma-

tu eziñik zijoala, ondartzaburutik bere etxea begiztatu zuan garaian, eskale batekin egin zun oztopo bidean. Eta une artan bertan, deabruak asmo berri gaiztoa aizatu zion begitartera.

Alkarren ondoratu ziran garaian, eskale zarkinak esku-luzeka soroski-zerbait eskatu zionean, zalduntxoak itaundu zion.

—Ondo ezagutzen al-dituzu inguru oek?

—Inguru oek bakarrik? Baita Gipuzkoa osoa ere zearkatuko nuke begi-itxian utsik egin gabe.

—Tira , ba. Zu bezelako gizon bat bear det agindu bat egiteko. Zure lanaren ordeaz diru-mordoxka bat emango dizut. Nai al-dezu?

—Dirua? Orrexen billa ta eske ezpa'nabil, ba, beti?

—Ez da zailla eginbearra; baña ixilpean eta erne bete bearrekoa bai, ordea. Nai al-didazu egin agindu ori?

—Ixilpean erabiltze orretzaz ez dago zer esanik. Amaika ixilpeko badira leen ere nere kolkopetik irten gabe. Beraz, agindu ori nik egin neza-keana ba'da, lenbailen beteko dizut.

—Orretarako, ordea, astiro itzegin bear dizut. Gaur illuntzeko bederatzietan »Ximela»ren osta-

tuan itzegingo degu. An emango dizut zure egin-bearraren berri. Itxoidazu antxe, esan dizudan orduan.

Azkenengo itz oekin eten zun Zitok eskalea-
rekiko alkarrizketa; baña, joakeran, ogerleko bat
jarri zion eskuazpian bigunki. Zillarraren dardai-
aurrean erdizoraturik, txapela erantziz, buru-
makurka agur-egin zion eskaleak zalduntxoari.

Andik geroxeago, bidearen okerrunean Zito
ezkutatu zaneko, bi edo iru jauzi egin zitun agu-
reak pozaren pozaz eta, goruntz arrika jaurti
ondoren, eskuazpian bildu zuan berriro ogerleko
dirdaitsua. Ostaturako bidea artu zun bereala.
Eguzki kiskalgarri arek igarri zorrotza ematen
baitzun eta urdalla ere zerbaiten eske zebil
kion zulatu miñean.

«Antzuela» deitzen zioten nunai ezizenez
eskale ari. Etzan inguru arietan gizon ua ezagu-
tzen etzuanik, iñor. Baserriz-baserri ta mendiz-
mendi eskean zebillen bitartean, kanta-papelak
saltzen ziezten mutillai ta neskatxai. Orrez gañe-
ra, berak kantatzen erakutsi. Auots garbia ta
atsegiña zun eta ezpañetakoaren soñuakin
laguntzen zitun gaienean bere kantak.

Alai ta pozkiro artzen zuen gazteak Antzuela eskalea. Izaten zan oiua ta zantzoa ta parre-
algara ugari gizon ura zebillen tokian! Batezere,
neska gazteakin artueman aundia izaten zun;
eta, irakurle, ixilpean gordeko ba'ziandu ezkutu
au, ateraldi lotsagabeak egiten ere oitua zegoa-
la esango nizuke.

Alaere, ordea, ausardi samarra izan arren,
maitekiro artzen zuen alde guztietan. Maite-
aginduak alkarri bialtzeko ere etzuen gazteak
beste iñor nai izaten.

Jaioterritik zetorkion ezizena; baña gutxitan
joaten zan bere errira. Senditartekoen batzuk
ba-zitun an eta, ikusten zuen guztietan, asarre
bizian erasotzen zioten. Au zala-ta, gogaitkarri
zitzaion, benetan, bere jaioterriko egona.

Baña au izan ezik, beste Gipuzkoako erri guz-
tiak ilero ikusten zituan. Gaur itxasaldean, biar
legorraldean; orain beterrian, urrengoan goie-
rrin; gelditu ere gabe zebillen beti aruntza ta
onuntza, atzealdetik bere kantuekin poza ta
alaia ixuriz.

Etzan, artean, oso zarra; baña naiko zarkin-
dua zegon eta egunetik egunera agura-itxura

izugarria artzen zijoan. Neguko bustialdiak eta sapaletako lasto-arteko egonak, etzioten osasunerako on aundirik egiten; baña onaizkero, eskeari utzi ezkeru, nora jo zezakean...?

Iñurritzako sagardotegi batean bazkaldu ondoren, illunaurrean, oinak arrastaka ta bere paperak galtzarpean zituala, Zarautzerako bidea artu zun. Bideko ibillian ain zarkindua ta baldartua zirudin gizon ura, zearo itxura-aldatzen zan eta gaztetzen etxebarrura sartzen zanean.

Ximelaren ostatura iritsi zanean, ateondoan zeuden gazte bik, Kaxo, Antxueta! esanaz, idiki zioten atea. Aitzgañetik amiltzen dan ur-jarioa apar zuri biurtzen dan bezelaxe, parre-algara biurtzen zan arek beti agoartean zeramakin bertso-marmarra ta lelo alaia. Danak agurtu zuen barrutik maitekiro; danak eskeni zioten edari zorabiatzallea ta, eskenitako ardao-ontziak ezpanetara eraman-ala, danentzat izaten zitun ateraldi ziztagarriak, edo bertsoak, edo izkirimiri parregarriak. Adiskidetzat jotzen zuen danak Antzueta ospetsua.

—Zer berri dakarkiguzu, Antzueta? —galdegin zioten.

—Berririk gutxi, gizonak. Ni bezelako agure zarrak soingañean dakarkin dana ere zarra ta zarpilla dik. Berririk ezer ez.

Orrelako ateraldien agirian, parre-karkara erreza jaurtitzen zuen ostatuan zeudenak. Arrantzaleak ziran batzuk; besteak, berriz, an inguruan etxegintzan ari ziran langile ta argiñak. Gazteak eta sasoirik bikañenekoak geienak. Antzuela ostatu artara azaltzen zan guztietan, berriketaldi atsegiñak egiten zituen agurearekin.

Ostatuko etxekoandreak ogi-zerrenda biren tartean atera zion lukainka errea geldiro ozkatu ta iretsi zuanean, ezpañetakoa aterata, doñu jakin bateri ekin zion, entzuleen agoa berotu arte.

*Baratzako pikuak iru txorten ditu;
neska mutiltzaliak ankak arin ditu;
ankak ariñak eta burua ariñago;
dantzan obeto daki artajorran baño.*

An sortu zan iskanbilla, oiualdia ta kriskitin-otsa! Mutil gazteak ezin zituen ankak lotu; dantzara zijoazkien gainbera, naiz eguneko lana

utziberriak izan, artean. Sukaldean lanean ari zan neska bat besotik tiraka atera zun dantzara mutil batek eta dantza-saio ikusgarria egin zuen biak, ostatuko guztiak begira zegozkiela. Ua zan alaitasuna! Ua zan sasoia! Ujujuuuuu...! Beti gazte ta beti alai irautea bezelakorik ez dek, demorriotan , osasunarentzat!

Bederatzien buruan, Zito arandangira azaldu zanean, olaingo zalduntxo dotorea sartzen ikusirik, ezpainartean zerabilkien leloa etenda, gazte garatuari begira gelditu ziran danak aozabalik. Antzuelak ere gerrikoan gorde zun bere ezpañetakoa.

Ollaskoen aurrean kukurrukuka asten dan ollarra baño arroago ta zutiago igaro zan Zito an zeudenen artetik zear-begiraka; ta, eskalea begiztatu zuanean, aretxen maira urreratuta, buruz-buru eseri zitzaion. Orduantxe, bai, totaldurik eta arriturik gelditu zirala arandangian zeuden danak. Aundizki-itxurako udalditar ura Antzuela eskale sastarrakin, leendiko adiskide bailu, izketan asi zanean, ikusleak, arrituta, zio-saen alkarri: «Zer demorrio ete-zerabilkie oek biak? Deabrua bera baño ere biurriagoa dek

Antzuela au. Erregeren jauregira bertara sartzen ikusiko diagu alakoren batean jaun da jabe beze-la».

—Ementxe, bazter ontantxe itzegingo degu gure aisara —jaulki zun Zitok eskalearen aurrean eserita.

Ardandegian zeudenak, orratio, lenengo arri-tualdia itzali ondoren, erbestearra sartu zanean etendako ariari egotzi zioten berriro agoa ta ango edale zorabiatuak ateratzen zuen itzotsera, etzuen izan ixil-izketa ura iñork entzun bildurrik. Alaere, orratio, bada-ezpada, agopeko mintzo bigunean eta zear-begiratzuz asi zitzaion Zito izketan.

—Zure aginduetara naukazu —erantzun zion eskaleak belarriak zorrotzurik.

—Ara! Auxe da bete bear didazun eginbeerra. Bai al-dakizu nun dagon Inurritzan, Dorron-soro deitzaion baserria?

—Bai, bai. Jakingo ez det, ba? Amaika bider izana naiz antxe. Ango etxekoandre Josebek eman izan dit iñoiz bazkaritako lapikondo usaitsu gozoa!

—Alaba bi ditue baserri ortan; ez dakit ezagutzen dituzun.

—Neskak ikusi izan ditut baserri ortan; baña ez dakit ezagutuko nitukenik; ainbeste ikusten ditut, ba, nere bideetan.

—Etzaio ajolarik. Nere agindua bear bezela betetzeko, ez dezu orren bearrik. Neska oietako bat Malentxo da, nere emaztegaia; baña, orain egun bi dirala, norabait erbestera eraman dute. Malentxo nora joan dan eta nun bizi dan jakin nai nuke nik orain. Ez det uste zuretzako gauza zaila litzakeanik orixe jakitea.

—Ez, noski. Ain zuzen ere, gaur eguerdiburuan bidean aurkitu zaitudanean araxe nijoan; baña, eman didazun ogerlekoaren usaira, ibilbidea okertuta, sagardotegira joan naiz bazkaritara. Biar bertan joango naiz Dorronsorora-ta, zuk nai dezuna nik ez jakitekotan, ez luke iñork jakingo.

—Baña, Antzuela, orretarako buruz jokatzea nai nuke. Ez dezaizuela igarri zerbaiten jakinmiñez zuazenik ara! Ez dakizuela igarri norbaiten agindua beteaz zoazanik! Ez egin zabarkerizko galderarik.

—Amaika aldiz egiñak ditut or-emen zurearen antzeko aginduak! Orrelako eginbearretara oitua nago. Egon zaitez kezka gabe, jauna.

—Tira, ba. Biar bertan etorriko naiz bazkalondoa zure erantzunaren bila. Beraz, biar arte.

Eta zalduntxo apain arek joan-agurra zegion unean, beste zillar-mordoska jarri zion eskuazpian ezari-ezarian. Zillarraren tintin-otsera, bai begiak biziki alaitu zitzaizkola eskale maltzurari!

Ordu-laurden batez geroago, len alako bizgoragotik zebillen ardandegian zalaparta, iskanbilla ta kantu-otsa. Besteetan, etzuan izaten Antzuela ospetsuak ezer ordaindu bearrik ostatu artan; nornaik ordaintzen zion nai adiña zurruta. Eta iñok ematen ezpa'zion, ostalariak eskeniko ziokean eskuzabal; edaleak biltzeko bai al-zan, ba, eskale ua bezelako gizonik?

Ordea, egun artako zurruta, oituraz beste, Antzuelaren kontura izan zan. Aren eskuarteko txanponak, edariaz gañera zabaltzen zuan ere, arraiok ezpa'du, alaitasuna ta zalaparta ugari.

Etzan izan Antzuelarentzat zeregin zailla urrengo egunean udalditarraren agindua egizta-

tzea. Amaiketan inguratu zan Dorronsoroko baserrira. Txarrikumeai artalea ematen ari zan une artan Balendin etxeatzean; Mikele neska-me, berriz, iturri-arraskan garbiketan. Zarautzera joana zan etxekoandrea erosketa batzuetara. Martin apaizak, saskadiko gerizpe atsegina eserita, eguneko otoizketak zegizkin, etxetikoz ezkutuan. Eskalea iritsi zan garaian, artalea marraskatuala, uxarkaldi azkarra egiten zuen lurrean txarrikumeak eta alkarri muturka ekiten zioten maiz kurrintzaka.

—Egun on bat eman dagizuela Jaungoikoak, agur-egin zien eskaleak sarrerakoan.

—Kaxo, Antzuela! Nundik nora zabiltz? Aspaldi ontan ikusigabea zaitugu —erantzun zion Balendinek.

—Jakiñak izaten dira nere ibilliak. Legorralde-tik itxasaldera irten naizan ezkerre, erabat daramazkit itxaserri guztiak. Arranotan, txarrikume bikañak daukatzue. Bizkarralde guria izango due oik San Martinetarako...!

Eta, bein berriketan asi ziran ezkerre, nai bezin laster eramanezun alkarriketa, bere saille-
ra. Txarrikumeakin okulllura sartu zanean Balen-

din, ezarian, maltzur aundiak, Mikele neskame oargabeari itaundu zion:

—Ez al-dituzue etxean neskak?

—Bai zera! Egun batzuetarako Aizarnara joan-
nak ditugu.

—Osasuntsua da, noski, erri ura! Makiña bat bider artu izan det ango aize ederra! Kalean aldira?

—Ez. Komizulotzara goazela, baselizatxo baten ondoan dagon Lasturreta-baserrian, erantzun zion neskame oargabeak.

—Ara! Ederki ezagutzen ditut toki ariek. Askotan egin izan det gaba ardandegi aretan.

Bai al-zuan eskale maltzurak geiagoren bearririk? Bein bere eginbearra bete ezkeru, urrengo arte agur-eginda, laster aldendu zan andik. Zitoren asmoak sakonki ezagutu izan ba'litu, etzitu-kean, bearbada, bere egiteak aurrerago eramango. E'tzekin, ordea, zalduntxo ura noraño zijoanik; etzuan noski zegikean kaltearen berririk. Neska-mutillak maiz izaten dituen maite-jolas ariñen bat zalakoan, bete zun Zitoren agindua. Naiz-eta eskale zarrastakoa izan, etzan biotz txa-

rreko gizona; etzan gaiztoa. Ezjakiñak eta diruaren dirdaiak, zoratuta jarri zan Zitoren eskuetan.

Bazkalondoan, Ximelaren ostatuan bertan eman zion Zitori jakin zituanen berri. Zillarez ordaindu zion arek berriro bere lana. Noiz ikusi ete-zuan eskale zarpillak eskuartean ainbeste diru? Alako dirutza artzearren, amaika agindu bete zitezkean...!

Ain zuzen ere, diru geiago irabazi zezakean oraindio. Baña urrengo eginbearra luzeagoa ta zailagoa zan. Zitok emandako karta bat Malentxo neskañoari Lasturretaraño eraman eta aren erantzuna ekartzea. Egun batzuetako eginbearra zan; baña beti bidez-bide zebillen ezker, berdin zitzaion iparraldera igo edo egoaldera jetsi. Gañera, emandako agindua ondo egiztazten ba'zun, ostatu eder batean luzaroan atsedeten egoteko lain diru juango zitzaion eskuartera.

Zitok emandako karta kolkoan gordeta, Aizarnarako bidea artu zun urrengo goizean-goizetik, eta zeramakin bidearen ondoko baserrietan parre-karkara ta kantu-otsa ugari uzten zuan bere ondoren. Batezere gazteak, soroko lana

utzita, maitekiro urreratzen zitzaizkon, ikusi
orduko, zeramazkin berrien eske. Sorgiñak baño
nasiaidi geiago sortzen zitun arek bere ateraldi
zorrotzakin neska gazteen kolkoetan! Gaizto
utsa, alena!

IX

APUSTU-EGUNA

Ori dek sasoia, mutil!

Ez al-dezue ikusi iñoiz, itxasaldeko larretik aterata, agokoa egozteko legorraldera eraman duten moxal basatia, itxas-kresalaren arnasak zoraturik, ezlaria uzkailita, amar legoako bidean laugainka ta irrintzi-jario itxasaldera igesegiten? Bereolaxe zeramakin biozparrenak Balendin itxasondora, baserri-lanak bukatu bezain laster. Apustu-eguna urreratuz zijoan-da, egun artarako besoak eta zaiñak zailtzearren, illuntzero joaten zan arraun-saioa. Atsegin zitzaion Balendini zeregin uaxe; gainbera zeramakin gogoak artaraxe.

Nork susmatu zezakean gizon ua legorraldeko semea zanik? Itxaserrian jaio ta azitako askok ere, etzioten itxasoari ainbesteko zaletasunik. Gizonaren buruan sortzen diran ames guztiak egiztakorrak ba'lira, Balendinen amesik gogokoenena ontzijaube izatea zitakian. Etzukean, noski, aren ontziak pipiak edo erdoiak itxasbazterrean

joko. Aintziñako itxasgizon kementsuen iraduz, aurki emango ziokean ludiari itzulbira osoa. Eta errege altsu batek bere saillak noizbeinka zenbaitzen ditun atsegiñez, ibiliko zitakian mutilla, mugarik ez dun ur-zabaldi artan. Ura izango zitakian atsegiña ta zoriona!

Urrengo igande-arratsaldean ordubeteko arraunaldia egin ondoren, oi bezela, Getariko sagardotegira joan ziran. Balendini itxasoak biotza irabazi zion bezelaxe, Getariko Matxinen ostatuan beste norbaitek zorarazi zion gogoia Lopategiko Agustini. Balendin ezetzik, pozik joaten zan ara Agustin ere. Izan ere, ariek ziran begi sorgiñak Matxinen bigarren alabarenak! Ua gatza neska arena! Ariek ateraldiak eta ariek ziztada miñak! Nori burua nasitu ez Yolandak? Gañera, zoragarriak ziran, agian, parre-garaian mataiburuetan irtetzen zitzaizkon xokondo-uneak! Aoko beroa pizten zuen, arranotan! Ua zan, ua, neska ederra!

Apustu-zale purrukatuak dira euskaldunak, naiz baserritar, naiz arrantzale izan. Eta indarneurketak, zenbat eta errikoiago, ainbat eta sutsuago ta gartsuago artzen ditue. Etzuen egin

egunkariak Zarautzko apustuaren zabalgunde-rik; etzan izan, ordea, bear aundirik ere. Estropadarik ospatsuenak baño zeresan geiago zerabil-kin Getarin eta Zarautzen Balendinen apustuak. Arrigarria zan sagardotegietan eta ardandegie- tan zegioen zabalgundea. Aste guztiko berri- ketak ortaraxe zijoazen; etzezakean iñork kendu agotik lelo ori.

Balendin eta bere lagunak Matxinen sagardo- tegira iritsi ziranean, jendez beteta zeuden ate- aurreko maiak; batzuk, zurrutan, bestiak, zer- bait jaten, danak itz-jario ta zaratatsu. Balendin begiztatu zuen bezin laster, danak eten zuen agoartean zerabilkien leloa ta gizaseme bikañari begira zegozkion. Orrelaxe erakusten du aoza- balka erri xeak, indarrez eta trebetasunez bes- teen gainetik jeikitzen diranentzako aundi-iritzia.

Norbaitzuk, ezagun uts izan arren, adiskide legean urreratu zitzaizkon eta bostekoa luzatu zioten; beste batzuk, berriz, zear-begiraka zegozkion. Arerio zitun, nunbait, azkenengo oek. Aundi-iritzian zeukaten, orratio, danak mutil jeiki indartsua.

Aspergarri zitzaion Balendini angoxe jarduna ta galdetubearra-ta, jendearen geiegizko jakinaia eragoztearren, goiko gela ezkutu batera eraman zitzala eskatu zioten Matxini. Pozik eraman zitun arek; aintziñako adiskide zintzo zitun, ba; eta orrez gañera, etzerizkion eskasa suitzat Lopategiko Agustini. Mutil bena, zintzoa ta langillea; eskuartekoa ere baitzun, arranuana! Eman zezakion, bai, alaba, arduragabe, alako mutillari.

Ain zuzen ere, Yolanda izan zuen serbitzari; Matxinen bigarren alaba berbera. Begitarte azkarra baitue emakumeak nai duenerako-ta, etzuan izan Yolandak iñork agindu bearrik, mutillengana zer nai zuen galdezka joateko. Erditotelduta zebillen Agustin neska ederrari begira; baña emakume-biotza ezagutzen oitua izan ba'litz, neskarena ere pilpilka barrundatuko zukean.

Janaldia erdiratu-garaian, beeko zeregiñak utzi zioten bezin laster, goiko gelan zeudenengana igoaldi bat egin zun Matxinek eta, beste zerbaiten bearrik ote-zuen galdetzeko aitzakian, aiekin izketan gelditu zan lipar batez. Getaritarrak apustuari zer zerizkioen jakin naiez, Balendinek esan zion:

—Zer diote emen gure apustuaretzaz?

—Ez dezuela irabaziko. Ba-dira emen zuen arraun-saioak zelatzera joan diranak. Ariek ekartzten dituen zurrumurruetara dabil jendea.

—Eta zuk, Matxin, zer derizkiozu? —itaundu zion irriparrezka.

—Zer derizkiodan? Ara! Berrogei ogerleko jokatu dizkit oraingoz zuen alde. Nire iritziaren erakusbide oberik nai al-dezue?

—Ederki, Matxin, ederki. Alegiñak egingo ditugu zure dirua bear bezela aldezteko.

Baña Balendinek beste sail batera eraman zun batbatean alkarrizketaren aria. Ezpaizitzaion atsegarri geiegizko itzjario txoliñik erabiltzea eta beste zerbaitera jo zun bereala.

Ain zuzen ere, egi utsa zan Matxin ostalariak Balendini esan ziona. Getarin geienak jokalarien aurka zeuden. Astunegia omen-zan Txantxikoren ontzia, orren erraz Mollarritik Getariraño eramateko. Mutil indartsua izan arren Balendin, etzan, ordea, arrantzalea-ta, arrantzuko zeregiñetan oitugabea izanda, angoen iritzirako, etzezakean jakin ezer asko itsasoko goraberatan.

Orrez gañera, eztabaida zoro arekin beinola Balendinen asarrea sutu zuen mutil zitalak, Txandresen semea destañez eta gorrotoz irrikatzearren, nunai maxioka zioen mutil xingil arengandik etzuela Zarautztarrak laguntza aundirik izango. Zurrumurru oek aizatuta, dirua lasai zijoan Getaritik jokalarien aurka.

Egunero, illuntze-aurrean, ardandegietan eta sagardotegietan zerbait usmatzearren, zelatari-aldra bat joaten zan Getaritik Zarautzera, eta, belarri zorrotzez biltzen zituen marmarrak jaulkitzen zituanak. Lenengo arraunaldia egin zue-nean ere, portuburuko ormari ukalondoak egotzita, illunbea urratu naiez, begiak zorroztuki, egon ziran luzaroan itxasora begira. Zerbait usaindu ere baitzuen, zelatari maltzurak; arraunlari eskastzat epaitu zituen, beintzat, lenengo saio artan.

Zarautztarrak, ordea, banakaren batzuk izan ezik, Balendinen alde zeuden. Aurrenengo egunetan, Getaritik nai adiña diru zetorrela-ta, ikararuta gelditu zan zillarra Zarautztarren sakeletan. Baña Agerrek bere lagun batzuei agindu zien, andik zetorren diru guztia jasotzeko; etzitzatela

damutuko-ta. Etzan Zarautzen Agerre indiano gaztea ezagutzen etzunik iñor, naiz arrantzale, naiz baserritar, naiz aberats, naiz txiro izan. Danak maite zuen gizon ua ta aren iritziari begi-tarte ona egiten zioen nunai.

Lenengo arraun-saioa eginda, Agerreren iritziak tinko irauten zuala oartu zuenean, bildurra astinduta, dirua ausartsu irtetzen asi zan sakeletik. Getaritik zetorren guztia jasotzen zan Zarautzen. Eta orra or nola egun batetik bestera aldakuntza arrigaria egiztatu zan!

Solairua sendo dagoalakoan ajolagabe dabilenari, oinpean gapirioak ustegabe zartaka asi zaizkonean, sortzen zaion larrialdia ta ikara sortu zitzaien gabetik goizera Getariarrai. «Zergatik jasotzen due Zarautzen, guk eskeni-ala, apustu-diru dana? Ain burugabe jokatuko al-lirake, arraunlarien goraberak jakin ezik? Jumm...! Gerok ez ete-gera, arranopola, burugabe ta itxumustuan gabilitzanak...!» —jaulkitzen zuen berekautan apustu-eguna urreratuz zijoan bezela.

Etzuen, arrezkero, dirua nolana ateratzen. Apustuetaiko artuemanetan ez dira euskaldunak iñorekin tinkatzen. Are gutxigo, berriz, euskal-

dun oik nekazari ta arrantzale diranean. Aurretik arduragabe iñori itzik eman gabe, irabazirik eman lezakionaren alde jokatzeko dira. Orixe berori gertatu zan Getarin azkenerako. Zearo aldatu zan egun batetik bestera diru-eskeintza-lleen joera.

Zarautzatarraren arerio purrukaturen bat izan ezik, azkenengo astean etzuan iñork dirurik atera nai jokatzeko. Zenbat-eta eguna urreratua-go, ainbat gutxigo, berriz. Zarautzko ostatuetan ixil-mixilka bildutako zurrumurrak, etziran, noski, zelatarien agoetatik jaso zituenen seni-deak. Eta, ba-daezpada, diru-kontuan erne ibilli bearra dago.

Geroago ta obeto zijoazen Balendinen arraun-saioak. Astelen illuntzean, aurreko egu-netan baño ere bareago ta zelaiago zegoan itxa-soa. Orduantxe egin zuen arraunaldirik egokie-na, ordua bear bezela neurtuz. Orduerdian era-man zuen ontzia mugatik mugara. Bikain jokatu ziran arraunlariak! Getariko muga jo zuenean, Txandresen seme Joxek biozpean piztu zitzaion pozaldiari eutsi eziñik, zoratu bearrean, irrintzika uretara jaurti zun arrika buruan zeramakin txa-

pela. Entzungarria zan mutillaren itzjario parregarria. Txakur gazte zaungari ta jauzkaria bezelaxe zebilen pozaldia gainditu eziñik.

Agerre izan zan, Balendinen ordezeko, apustuaren goraberak zuzendu zituana. Bi milla laurleko ta erdiraño igo zan apustuaren jaso a egun arietan. Sei izango ziran, berriz, epai-maiko; iru Zarautztik eta beste iru Getaritik. Erri bietako erri-agindarietako bi eta, gañera, bietatik arrantzale bana.

Apustu-eguna urreratu-ala, upelean irakitan ari dan muztioa bezela, zijoan goraka jendearen poza ta ikusibearra. Urrengo igandean, arratsaldeko lauretan, izango zan arraunlarien jokaldia. Beraz, etzegon luzaroan itxedon bearrik. Eta eskuak alkar igortzikatzen zituen danak pozaren pozaz.

Baña, bitarte ontan, ezbear bat sortu zitzaien ustegabe arraunlariai. Zitalkeri erreka aizatutako gaizki-egite gaizto baten ondorengoa izan zan ezbear ori. Ostegun goizean, Zarautzko portuan bertan, aizkoraz zartaka sabela zulatuta agertu zan Txantxikoren ontzia. Nasa-ezpañari lotuta zeukan unama sendoa izan ezpa'litz, ondatuko

zitakian ontzi erdibikatua. Etzun egundo iñork jakin nor izan zan ontzi-ondatzalle zital gaizkillea.

Etziran, ordea, orregatik kikildu jokalariaik. Zenbat eta arerioa zitalago, orduan eta auzartsuago jokatu bear da burrukalari zintzoa. Goiz artan bertan bildu zitun Agerrek lenbailenka epai-maikoak eta gertatzen zanaren berri eman ondoren, ontzi ondatuaren ordezkotzat, aren antzeko senide bat aukeratu zuen. Bein erabaki au artu zuen ezkerre, zaitzalle bi jarri zitun Agerrek portuan gau eta egun, beste ainbeste berriro gertatu etzitzakien.

Goiz-nagia ateratzen dun neskatxa liraiñaren antzera esnatu zan igande-goiza, eder eta naro, argizpiak noranai zabalduz. Erabat zetorren legor-giroa. Bata bestearen atzetik zijoazen egun kiskalgarri ariek, legorteari bidea emanaz. Illuntzero lañatzen zan zerbait eta goibeltzen zerualdea; baña, segariak eskuarez belar ondua belardin biltzen dun bezela, aizeak isasten zitun egunsentian artille-mordoak eta zerumugako kutxapean biltzen.

Goizean-goiz erten ziran arrantzaleak itxasora; ordea, besteetan bezela lurraldetik asko urrutiratu gabe, ekin zioten arraintza-lanari. Iñor izanenean, arrantzaleak izango ziran arratsaldeko indar-neurketa entzutetsuan ikuslerik arduratsuenak eta epailaririk ikasienak.

Beraz, arrantzuko lanetan ziarduela, eguerdia gañera zetorkiela sendu zuen bezin laster, sareak bilduta, eskuratu al-izan zituen arraiak ontzietan eguzkitara dizdizka zituelarik, portura zuzendu zituen lenbailen ontzien muturrak. Aizeoial puztuaren indarrak ugin-artean ontzia labainka zeramakin bitartean, arratsaldeko apustuaren goraberak zituen mintzagai.

Iparraldeko aizeak zeramazkin ontziak egiñan. Lurraldetik ala irudi ez arren, sendoa zan ipar-aizearen arnasa. Ur-zabaldian tarteka agiri ziran zuri-pirrintak erakusten zituen ondoen aize biurriaren jolasaldiak.

Arrantzaleak ezetzik, erne zebiltzan egun artan Getariko ta Zarautzko emakumeak, eguerdirako etxeko zeregiñak burutzen. Bazkaldu bezin laster, itxasburuan ikus-toki egoki bat artzera joan nai zuen, ba, apustuko goraberarik

galdu gabe asieratik azkenerarte dana ikusteko ustean.

Neskatxak, batezere, arnas-estuka zebiltzan lanean; orrelako egunetan emakumeak ere izan oi ditue, ba, egundoko zeingeiagokak eta ixilburrukak. Arraunlariak besoetako indarra erakutsi bitartean, neskatxak arraunaldiari baño erneago zegozkiokean, nik uste, beintzat, kolkopeko ezkutu-apustu gogorrari. Olakoetan artzen baitue, bereziki, neskatxak mutillengandik ederizena ta egoki-iritzia.

Gazte-aldra ugariak iritsi ziran eguerdiondoan legor-aldetik ere. Batzuk oñez, besteak txirringutsez, baita zalpurdiz ere norbaitzuk. Jendalde aundia bialdu zuen Azpeitik, Azkoitik eta inguruetako erriak; erritarra baitzan jatorriz Balendin. Beraz, estropadarik aipatuaren neurrian zabaldu zan, alde guztietara, Balendinen apustuaren entzutea. Eguerdi-ondorean, Zarautzera erbestearrak sartu-ala, oiuka ta zantzoka zebiltzan danak ara ta onera uriño politean. Geroago ta gorago zijoan, ondorengo, iskanbilla.

Irutaerdiatarako jendez gañezka agiri zan Zarautztik Getarira dijoan itxasertz-bitarte dana. Ikusgarria zan, agian, eguzkiaren dirdaietara, jendetza ugari aren ibillia! Baserritarren jantzi ilunen ondoan, begien ziztagarri ziran neskatxen soñeko zuri-gorriak. Bizkarra zirikatu dioten sugea bezela luzatzen zan biurraldika ta buztan-ikaraka gelditu gabe, Zarautztik Getarira bitarte-ko erreskada luzea itxasburuko bide zabalean.

Apain eta kilikagarri zijoazen neskatxak, egun zoragarri artan, begietatik dirdai-jario. Txukun eta egoki jetsi ziran baserrietako mutil gazteak. Udalditarrak ere ikusmiña ase nai zuen nolabait. Batzuk, jauregietako egurastokietako gerizpe atsegiñetik, begirariz; besteak, lurruntzietatik urreago ikusi nai zuen indar-neurketa arrigarri ura; beste norbaitzuk, berriz, erri xea-ren nardarik etzuenak, jendartean nastuta, oartuko zituen apustuaren goraberak.

Ordua urreratu-ala, itxasoak berak zegian baño aundiagoa zan jendeak zerabilkin zalaparta ta iskanbilla. Orrelaxe ibilli oi dira udaburuan erleontzitik igesegin duen erle-mulko aztoatuak,

darabilkien ibillian etengabeko burrunba-otsa dariela.

Laurak baño lentxeago azaldu zan Balendin portura bere lagunakin. Lurrun-ontzi batek eraman zitun danak andik Mollarriko mugaraño. Jokalariak ontzitzora jauzi egin zuen unean, usaldra zuriak egaldia jaso zula zirudin itxasertze-ko luzera osoan eta aizean ego-ikaraka gelditu. Begira zegozkien emakumeen agurra zan; esku-zapiñoa dantzatzuz bialtzen zien jokalariai agur beroa. Gizonezkoak, berriz, txaloka artu zituen arraunlariak.

Leendik oitua zegon Balendin ikusle askoen aurrean jokatzen; baño, egia esan, etzuan egundo biotzean nabari araingo zarrazta zorrotzik. Ogei milla gizakume zegozkien begira, zoraturik, esku-zartaka ta agurka. Nornairen biotzondoari erasateko laingoa ba-zan ikusgai uaxe!

Bereala gaintitu zun, ordea, biozkada; ta, ikusleak eskuak zartaka zerabiltzkien bitartean, ontzitzora jauzi egin bezain laster, zeramakin jakea eranzten asi zan geldiro. Makutsik jarri zanean, alkondara zuriaren besoalde bilduetatik beso kiriotsu ta kozkordunak azaldu zitzaizkon

gizaseme indartsuari. Ua zan gizon ikusgarria! Galtzairuan taupaka landuak zirudien beso ariek. Bizkarraldean, berriz, aizkolariak pagoburuan zaplainka ebaki dun besangaondoaren antzera zabilzkion sorbalda-egalak arraunak eskuratu zituanean. Zerk erasan lezakion gizon ari? Mollarriko arkaitzak bezain tinko iraungo zun itxasoarekiko burrukan ere.

Lana bear bezela neurtzeko, erloju bat eman nai izan zion Agerrek; baña ara zer erantzun zion mutillak:

—Ez degu erlojuaren bearrik. Irabazten ezpa'degu, eziñak eragotzi digulako izango da; ez aikomaikoetan ibilli geralako.

Arraunak eskuetan zituala, irtetzeko zantzua-
ren zai zegon bitartean, odola irakitan zebilkion,
sua bezain kiskalgarri, zainetan; egoneziñak
zulatzen zion biziki bularpea. Burrukaldia lenbailen
asteko eztenka zebilkion barrualdea. Alaxe
aztakatzen du lurra, agoko jarriberria agin-
artean karrazkatuz, ezlariaren eupatekoa entzun
zai dagon zaldi eziberriak. Apirkako basarteetan
basauntza sendu dun leoiari ere, ua begiztatu
arte, orroa dario berolaxe barrualdetik zulagarri.

Ontziaren gibelean zutik zegon, berriz, Txandresen semea, Balendinen begiratupean erdi-zoraturik. Zezen burrukalariaren ondoan zekor jaioberria egon oi dan bezelaxe zegoan biotz-ikaraka, alako indar-neurketetan oitugabeko mutila. Biotz-dardara zemaioen gazteari ainbesteko txaloak eta gorakak.

Etzan berealakoan eldu ordua. Su-ziri bat izan zan apustua asteko zantzua. Eztanda entzun zuanakin batean, zelaian luzaroan geldituka egon dan ugalde izugarria gainbera oldartzen dan bezelaxe, ideki ziozkan atear indarrari alderen alde Balendinek; eta, aurreko zear-aulkian oña tinkaturik, burua atzealdera kakotuz, gerria biurra bezain bigun, begien ikusgarri izan zan, agian, mutilaren lenengo indarkaldia. Krakateko lazkarra egin zun ontziak indarraren iraduari erantzunaz; saietseko olak zartatu zitzaizkola zirudin. Kurrinka legorra zegien arraunak ere espartzuzko eraztunaren igortzian. Ustegabe saietsean eztenkatu duten idi nagia bezela asi zan lenengoz ontzia alderoka; baña laugarren arraun-ukaldirako, muturra zuzenduta, zisne bat

bezain txairo zijoan ugiñen gandarretik gandar-
rera jauzika.

Ermo lotu zitzaion Joxe ere bere lanari. Atza-
parretatik aragi-zatia kendu nai dioten katu asa-
rreak bezela erantsi ziozkan eskuak arraun astu-
nari. Gerria biurraldikatuz, zegian indarraldi
estuan, besoak eta atzamarrak antxe bertan utzi
bear zitula zirudin. Zaila zan, ordea, mutilla;
iraunekoa ta kiriotsua. Baña, azkenerako, inda-
rrak agortuta gelditu etzeitean gizagajoa, Balen-
dinek oiugin zion:

—Etzeukagu orrenbesteren bearrik. Indarrak
ondo neurtzen ezpa'dituk, lerreginda geldituko
aiz geiago eziñik.

Bost minutu bete zituenerako, ibilli bizkorra
egotzi zioten ontziari. Berdiña ta neurrizkoa,
orratio. Bizitza guztian arraun-lanetan ibilliaren
antzekoa zan Balendinen arraunkada. Zitalki
dardarazten zuen noizbeinka saietsetik ontzia
aizealdiak arrotutako ugin-pirrinta zuriak; baña,
izurdearen antzen, gañetik jauzi eginda, zorrozki
zulatzen zun muturrez ur-mendia ta itxas-azpiko
indarra gainditzen. Ua zan buruz jokatzea! Ua

zan arraunaldi ikusgarria! Krak, krak, krak. Neurkiro zeramazkin Balendinek arraunaldi sendoak.

Ondartzaren muga gainditu zuen garaian, Agerreren zantzoak zetozkien aldizka belarrieta-raño. Lurrun-ontzian zijoakien Lopategiko Agustinekin atzealdetik jarraika.

—Ekin mutillak! Ori dek sasoia! Eeeeeup, —
oiu zegien arien gogoia sutu ta biotzari eutsi naiez.

Zirkiñik egin ere gabe zegozkien begira lurraldetik jendaldeak, arriturik eta ao-zabalka. Ikusi al-zuen egundo ua baño ikusgai ederragorik? Ontzibarruan amairu gizon arraunka dijoazenean baño askozaz ere ikusgarriagoa zan zeingeiagoka arrigarri ura. Gezurra zirudin legorraldeko gizon batek ain gainbera ta begien ikusgarri erabilli al-izatea alako ontzi zar astun eta nagia. Etzitzaion iñori damutu, arraietan, ikusgai artaraxe joana!

Izan ere, zintzo ta buru-makur zijoan ontzia arraunaldi indartsuen mendean, uztarriaren atzetik soroan ildoan urratzen dun goldea bezela bere bidetik okertu gabe, zuzen eta labain. Alde-roka noizbait asten ba'zan, bereala zuzentzen

zion Joxek muturra ta ibillia esiratzen, Getariko mugara begiz-begi.

Txint batean gaintitu zuen Barbare donearen mendixka; eta Getariko Andon donearen ugartetxoa begiztatu-garaian, amar minutuko bidea egiteko zeukela irudi zitzaionean, Balendinek deadar zorrotza egin zion bere lagunari:

—Ekin oraintxe, Joxe; gurea dek apustua-ta!

Jauzi bizkorrez jeiki zan Balendin jarrita zegoan aulkitik; josi gogor ontziaren solairuan eskuko oña; tinkatu aurreko aulkian ezkerrekoa, ta ene Jesus, ordurako nekatur izango zala uste zuenak, ezetz bikaña artu zuen. Ba-zuen, noski, zergatik arritu.

Bere lanak ezari-ezarian egiten oitua zan Balendin. Nork eta noiz igarri arek zegian indarraldiaren jaso? Oraingoan, orde, txantxetak eta badaezpadakoak alderatuta, alde zabaldu ziozkan atear indarrari. Geroago ta zailuago zeramazkin arraunaldiak. Indarraldi bakoitzean, burua makurtuta, zulatzen zun ontziak ur-sailla. Zailu, labur, giar, indartsu zerabiltzkin ukaldiak.

Tximista bezela sartu ziran arraunlariak Getariko mugara. Ua zan, ua, marka ikusgarria mutil ariek agin zuena! Arrituta zeuden epai-maikoak ere. Nork ausi zezakean, naiz arrantzalerik oituen izan, ariek egin zuen marka? Ogeta bost minutun bete zuen orduerdirako zeuken eginbearra.

Mugako galartzua urratu zuenean, zantzoka, oiuka ta orroaka artu zuen ikusle zoratuak apustuaren azkena. Ariek ziran txaloak eta gorakak! Bost minutuz esku-zapiñoak astinduz iraun zuen emakumeak agurka. Atsegin-malkoak ere ixurizituen batek baño geiagok ikusgai kilikagarriaren aurrean.

Besarkada maitekorra eman zien Agerrek arraunlariari, lurrun-ontzira urbildu ziranean.

—Ez dek itxasalde guztian zuen marka ausiko lukeanik. Ederki jokatu zerate.

Izerdia oztu etzitzakien, ispirituz igortzi zien geldiro ta arretaz Agerrek bizkarraldea ta bulargaña; ta, jantziak aldatu ondoren, ango jendearen agurtubearrak eta eskukaldiak eragoztearren, Zumaiara begira jarri zuen lurrunontziaren muturra.

Naiago zukean Lopategiko Agustinek arratsalde uaxe Getariko Matxinen sagardotegian egitea; ezpai zitun aurreko igandeaz gero ikusi Yolandaren begi ziztagarriak. Baña egun bategatik ez al-zan maitasunez gaxotuko; eta, bere lagunen iritziari burua makurtuz, eroapenez, Zumaiara joan ziran apustu-egunaren garaikuntza, zegokionez, aundiro ospatzera.

X

ZORTZI TA ERDIAK

Eta, oraindiao, ezeren zantzurik ez!

Alai-irrintzia ta parre-karkara noranai zabalduz zebillen gizona zan Antzuela eskale zarpilla, naiz itxas-errietan, naiz legorraldean. Okaranak bezelako ozkamiña egiten zuen arek kantatzen zitun bersoak; piparmiña zeramakien, berriz, aren ateraldiak. Zijoan tokira zijoala, beso-zabalik artzen zuen nunai. Eta geientsuenean, aren joan-agurra, atsegiñezko zerbait aosapaiari kentzea bezela artzen zuen baserritarrak. Ain gogoko zitzaien aren mintzaera.

Zitoren aginduakin Zarautztik irten zan egun artan bertan, illunabarraren atsegiñean, Aizarnako kaletik jaiotzen dan gurdibide arritsuan gora dijoa eskale zarrastakoa bere oñetako erdi-urra-
tuak nekez arrastakatuz.

Errekondoko itzalpe batean egona degu orainarte, bideetan bildutako artxintxarrak oñetan

atera dizkoen erremiñak uretan ezkotzen. Baña, illuntze-aurreak atera dun aizetxo bigunak eraginda, zuaizburuak kulunkan maite-murmurioka alkarrizketan asi diran garaian suspertu da. Sargori-egunetako illunabarretan basopetik pirurika irtetzen diran eltxoen ziztada zorrotzak astindu dioe nagialdia eta berriro ere maldarrari lotu zaio bidetxigorretatik zear; eta gero gurdibideari ekin dio.

Goizeko argiurratzeari ezetzik, eguzkiaren etziteari ere azken-agur ozena dagioe bizidun geienak. Bakoitzak bere erara eragiten dio mintzo-maratillari. Galeperrak galsorotik pospolinka; saraspetik kirrinka latzez txitxarrak; ego-xirxirka kirkirak belarditik; rraka-rraka, beriz, igelak osiñaldetik. Piztitzarrak ere zitalduta ibiltzen dira garai ontan sargori-giroan. Ziztu larria dagie sugeak errekondoan. Artzuloetan agiñak zorrotzen diardue basakatuak, azeriak eta basatxakurak illunpearen zai, geroxeago ollotegitik ollandarik ederrena edo bordatik ardirik otxanena lapurkatzeko.

Eskalea maldar gora atsanka dijoala ikusi orduko, dei dagioe baserritarrak soroetatik eta

belardietatik zurruta-eskeinka. Gurdian belar igartua daramakin itzaiak; sokorrak zartaka xeezen ari dan neskatxak; txerrientzako pagotxa ebakitzen dun agureak; abereak eradatera daramazkianak; buruxka-biltzalleak; txerri-zaitzalleak, eskalea begiztatu orduko, tink dagie danak arek lekartzkieken berrien jakinmiñez. Arek, ordea, gaur, oituraz beste, agur laisterra eginda, bideari ekiten dio berriro zintzo. Aren azkarbearra oarturik, jaulkitzen dioe:

—Zer demorrio darabilkizu, Antzuela, orren lenbailenka ta laisterka ibiltzeko?

—Ez al-dakizue, ba, zer darabilkidan? Ara! Zearo aberastu nauk eta an goiko tontor artantxe biar goizerako jauregi eder bat egiteko asmoak neramakik onen arin.

Eskale maltzurraren erantzuna entzunik, belarriondoari azka ekiten diote baserritarrak; ezpai due egundo ikusi araingo lenbailenkan eskale zarra. Beti zabalkiro eta beti lasai dabillen gizona da. Jumm...! Zer demorrio ete-zarabilkik Antzuela gaizto orrek...?

Saguzarrak egaldi okerra eraikitzen duen garaian iritsi zan Antzuela eskalea Lasturretako

zelaira. Gurditik belar-ondua ustu ta zabaltzen ari ziran une artan iru mutil gazte. Leunda, Zepadi eta Berraondo baso-mutillak ziran. Gurdi-gañean zegoanak eman-ala, besamenka barrea-tzen zuen ondoan beste biak. Usai gozoa zerion ondutako belar igarrari.

Eskuiko saillean, berriz, egun osoan eguzkitan egondako artille garbituak biltzen ari zan emakume bat. Lastaira biguna egiteko berebizikoa zan artille garbi ura! Astakumeakin jolasean zebiltzan, andiko aldean, Lasturretako umekondoak. Zalko jarri nai zitzaizkion mutilkoak bizkarran abere gazteari; baña saiets-biurrika ta ostikoka erasotzen zien arek. Aldapa-beera txinbulika iges egiten zioten olakoetan umekondo biurriak parrezka ta oiuka.

Eskalea azaldu zan garaian, atadian eserita, esku-zapi polit bat josten ari zan Libe; Malentxo, berriz, irakurtzen. Agure gizagajoa ointopoka urreratuz zijoakien bitartean, irriparka zegozkion anderetxo biak begira; baña ariengana ondoratu baño lentxeago, aspaldiko adiskide izan bai'litu, agur maitekorra egin zien.

—Gabon dezatela Dorronsoroko erregintxo ederrak, oiugin zien.

—Gabon, Antzuela ospetsua, erantzun zion Libek. Ikusten dedanez, beti bezin irrilari ta axelari dirauzu oraindio ere. Baña, nolatan asmatu dezu nungoak geran?

—Bai al-da, noski, Gipuzkoa osoan nik ezagutuko ez nukeanik iñor? Nere begininiai noizpait azaldu zaiena, etzaie egundo itzaliko. Are gutxia-go, berriz, Dorronsoroko alaben pareko emakumetxoak.

—Ja, ja! Alproja gaiztoa zera, orraatik, Antzuela...!

Laster irten zan atadira Mari Joxepa etxeko-andrea, eskalearen itzotsera ta, legezko agurra-
ren ondoren, txarroka bat ardao atera zion. Edari gozoa edontzitik noizbeinka zurrutatzen zun bitartean, atera zioten aulkian eserita, zekizkin berriak jaulki zitun agureak egoki ta entzungarri. Aldapa-gorako ibilli neketsua amaituta, atsegin zitzaion, benetan, angoxe egona! Esku-atsegin-ka zetorkion aurpegi kiskalduari iñularreko aize biguña.

Ontan, ordea, alkarrizketan ari ziralda, andiko aldean jolasean zebiltzan mutikoetako bat astoak bizkarretik jaurti zun eta, sudurretik odola barbarka zeriola, lurrean auspez gelditu zuen negarrez karrasika. Eskuartearen zerabilkin lana utzita, mutiko zaurituari laguntzera joan zuen Libe laisterka. Lurretik lastanka jasota, iturrira eramanean zun aurpegiko zikiñak garbitu ta odol-jarioa geldieraztera.

Egundoko zoria zetorkion orduantxe bidera Antzuela erneari Zitoren agindua betetzeko. Libe mutikoekin iturrira zijoan bitartean, etzegokiela iñor begira-ta, bizkor atera zuen sakeletik karta zimurtua ta Malentxori eskeiniz, esan zion:

—Zuretzako eman dit karta au Zarautzko Zitok. Biar bertan eramanean nai nioke erantzuna.

Dirdir laisterrak argitu ziozkan begininiak Malentxori. Eskaleak zemaion karta artuta, bularrarteko xokondoan sartu zuen arinka, norbaitek ikusi zezakealakoan.

Apalondoan, etxe-billera artako gazteak, neska ta mutil, kantapapel batzuen eske joan zitzaizkon Antzuelari.

—Bertso berririk bai al-dezu? —itaundu zioen.

Ona emen aste ontan erten diranak. Datorren igandean Zarautzen izango dan apustua dek bertso orien gai.

Eta, Gipuzkoako bertsolaririk ospatsuenak erabiltzen duen lelo jakiñari bersoak maillatuz, auots ederrez, argi ta geldiro, asi zan agurea Zarautzko apustuaretzazkoak kantatzen. Erne zegozkion entzuleak, leloa ta bertsoak ondo ikasi nairik. Ordea, arek bezain egoki kantatzeko, auots garbiaz gañera, kantari ikasia izan bear zitakian.

Apalondoan logelara zijoala entzun zitun Libek Antzuelaren bertso berriak. Oi ez bezela belarriak zorrozturik, erdiko baolkoean gelditu zan kantariak zionari adi-adi. Gizaseme bikaintzat, arraunlari egokitzat, mutil zintzotzat goratzen zuen bertsoak Balendin. Mutil arentzako onespentak entzunik, pilpilka zebilkion Libe ederrari biotza bularpean.

Arrigarriak dira, orratio, maite-jokoak. Liberi biotzondoa taupaka zebilkion unean bertan, Zitoren karta irakurtzen ari zan Malentxo ezkutuka. Ari bai zebilkiola taupaka eroetan, lertubearean, biozpea, irakur-bitartean! Luzaroan ega-

rriz itobearrean egonda, ezpañetara ur-txirrista urreratu diotenaren antzera. Bein eta berriro irakurri ta ausnartu zituan Zitorenak. Bereala amaitu arren, araxe zijoazkion berriro begiak eta amargarren aldiz geldiro milizkatu zitun gogoan albista kilikagarriak. Ara zer zion Zitok bere kartan:

«Nere Malentxo maite: Emendik ain ustegabe ezkutatu zitzaidan ezkeru, zurekikoen jakin-ezak zoratubearrean narabil. Nola bizi niteke zu gabe, Malentxo?

»Asmatzen buru belarri ibilli arren, ez dakit zergatik utzi nazun zurekikoak aurretiagotik adierazi gabe; baña zure bizitokiaren berri izan dedanekoxe, or doakizu, mandatari onen bitartez, nere oroitzapenik kutunena. Ez det uste gure artekoak orren arduragabe etetzeko biderik eman dizudanik. Beraz, nik uste bezela, nereari erantz nai ba'ziondu, zere aginduetara daukazu mandatari ori berbera. Eman zenzakio bildurgabe zure erantzuna.

»Lenbailen ikusi nai zinduket, Malentxo. Zurekin luzaroan itzegin bearra daukat. Zure begi zoragarri orien ezta berriro millizkatu arte,

maite-egarriak erotuta narabil. Zergatik izan zaitzat orren biotz-gogor, gaixto gaixto ori?

»Zure bizitokiaren inguruan an, ezkutu batean, ez al-gentzake alkar ikusi ta itzegin? Esaidazu, arren, Malentxo, laster ikusi gindezken ala ez. Zai nagokizuke zuk nai dezun tokian eta orduan. Mandatari onek eramango nau zuk esandako tokira.

»Kezkaturik eta biotz-illunik daukazu, Malentxo zoragarri, maitale maitemindu au zure erantzunari ernari».

Liztorrak eztenka ta burrunbaka esnarazi dutena bezela gelditu zan neska maitemindua, zorabiatu rik, Zitok zesaizkonak irakurrita. Ango amar eguneko egonaldian, Zitogandik urruti, zerbait baretu zitzaion maiteberoaldia; gozatu zitzaion zerbait leengo samiñaldia. Etsipenari laster ateak idekitzeko bidean zan orduantxe; ezpai'ta biotz-beroaldiak otxantzeko, aldia bezaingo bitartekorik. Ez da aldiak ozten ez dun labe goririk; ezta ere gozatu e'lezakean erremiñik, ez samiñaldirik. Aldia bitarteko zala, noiz edo bein itzali zitazkian Malentxoren beroaldiak.

Baña eskalearen eskutik artu zitun berriakin, leengo oroitzenak berriztatzean, liztor aztoatuen aisara, esnatu ziran Malentxoren biotzian aurreko egunetako erremiñak, egoneziñak eta ames zoroak. Barealdian ustegabe jeikitzen dan uginaldia izaten da itxasoan ere gaiztoena.

Ordea, orrelako sualdietan, gogo goibel bai lauso eta biotza irakitan dabilzanean, galgarriak izaten dira geienean artutako erabakiak. Kiskaldiak sutu zion berriro Malentxori biotza gau artan. Oeratu zanean, sugarra zebilkion zainetan erregarri. Olakoetan, ordea, kezkaean edo maiteberoaldian ondatuta oeratu danak, ez du ogean atsedetik eta baretasunik aurkituko. Okerago dana, oraindiko, len baño ere bizikiago ta zorrotzago ziztatuko ta zulatuko du biotzean irudimenak aizatutako sua. Oi ez bezelako argi berroz jantzita agertuko zaizko olakoetan irudipenari giza-irudi ezagunak.

Jira ta bira ogean loak artu eziñik zebillen bitartean, iñoiz baño ere zorrotzago ta biziago arnasatzen ziozkan irudipenak azkenengo urteetako ibilliak eta irudiak. Ziztagarriak ziran, benetan, buruak zekarzkion oroitzenak! Sorgin-

aldra zorabiatuen antzera zetorkion leengo gertakizunak ijiji ta oiualdi zoroetan. Eta bai gainbera zeragioela oroitzapen ariek neskañoaren biotzari! Zartaka bizian zebiltzkion buru-barrenean odol-taupadak ere.

Donostiko «La Perla»ko dantzatokiko solairu dirdaitsuan oiñak irristaka labainduz, alkar-loturik, irrika ta oiuka zijoazkion irudipenean neska-mutil bikoteak, buruak lorez jantzita, parre-algarak eta atsegin-irrintziak barreatuz, azkengabeko atsegin-eztai nasigarrian bezela. Danak zijoazen alai eta zoriontsu maitale maiteberotuen besoetan. Etzeramakin iñork biotzean illunik, ez kezkarik, ez samiñik. Ua zan atsegiña! Ua zan poza! Irriparrea zerien danai ezpainondoetatik.

Dantzaldi arien ondoren, Zitorekiko ezkutu-biliak zetortzkion urrengo burura. Argiro gogoratzen zitzaion seskadiko itzalpean ain kutunki egon ziran egun zoragarri ura. Suzkoa izan bai'litz bezela erretzen zun oraindio mutillak, seskar-tean, ustegabe emandako mosuak. Antxe, matailburuan, egotzi zion musu erretzalleak.

Eta onela, bata bestearen atzetik irudipen zear oroitzapenak zijoazkiola, batbateko ikaral-

diak jo zun neskatxaren soña maindirape epelean. Esnaldi kiskalgarri artan, lorik egin eziñik, besoak luzatuta, nagia ateratzen zun noizbeinka soina biurraldikatuz. Sua zebilkion buruan, sua zañetan, sua bularrarte gurian pilpilka.

Noizik bein, orratio, ezkurak mokokatzen ari dan uso-aldrak, eiztariaren aurrean izuturik, egaldia jasotzen dun bezelaxe, igesegiten zioten bildurrikaraz irudipeneko irudiak; baño andik geroxeago, egaldia berriro eratxiz, len baño ere amorratuago ta zorrotzago erasotzen zioten mokoka biotzondoari.

Konturatu zaneko, gaberditik aurrera zijoan gaba. Kukurruku ozena egin zun une artan Lasturretako oillarrak oillotegian eta, geroxeago, etxez-etxe erantzun zioten beste askok aren kantuari, zeingeiagoka asarrean.

Gela batean egiten zuen lo aizpa biak eta, eguna goizalderatu zan garaian, bere aizpa jira ta bira esnari zebillela oarturik, galdegin zion Libek:

—Zerbait gertatzen al zain, Malentxo?

—Ez. Gaurko sargori onekin ezin diñat lorik egin, erantzun zion arek.

Eta berrogei aldizko biraldia egin ondoren, bere gogo-ausnarreari ekin zion berriro. Baña, andik asko luzatu gabe, Liberen arnas-otsa entzun irudi zitzaionean, lo zegoalakoan, soinga-ñeko mea sorbalda-gañean jarrita, leiora erten zan ixilka basoaldeko aize ozkirriaren billa; ta, egon-eziñik, arnasa ta bularra zabaldu ziozkan gauari alde-alde.

Gaugiro ederra zan. Maxio-kiñu zegioen izarrak dirdirka zerupe aderretik. Argi-lanbro zerbelean bilduta agertzen ziran illargipean mendi ta basoak. Zamorroen kantu-otsa zetorren nunaitik. Basoaldetik zijoakion usai gozoari ta aize bigunari arnasa zabalduz, amaika bider esan zun Malentxok bere kolkorako gau artan:

—Anbat nitzake zeruan biraka dabiltzan izar oriek bezin burujabe! Anbat illargia ta gau-aizea bezain etxeakoandre! Ai, nere buruaren jabe ba'nintz...!

Bere samiñaldian etzezakean oartu, nunbait, neska maiteminduak illargia, izarrak eta aizea ere, ez dabiltzala legegabe ta ajolagabe nunaitik eren aisara. Jaungoikoaren beatzetik zintzilika dabiltzala bizidun eta bizigabeko danak; eta,

Arek jarritako legetik irten naiko ba'lue, ondamedira ta triskantzara lijoazkeala berealaxe. Aren legera ibilli bearra daukela, Arengandik jaiotako danak. Beste izaki guztiak bezelaxe, berdin gizakumeak ere. Aren legetik igesegiteak, goiz edo berandu, norbere buruarentzat kaltea ta zigorra erakarriko lukeala.

Baña, nork aizatu zentzun au ogei urteko neska maiteminduari maiteberoaldian dardarrikaldika zebillenean? Alaxe, liztorrak buruan burrunbaka eta biotzean sukarra irakitan zebiltzkiola, eldu zitzaion egunsentia. Argiurretze zoragarria izan zan egun artakoa; baña, aren begiak etzioten egin, bear bezelako agurrik araingo ikusgai lilluragarriari. Begiak lauso ta burua gundu zeuzkan, ba, gaxoak!

Gaualdi luze ta aspergarriak noizpait goizari bidea eman zionean, seiretan, oe-jantziak alde batera jaurtita, jauzi egin zun ogetik neskak, begitartera erabaki zeatza sartu zaionaren jasez. Ispilluaren aurrean urrezko adats ugaria orraztu ta esku-atseginkatzen zun bitartean, dantzaldi nasigarria zebilkioen berriro buruan esnaldiko giza-irudiak. Zearo itzali zitzaion buruan aurreko

astean bere osaba Martini emandako eskein- itza. Aurreko egunetako etsipenaren ondoren, barealdiaren atzetik datorren aizealdi zakarrak bezela, maiteberoaldi gartsuak eragin zion. Goizeko txukundubearrak bukatuta, zazpiretan irten zan etxetik neska maitemindua.

Loalditik suspertuta zebillen ordurako Antzuela ere. Goiztarra zan eskalea. Sei orduko loa egin ezkeru, etzuan egundaño geiagoren bearrik izaten. Marandioko sapaian eman zioten lastaira biguna utzita, par-irria zeriola azaldu zan. Etzion ari nekeak erasaten egundo. Etzioten atergabeko ibilliak iñolaz ere biozpetik zirika zijokion poza uxatuko. Iñularrean oeratu bezelaxe, jeikitzen zan urrengo goizean, naiz orzkarbi, naiz goibel egon. Munduko urre dana baño obea zan aren biotzondoko alaitasuna, arrano pola!

Malentxo logelatik ertenda, zurubietatik beera jetsi zaneke, gosari txikia egiten ari zan eskale goiztarra. Kafe utsetan ogi-zatiak beratu- ta jaten zitun. Gosaria bukatzeko, ez kendu, orratio, agure zarkiñari, biotzari irri-gogoia noz- nai damaion pattarra. Orixe izaten zan bere goi- zeroko gosari txikia.

Maitekero agurtu zun Malentxok eskalea ta, ardandegian bakarrik gelditu ziran unetxo batean, ixilka belarrira jaulki zion:

—Atoz bereala Eperzelaitako basora ta antxe amango dizut erantzuna.

Atadin jolasean zebillen neskato bateri esku-tik elduta, Eperzelaitako bidea artu zun geroxeago Malentxok. Baita ere Antzuelak andik asko luzatu gabe. Bidearen okerrune ezkutu batean, pagadi baten babesean, zegokion zai. Ona emen neska zorabilduak Zitorentzat eman zion agin-dua.

—Esaiozu, datorren ostegunean, toki ontan-
txe bertan, illun-aurrean, itxogingo diodala;
baña ez dedilla etorri iñolaz ere zortzirak baño
beranduago. Bide-erakusletzaz zu ba'zakarki,
ementxe bertan egongo nazaizue zai.

Agindu au eman orduko, ezkutu-izketa artan
norbaitek oartu zitzazkealakoan, agur laisterra
egin alkarri eta bakoitzak bere bideari ekin zion.
Pagadiak eta garamendiak gainbera zearkatuz,
Lasaora jetsi zan Antzuela. Bidezabalari lotu
zitzaion an Zarautzera begira. Beste egunetako
marmarrak eta kantu-otsak utzita, arnas batean

zijoan egiñalan eskalea, bere lanaren sariaren usaira, ordu jakiñean askan janaria jartzen dioten zaldia bezela. Urrearen usaiak zoratuta zera-makin. Bere eskuetan, ordea, galbai-ipurdian ura bezela zan dirua. Mundu guztiko urreagatik etzukean salduko bere burujabetasuna.

Etsi-etsian zebillen eskean. Bere zurrutarako naiko dirua bildu ezkerro, etzuan izaten arek erregearen berberaren gutziarik. Zoriontsu bizi zan gizona. Urte batzuk gutxiago izan ba'litu...!

Zarautzen egin zitun urrengo egunak. An ikusi zun Balendinen jokaldia. Apustu arrigarri artan bildutako albistak egoki ta entzungarri jaulkiko zitun, gero, zebillen bideetan eta legorraldeko baserritarrak, arriturik eta atsegiñez beteta, entzungo zizkoen urrengo astean entzute aundiko egite ariek.

* * *

Baña eskaleari utzita, gijoazkion berriro Malentxori bidera; arekikoak soilki baitarabiltzki-gu oraingoan.

Eskaleak oin zarpillak bidez bide arrastakatzzen zitun bitartean, iparbeltzak alderoka dargion ontzitzoa bezela urbildu zan neskatxa etxera, biozparrengo ekaitzaldiaren mendean. Egun aretako iñularrerako, ordea, izadi osoa illunbean kuzkurtu zan garaian, gabeko esnaldien nekeak eta bularpeko ekaitzaren eztenkak aulaldi larri a sortu zioten. Illunabarreko itundasunak aizatuta, gogo-txokora bildu zan ausnarka ta, goialdetik zetorkion argialdian, bere egiteak aztertzen asi. Itundasuna ta baretasuna aizatu zion biozpean aldartearen aldaaldi arek. Argialdi orietan buruzkatzen ditu gizonak ondoen bere egiteak. Gogalgien ordua datorkigunean.

Aurregun gabeko irudien orde, berri batzuk ziztatzen zioten orain irudipena. Amaren irudia zetorkion lenengoz burura. Beretzat beti ain maitekor, ain samur eta ain eztitsu izan zan ama! Asarre-garaian ere sekula gogorkerik erabilli etzuna; laztanera ta eztira biotza gainbera zijoa-kiona; alabakaitik nekerik aundienak pozkiro jasango zitukeana. Bere alaba gazteenaren biotzondoa ikusi izan ba'lu gau artan, biozmiñez

ilgo zitakian; gogo-oñazeak galduko zukean emakume gaxoa!

Osaba Martinen irudia zetorkion urrengo. Aitak bezelaxe maite izan zitun beti arek. Errazki makurtzen zan beti illoben eskarietara; ariei on-egiten alegindu izan zan noiznai arretaz. Alabearrez, okerren bat esiratu bearra zetorkionean ere, maitekiro ta bigun jokatuko zan ura. Biotz zabala ta otxana zun aientzat osabak. Utsa adiñeko naigabea artuko zukean arek ere, illobaren oraingo ibillien berri izango ba'lu!

Buru-barnean zebiltzkion pentsamenduak oneraño iritsi zitzaizkonean, biozkada samurrari ateak zabaldua, negarrak lausotu ziozkan begiak Malentxori. Izugarria zan, benetan, biozpean zerabilkin burruka! Alde batetik damua zetorkion ziztaka ta deika; bestaldetik, berriz, Zitori emandako itza ez betetzekotan, biotzaren urratu ta odoldubearrak ikaratzen zuen biziki. Mutil arekiko ibilliak kilikatzen zioten biotza. Larrialdi samiña zan, agian, neskarena.

* * *

Aurrera zijoan udaldia. Erabateko legor-girotari noizbait aurea artu zion, orratio, euriteak. Ez, alaere, nekazariak nai bezin azkar. Illabeteke legortearen ondoren, lañoz jantzita azaldu ziran mendiak astelen goizean. Aizearen arnasari erantzunaz aruntza ta onuntza zebiltzan, belardin larratzen diran artaldean antzera, mendiburuetako artillezko laño-txano zurixkak. Lanbroxea izurtzen zuen nunai atergabe. Negarra zeren mendiai, pagadiai ata artosoroai. Negarraldi astunean bildu zan luzaro izadi osoa. Lañoak ixuri-ala, ordea, bereala txukatzen zun lur legor egarrituak, euri-jarioa.

Etxetik irten gabe egon ziran eguna arietan aizpa biak. Libek ba-zekin astia nola eman olako egunetan. Edozein zeregiñi lotzen ziozkan gogotik eskuak. Mari Joxeparen semetxoak txukuntzen; sukaldeko lanetan; josketan. Etxezalea zan emakumetxo ura. Atsegiñez zijoazkion eskuak etxeko zeregiñetara.

Luzeak eta aspergarriak ziran, berriz, Malentxorentzat egun ariek, goizetik gaberaño negarra ta lanbroa atergabe zeriela. Etzekarren ez argirik, ez eguzkirik. Euripean ondatu zala zirur-

din dana. Astia nolabait ematearren, lanari ekiten zionean ere, aurki gogaitzen zan. Eskuarteko lana utzita, leiora zijoan bereala. Etxeaurreko estalpean billatu zuen ollo tximukatuak babesa eurialdian eta ango legorrean luma-arrotzen ari ziran mokoka etengabe. Ordea, Malentxoren begiak etzuen aurrekorik ezer ikusten. Beste norabait, urrutira, zijoazkion irudipeneko begiak. Barrunbeko ikusgaiari aogozoka bai'lebillian, erdi-toteldurik, tinkatzen zan luzaroan, amesetan bezela. Etzetorren berealakoan osteguna! Zitori itzemandako eguna urreratu-ala, geroago ta urduriago, geroago ta kezkatiago zebilen neska gaxoa!

Ontan, ordea, gutxienez uste zuenean, osaba Martin azaldu zitzaien ustegabe astearte goizean. Albista txarrak zeramazkin. Maxkal omen zebillen ama egun arietan eta, egun batzuez jeikita iraun arren, oeratu bearra izan omen zun, azkenik. Luzaroko gaxoaldia izan zitakealakoan, Liberen billa joan zan, egun batzuetarako ba'darik ere, gaxoaldia zertara zijoan ikusi arte, etxean laguntzalle baten bear aundia zuela-ta. Bereala gertu zan Libe amari laguntzera joateko.

Etxera orduko, sutsu ekingo zion lanari. Aren esku oituak egoki erabilliko zituen, bai, Dorron-soroko gauzak.

Artean egun batzuez an tinkatu zedilla eskatu zion osaba Martinek Malentxori. Etsi-etsian gelditu zan neska. Etzuan negarrik egin; etzan aren agotik, ez aienerik eta ez zirimolik irten. Illobaren alaingo etsipena ikusita, arrituta zegon osaba. Etzion neskak etxera joatekorik aitatu ere. Are geiago oraindio. Aizpa ta osaba gurdibideko sasiondoetan izkutatu ziran arte, ezpainondoetatik irriparrea zeriola jardun zitzaien eskuzapiakin agurka. Arrigarria zan, benetan, apaizarentzat bere illobaren aldakuntza bakana! Pozgarri izan zitzaion aren etsipena; ezpai'zekin aren barrualdean zebiltzanetakorik ezer.

Iritsi zan, azkenik, osteguna. Oi ez bezelako sukarra ta dirdaia zeriola jeiki zan Malentxo egun artan ogetik. Ara joan zan ezkerro, etzuen barrundatu izan Lasturretakoak iñoiz alain berritsu ta nasizale; gaiztoaldiak aizatuta zebillela zirudin. Jeiki ta bereala, Mari Joxeparen aurtxo batekin egin zun oztopo. Artu zun besoartean umea-ta, eman ziozkan musuakin eta igortziakin, minoiu-

ka ta negarrez jarri zun gaxoa. Atadin etzanda lo zegon zakurrari ere belarrietatik eldu zion geroxeago ta kalixkaz bialdu zun etzanda zegoan tokitik. Astakumeari zegokion urrengo txanda. An urrean jolasean zebillela, ustegabe atzeman nai izan zun; arek, ordea, ostikoka ta jauzika ige-segin zion.

Alakoxea izan zan beti Malentxo. Zirikalaria, zorabiatzallea, naspilzalea. Lertutako upeletik sagardaoa bezelaxe zijoakion gainbera biotzondoko ugaldea noznai. Jolasari ekiteko gertu zegoan beti katakume jostariaren antzera. Aspalditik, ordea, etzan agertzen, bera zan bezela. Azkenengo aldi arietan etzuan erakusten bere izaera alderontzitik.

Lañoz estalita azaldu zan zerualdea ostegungoizean. Giro epela zan, ordea; eguraldia laster jasoko zun zantzurik onena. Laño urratuen arte-tik urdinune aundiak azaldu ziran eguerdirako. Arratsaldean, eguzki-erregea izan zan goialdean jaun eta jabe.

Langirorik ederrenetakoa gelditu zan arratsaldean. Orzkarbitu zaneko, bei uztartuekin irten ziran baserritarrak sorora arbi-lanetara.

Areaz garbitzen ditue tenengoz garisoroetako galtzuak eta, bildu-ala, erretzeko tarteka pillotzen larrainean bertan. Goldeaz eragiten diote gero sakonetik lurrari. Bai bear ere, gariaren ondoren lurrak ezer emango ba'du. Ainbesteraño agortzen baitizkiote gal-zuztarrak azaletiko umo-tanto guztiak azkenengo kondarretaraño-xe.

Arratsaldea erdiratu-zorian, erten zan Malentxo Eperzelaitako basoaldera. Amets-irudia bezain eder eta naro zijoan. Dizditsu ta kilikagarrri begiak. Nor maitemindu ez araingo neska zoragarriak? Ordea, buru-barneko amesak nasitua ta zorobiatua zerabilkien neska gaxoa!

Galtzarbean liburu bat eta eskuan aulki txiki bat zeramazkiala, ordutik iñular-arte astia irakurtzen emateko aitzakiakin, basopeko itzalera joan zan. Aurkitu al-izan zun tokirik ezkutuenean eserita, azpikaldeko ibarzabalean lanean ari ziranai begira jarri zan.

Uztarri bi ari ziran lanean Eperzelaitako sororan. Goikoaldetik, bei uztartuekin zerrendaka zeramakin area-lana nagusi gaztearen semerik zarrenak, lana bukatu zorian. Ala adierazten

zuen, beintzat, goenaldean tarteka agiri ziran galtzu-pilak. Beeragotik, berriz, nagusi gaztearen agindura, idi-pareak zeramakin golde astuna. Idiak ildoa zerbait okertzen zuenean, deadar garratza zegion etxejoaunak bere seme itulariari. Erabat zarrastakutzen zuten sailla itzai biak barrenaldetik asita.

Goldearen eskulekuetan eskuak tinko josita, erne zebillen nekazaria. Zintzo kakotzen zun bizkarra goldearen gain. Neke aundiko lana izan arren goldearena, eskurakoi zeramakien idi oituak lan-tresna astuna. Ibillia aldizka nagitzen zitzaienean, orratio, logaletik esnatu zitezten, akuluz zartatzen zitun arek eta; buztanari eragiñaz eta saietsa okertuz, bizkor erasotzen zioten lanari urrengo nagialdirarte. Ildoa bukatzean, soro-muturrera iristen ziranean, aldameneko saillean lanean ari ziranakin izketan gelditzen zan lipar batez nekazaria. Larrealdi bizkorra zegien olakoetan abereak bazterreko belarrean gelditue-bitartean. Aurki eten bear izaten zuen, ordea, larrea nagusiaren oiu latzera ta berriro lanari ekin bear ere. Golde-ortzez larraina urratu-ala,

txoritalde gosetiak jaisten ziran lur irauliberrira aztarrika ta mokoka zamorro ta artxoan billa.

Atzeraxeagotik, aitonak zeatzen zitun atxurrez goldeak iraulitako lur-mokor ezkoak; ezpaitira mazo-ukaldiz zeetu-errezak mokor oek, bein eguzkitara legortu ezkeru. Iru gizaldi ari ziran lanean Eperzelaitako soroan orpoz-orpo. Orain berrogei urte bezela; orain berreun urte bezela. Nork lekike noiz asi ziran gure gurasoak lan oetan? Orra or, beintzat, gure baserritarrak gizalditik gizaldira, urteoro berriztatuz, gaurdaño dakarzkiguten oiturak. Anbat litzake gaurko urirabear zoroak biotzean egundo ikutu izan ezpa'gindu! Aizea bezain burujabe ibiltzekoa dala deritzait euzkotarra. Ez al-dabil, bestela, orpozulotik erten dan ardazburua bezela, beti negar kurrinka dariola?

Idien ibilliari erantzunaz, golde-ortzak lurra ezker-eskuitara erdibikatzen zuen bitartean, basopetik begira zegokien neska maitemindua. Uztarripean burumakur dijoan idia bezela, goldearen gain makur nekazaria ikusita, arrigarri ta neurriz-aragokoa zerizkion neskak ainbesteko etsipenari ta eroapenari. Mendiarteko lur-zati

medarretan errotuta bizi ziran baserritar ariek etsi-etsian, aizealdiak sekula erasan ez dion pagoburua bezela. Etzuen aundizkien gutziarik; ez urietako bizitzaren egarririk; ez biotzean ego-neziñaren zulaturrik. Etsipen osoan bizi ziran mendiarteko zokondoetan.

Norbaitek, ordea, bizitza guztian ala bizi bearko zula esan izan ba'lio Malentxori, giltzapean betiko lotu dutena bezela, begientzako atseginbide guztiak kendu diozkatena bezela, biotz-gañean arri-konkor astuna jarri diotena bezela, arnas-artzeko aizerik ezbai'lu, arnastu eziñik itoko zitakian.

«Berdiñekoxea da, orraatik, urietako bizitza dirdaitsua! Ango atsegiña ta ango eder-bizitza zoragarria» —ziosan neskak berekautan.

Etzekin, artean, gaxoak biotz-etsipena dala gizonarentzat zorionbiderik zeatzena! Bizitzaren goraberak erakutsiko zioten, ordutik asko luzatu gabe, jakintza eder ori.

Basopeko gerizpean eserita, neskañoa gogoausnarrean ari zan bitartean, arin zijoan eguzkia bere jarlekutik gainbera labainka etzinaldera.

Konturatu zaneko, amar edo amabi oinkada gelditzen zitzaizkan mendi-muga ukitzeko. Maitasunari ateak alde-alde zabaltzeko ordua zala-koan, pilpika ta taupaka eroetan ekin zion barre-naldeak. Bizitzako atsegiñaldi guztiak baño geia-go balio zun orduerdi arek. Bere maitearen begi-ratupean zorabildurik, arekin, beste ikuslerik gabe, maitasun-iturritik nai adiña zurrutatu zezakean orduerdia. Geroago ta ariñago ta zoroago zebilzkion taupadak maitearen zai zegon bitartean.

Bien bitartean, Eperzelaitako nagusiak taka egin zun soro-erdian. Egun artako lana uzteko garaia zan, alegia! Urrengo egunerarte antxe bertan goldea utzita, askatu idiak, eta etxeondoko belardira larrera bialdu zitun eztenka. Uzta-rria, kopetakoa, ardilarrua ta ereak bizkarrean zituala etxeratu zan. Belardin larrean ari ziran bitartean, buztan-ukaldiz, ostikoz eta muturrez uxatzen zituen abereak ezpare ta eulien zulatu miñak.

Baserriaren andiko aldetik, berriz, errekaon-doan, lexibaldia garbitzen ari zan emakume bat. Arek arri-gañean zapiak zartatzen zitun bitar-

tean, errekan oñautsik zebiltzan mutilkoskoak karrasika. Antxe, erre kondoko ur-zuloan, zuten txarri-taldeak ere etzanaldirik atsegiñena.

—Jesus, ene —oiugin zun berekautan Malentxok, alako batean, luze-iritzita. —Bai berandu dabilzala! Zortzi ta erdiak dira-ta, ez da ezeren zantzurik! Zerbait izan ote-due?

Eta, barrualdetik zetorkion biozkadaren iradu-pean, egundañoko itunaldirik samiñenak gainditu zion kolkoa. Negarra zetorkion begietara. Zer ete zan bularpea ainbeste estutzen eta kezkatzen ziona? Ezpainondoetara urreratu-garaian, batbatean ezta ezkutatu dioten umekondoa baño naigabetuago gelditu zan anderetxo gaxoa. Ene Jesus! Ua naigabea! Ua zorigaitza! Nere biotz au doakabez lertzeko jaioa al-da? itaundu zun atsekabez.

Bitarte artan, gau-zapia zabaltzen ari zan zerupean. Ilundu zan ordurako zearo basopea. Aizearen arnaspean, alkar-marmarrean, zebiltzan zuaitz-ostoak eta zegizkien dantzaldietan azaltzen ziran zuriuneai zerien argitxirrista zan itzalpeko ikusbide bakarra. Araxeago, negarka zijoan errekatxoa maldar-beera zokondo-zulora.

Txio ituna zegien txoriak ere kota-garaian. Ilkantua, eriotz-kantua ixurtzen zun iñular arexek ao guztietatik. Etzan irixten beste zantzurik Malentxoren belarrietara. Ez maitearenik; ez Antzuela eskalearenik. Zergatik ez ete-ziran azaldu ara, agindu bezela?

Erdi-zoraturik, arri-konkorrez burua zanpatu diotenaren antzera, ibil-ikaraka zutitu zan eserita zegon aulkitik eta Lasturretako bidea artu zun, gau-itxalkariak egun-argia zearo itzali zuten garaian.

Itzotsak entzuten ziran ardandegian. Inguruko baserrietatik zurrutara joandako baserritarrak ziran.

Lasturretako atadira jo bearrean, ezkerreko sastondotik, baselizatxora sartu zan neska bioz-mindua ta barruko aulki batean eserita gelditu. Etzuan asko uste izan arratsaldean alakorik gertatu litzaiokenik! Zer zan ua? Maxio? Axeka...? Ala, ezbearren bat? Biozkadak zesaionez, oi ez bezelako zerbait gertatzen zan.

Ixil zegon eliz-barrua. Zirti-zarta zegin noiz-beinka argiak oliontzian eta, argiaren dardar-ikaretara, sorginen gisan, jolasean eta dantzan

zebiltzan itzalak ormetan. Aulkian eserita, erdi-zorabiatuak zegoala, argiaren ibillietara, aldareko Ama Birjiñak asarre-kiñua zegiola irudi zitzaion bein. Gero, ordea, irribarre ezta bialdu ziola. Urrena, berriz, besoetan zeukan umetxoa, andik jetsita, besozabalka zetorkiola bidera. Illundasun eta ixiltasun artan ondatuta zegoala, oiugin zun gaxoak:

«Nere lenen-maitasun gartsu onek bear bezelako erantzunik izango ezpa'lu, nere gogoaz ez da beste munduko iñorentzako izango egundakoan».

Alako batean, illunbetan bilduta zegoala, oinotsak esnatu zuen bere amesalditik. Norbaiten ibil-otsa entzun irudi zitzaion elizbarruan. Norbait sartu zan barrura. Ikaratuta zutitu zan Malentxo. Lasturretako Iñaxio zan.

—Nola zaude emen, Malentxo? —galdegin zion arek erremindata—. Gaxotu egin al-zera? Zure billa gabiltz amarrak ezkerre. Arratsaldean Eperzelaita-aldera joan zerala esan digu Jose-txok, eta, an ez aurkituta, zearo kezkatuak genbiltzan zure billa, zerbait gertatu ote-zaizun bil-

durrez. Ezpai'gendekin emen zeundenik! Gaxo al-zaude, Malentxo?

—Ez, ez —erantzun zun mintzo-dardarka—. Iñularrean sartu naiz onera ta loak artu nau. Zer ordu da?

—Amardaerdiak.

—Orren berandu...!

Baña ajolarik-eza ta ardurarik-eza erakusi naitzan arren neskak, Lasturretako argietara aurpegia azaldu zitzaionean, negar-kutsuz lausotuta agertu zan; gorrituta zeuzkan begiak. Naigabea ta atsekabea salatzen zun alde guztietatik aren joerak. Apari-bitartean, zear-begiratzen zioten Lasturretakoak; aren ezetz biribillak entzunik, orde, etziran ausartzen geiagorik zirikatzen. Alere, kezkatuta zebiltzan, benetan, Lasturretako senarremazteak gau artan. Katilluka bat esne artuta, beste ezer geiago apaldu gabe, oeratu zan Malentxo. Gaxo ete-zeguan? Gaxo-mueta asko dira. Biotzeko gaxoa zan Malentxorena. Gaxorik okerrenetakoa, noski!

Andik egun batzuetara itzuli zan Libe Lasturretara. Amaren gaitzaren larrialdia joan bezin laster, itzuli zan berriro aizparengana. Iñoiz baño

ere pozikago artu zun arek bere aizpa Zarautzko albista jakingarrietakoen bat lekarkiokelakoan. Ala zesaion, noski, biotzak; arengandik jakingo zula zerbait.

Ala izan zan ere. Aizto-muturrak aragia beze-la urratu zion barrunbea arek eramandako berriak; baña, alere, naiago izan zun aiztoaren zulatu urragarria, jakin-ezaren atergabeko ezpai illuna baño. Lasturretako atadin alkar-izketan ari zirala, mintzaldia bere arira eraman naiez, Malentxok galdetu zion bere aizpari:

—Berri asko al-dakarzkin Zarautztik?

—An gertatu danik aitagarriena, eranegun Agerreren agotik entzun nuana den. Udalditar aundikien arteko gertakizun bat. Ezkutuko jokotxe bat omen zeukenen ondartzaburuko jauregi batean eta, aurreko astean, udalditar batzuk gau-jokoan ari zirala, errizaiak sartu itunan ustegabe ta barruan zeuden guztiak atxilotu. Baña an zegon mutil gazte batek joko-diru ta jokotresnakin ezkutuko ate batetik igesegin nai izan zinan. Ordea, errizaiak tiroz zauritu ziñaten. Era-negun il omen-unan zauritu ori. Ez diñate egune-

rokoak ezer esan gertakizun orretzaz. Ixillean gorde nai izan diñate, nunbait.

—Zein ete-zan gazte zauritua?

—Udalditar bat. Ez naun orain oroitzen izenaretzaz. A! Bai. Agerrek esan zinan gazte ua «Maitearena» deitzaion jauregitxoan bizi zala bere amarekin.

—Leon Bravo...?

—Bai, bai. Orren izen bakana izanda, etzekinat nola aztu zaidan ain azkar. Baña, nolatan ekinan izen ori?

Ontan, ordea, aizpari begiratu zionean, legamia bezelaxe zurbilkatuta oartu zun. Konorte gabe bezela gelditu zan, lurrera oldartzeko zorian. Erori ere egingo zitakian Libek eutsi ezpa'lio. Izerdi-tanta mardulak zerizkion aurpegi-zear ikaretan. Larrialdi zulagarriak eragin zion, nunbait, barrualdetik neska errukarriari. Bere aizparen ustegabeko larrialdi ua ikusirik, Mari Joxepari otsegitera zijoan Libe; baña une artantxe berebaitaratu zan eta oiu erdiragarrietan negar-zotinari ideki ziozkan alde-alde atepak dardar-ikaraka bizian.

—Baña, Malentxo, zer gertatu zain ain batbatean gaizkitzeko? Ezaguna al-unan mutil ori, Malentxo?

Eta minartu dun umetxoa izan bai'litz, maitekiro laztandu ta musukatzen zun Libek bere aizpa biozmindua. Joan zitzaion, noizpait, lenengo zotiñaldi zorrotza, eta, zerbait baretu zanean, leengo galdera berbera egin zion jakinmiñez Libek.

—Ire adiskide al-zan ildako mutilla, Malentxo? Jaungoikoak beregana eraman dunean, aren onagatik eramango zinan!

Negar-ujolari eutsi eziñik, mintzo-ikaraldika, erantzun zion arek:

—Nere senargaia uanan. Jaungoikoak orren azkar kendu didan ezkeru, gaurtik bertatik eskeinitz auxe zegionat. Ez diñat geien da geiago illeikidanik iñor maiteko.

Arrezkeru, urrengo egunetan, lore-txortaz apainduta azaltzen zan egunero Lasturretako baselizatxoko Ama Birjiña. Malentxok jartzen ziozkan lore ariek. An inguruetan bildu zezazkean lorerik naroenak eta ederrenak zeramazkion. Etxe-billera artakoak ziosaenez, ez omen

zan iñoiz egon baselizatxo aín txukun eta aín dirdaitsu. Bere eskuz zaitzen zun Malentxok egu-nero Ama Birjiñaren etxetxo. Elizbarrura garbi- ketara edo apainketara sartzen zan guztietan, maiteki laztantzen zun neska errukarriak Andere Mirenen semetxo. Aren aurrean belaunikatuta, otoizketan zegon bitartean, malkoen jarioak zearkatzen zion etengabe aurpegi zoragarria Dorronsoroko alaba gazteenari.

UZTARO

Bularretatik umoa ta emeia ganezka dariola datorkigu uztaroa udazkenaren eskutik. Edertasun bereiziz apaintzen ditu aro onek gure landalde zoragarriak. Biltzalleai deika diardue sagar umatuak zuaitz-adarrean, aize-arnasaren pean, dardarka; irripar dagie artaburu elduak zorro igartuen tartetik; lertu-zorian dira oraintxe babaleka txigortuak; morka mardulen kargapean makurtu bear izan due bizkarra matsondoak ere.

Izadiak ain zoro dakarzkigun esku-erakutsi aberatsak bildu-ala, lenengo aurtxoa jaio zaien etxekoen antzera, kantu-ots alaia jaurtitzen due or-emen biltzalleak.

Kantua darie, lan bitartean, garo-biltzalleai; kantua sagar-biltzalleai; kantu baba ta ardo-biltzalleai; baita maats-biltzalleai ere. Uztaroaren eresi entzungarria da artasoroetatik, maastietatik eta sagastietatik garai ontan barreatzen dan kantu-otsa. Olerkariak zionez,.

*«Udazkena da. Bero zitalak jun diranean,
»zein ederra dan, ibil ondoren, mendi-gañean,
»kezka gabeko atsedena!*

Amestu genezaken ikusgarririk zoragarriena agertzen digu oraintxe basoaldeak. Artoarena ta sagarrena da bereziki sasoi au. Senargaiaren zai dagon neska maiteminduak bezelaxe, dardarri-kara dagie sagar elduak zuaizburuan. Bigunkiro daragio dantza artasoroak ere bere motots txi-gortuari.

Orri igarrak, alkarren igortzian, ateratzen duten otsak, ez al-dirudi gaberdian sorgiñak izu-kariz dagizkienetakoa?

Ez du izango nekazariak oraintxe artoare-tzazko erruki aundirik. Orra nun dijoakion bioz-gabe sorora. Laster atertuko zaio artaburuari orriartetik darion irriparrea. Eldu atzamarrez eta ukaldi indartsuz bigurtuko dio lepoa eta ezpai-nondoetatik zintzilikatzen zitzaion bizar gorri leuna ere zearo muskilduz, arri-konkorra bai'litz, saskira jaurtiko du.

Bien bitartean, zuaizburura igota ari da lanean sagar-biltzallea. Leiarrezko pitxi ausierre-

za bezain arduratsu erabiliko ditu arek gazisagarrak bilketan mazpildu ta mallatu ez ditezen: jateko baitira sagar oek. Lastoartean umatuz, urrengo udaberriraño iraun dezaten, osasuntsu joan bear due sapaiko lasto-ogera; aurki ustelduko litezke, bestela, ango egonean, mallaturik joatekotan. Mueta askotakoak dira gaxisagarrak: errege-sagarrak, Yondone-sagarrak, sagarbeltzak, sagargorriak. Gozakia egiteko, berebizikoak dira, berriz, irisagarrak.

Sagar gezak, orratio, ez dira ain arduratsu erabili bearrekoak. Sagardaoa egiteko da mueta au; eta, bilketan zearo mazpilduta gelditu arren, etzaio ajola aundirik. Aurkixe zanpatuko, lertuko ta txikituko ditu sagar-jotzalleak tolarean sunpillaaren zartakoz. Orrez gañera, tolareko ardatzaren esian biraldika estutuz, aterako diozkae errai erdibikatuetatik azkenengo kondarretarañoxe umo-kutsu guztiak, patsari darion muztio gogoz etxeko upelak bete arte. Beraz, aal besteño aldia laburtzearren, agaz zartakoka, edota, bestela, zuaizburuari eragiñaz lurreratzen ditue biltzalleak sagar-gezak.

Izadia garai ontan emaez beterik datorkigun bezelaxe, gizonak ere ba-du, bere uztaroa. Bizitzako egiteen ordaña artzen dun garaia, alegia. Bizitzaren udazkena da.

«Gizon-aroko kiskaldasunak jun diranean,
»zein ederra dan, an, bizitzaren udazkenean,
»kezkarik bako atsedena!
»Belaunburuak erre dizkoen bideko asunak
»izan bitez gizonarentzat ikaskizunak:
»igalidun udazkena».

Baña zartzaroak ezetzik, egite guztiak dakarkioe gizonari, goiz edo berandu, uzta-garaia. Maitasun ixillari ateak eroki zabaldu orde, etsipenean luzaro iraun dun neskañoak irabazi du, noski, bere eroapen ederraren saria.

Legezko bidetik ertenda ibilli danak, berriz, buruan ustegabe artu dun zartako ikaragarria izango du ikasbide. Bizitzak noizbeinka damaizkigun dangateko oek dakarkigue bizitzako jakintzarik ederrena: etsipena, eroapena ta burumakurtasuna. Bizitzak lemaiguken emairik bikañe-

na ba-da, agian, Jaungoikoarekin beti erara ibiltzen ikastea.

* * *

Udazkeneko egun eder batean, sagar biltzen ari zan Balendin etxeburuko sagastin. Eskillaraz zuaizburura igota, kolkora biltzen zitun sagar-aleak, eta jetsialdi bakoitzean saskira ustu bildutakoak. Sagastin bertan pillatan agiri ziran tarteka aurreko egunetan bildutako sagardao-sagar-rrak. Itzaiak gurdizka tolarera eraman-ala, jotzailleak zartaka zanpatzen zituen. Argiro entzuten zan ordun ere sagastitik, sunpillen danga-otsa.

Balendinek sagar-gañetik aleak arduratsu kolkoratzen zitun bitartean, azpikaldeko koska batean eserita, gerizpetik begira zegokion Agerre. Arek saskira egin zun jetsialdi batean, egonaldiko atsedena buruzkatuz, Agerreri ondoratu zitzaion izketara. Baita onek, berriz, aspalditik bularpean azkuraka zerabilkin gaira eraman zun bereala izketaldiaren aria.

—Aizak, Balendin, zenbat urte dauzkak?

—Asko. Ogeta zortzi.

—Mutilzar gelditzeko asmoan al-aiz, edo. Ez al-dek izan beiñere ezkontzeko asmorik?

—Ezkondu? Norekin ezkondu litake ni bezelako morroi ezereza? Zure «kofradian» gelditu bearko —erantzun zion Balendinek parrezka.

—Arranopola! Baztarretan ba-dituk amaika neskata aundi-iritzikoak ere, irekin pozik ezkonduko lirakenak. Ez al-dek ortarako iñoiz neskarik begiz jo?

—Begiz jo...? Bai! Zertarako gezurrik esan? Ba-dira ederretsi ditudan neskatxak. Baña ederiritzirik, aien baietzera, alde aundia dago. Oso baldarra naiz maitasun-gaietan.

—Igartzen zaik, bai, mutil, gauza orietan ker-tenpiko aundi bat aizana. Ez al-dek barrundatu iñoiz norbaiten begiratu zorrotzik? —geitu zion Agerrek kiñuka.

—Nereganako? Ja, ja! Argindegiko neska zarrarena izan ezik, ez dakit beste norenik.

—Makala alena! Ez dago kirtenondo motela! Entzun ezak, Balendin. Mutilzar purrukatua nauk; ez dit ezkontzarako makurtasunik. Baña, norbaitekin ezkondu bear ba'nintz, bai al-dakik norekin ezkonduko nitzaken?

Zu? Nai zenzakeanakin. Zu zeran bezelako jaun aberats ata egokiari, zenek eman lezakio ezetzik? zenek egin lezakio uko, naiz aundizkietan aundizkienetakoa izan?

—Ez diak ondo aditu, Balendin. Gizon guztiak zerabiltzkigu biotzondoan gure amesak. Beraz, nik emazte-amesik izatekotan, zein dala deritzaik nerea oparo bete lezakidakena?

—Erregingaien bat...?

—Ez, mutil, ez. Loreakin gertatzen dana berbera gertatzen zaiek emakumeai ere. Zenbat eta dirdaitsuago, zenbat eta agiriago ibilli, ainbat zanpatuago ta oinazpiratuago. Arkaizpean edo sasipean ezkutuka dauden loreak dituk usaitsuenak eta ukigabeenak. Gizon zentzudunarentzat emakumerik aukerakoena ere, apala, ezkutu-maitalea, elizkoia, etxerakoia ta samurra bear dik.

—Zein izan litake orrelako aingerutxo ori?

—Ez dek igandik urruti bizi.

—Ez dakit nor izan liteken.

—Dorronsoroko etxepean bertan bizi dala esango ba'nik...?

—Gure etxean? Mikele neskamea?

—Ago ixillik, mutil. Izketa au atera ditan ezke-
ro, gorago jo dezakekalakoan egin dit.

Une ontan, lañopetik ustegabe begininia ziz-
tatu digun argizpia bezela, Malentxoren irudia
bururatu zitzaion batbatean Balendini ta mututa
gelditu zan, nundik jo etzekiala. Aurki igarri zion
Agerrek barrualdean zerabilkianari ta geitu zion:

—Zer derizkiok Liberi emaztetzako? Orra or
emakumetxo samurra, apala, etxekoia, maiteko-
rra. Gañera, edozein gizonen eder-gosea asetze-
ko laingoa ba-dek. Aren edertasuna, ordea, ez
dek lenengo begiraldian zorarazten duenetakoa.
Egunetik egunera orrizabalduz dijoanetakoa
baño. Ikusiago, eta maitagarriago ta kilikagarria-
go.

—Axeka al zabilkit, Agerre?

—Etzegok emen axekarik. Illargiaren adar-
puntan bizi aiz, oraindaño ezer oartu ezpa'dek.

—Gustatzen al-zaik ire etxekoandre gaztea?

—Nori gustatu ez ua dan bezelako anderetxo
txoragarria? Baña, egia esan, ukitzeko bildurra
damain loretxoa bezelaxe artu izan det beti Libe.
Ain da biguna; ain da samurra emakumetxo ori.

—Balendin! Gizon zentzudunaren zoriona egiteko, ez dek iñun orrelaingo emakumerik. Alde bikaña zegok orrelakoengandik, beren buruari begira beti bizi diranengana!

—Baña, Dorronsoron morroi utsa izanda, ausardi purrukatua bear nuke, ango alabarengana begiak jasotzeko. Oriek gauzak atera dizkidatzu, Agerre!

—Ez akidak orain aikomaikoetan asi, mutil. Esaidak argi ta garbi. Atsegin al-zaik Libe emaztetzat?

—Arranotan, zoro utsa bear nuke aingerua bezelakoxea dan neskatxa ez onartzekotan. Morroi zapogorria naizan onek ezetzik, beste edozeinek onartzeko laingoa ba-da, arraietan, Libe ederra. Zer egin dezaket, ordea, nik arlo ontan? Utzi eidazu pakean, Agerre. Obe zait biozparrengo amesai atea ez zoroki zabaltzea. Malentxo izan ba'litz, errezago ta gainberago nerizkioke arengana altxatzea; itzegiteko bidea noznai ematen duenetakoa baita ura. Baña, Libe, ez da Malentxo bezelakoa! Liberi dagokion bezela, biotz-eske urreratzeko, edertasunez eta

egokitasunez aundiro apaindutako gogoan bear litzake; nerea, berriz, trakets utsa izan...!

—Oriek dituk pilosopokeriak atera dizkidakana...!

—Ez dago or pilosopokeririk. Biotzaren mintzoa da entzun didazuna.

—Tira, ba. Ni ere, beti bezela, biotza eskuan dedala mintzatuko nauk. Emakumeak sakonki ezagutzen ez dituzuenak, algaraz eta arinkeri utsean jokatu bear dirala uste dezue, barrunbe-ko ezkutua erakusteko. Ez dituk, ordea, orrelakoak aukerakoak. Beste emakume oartibatzuk, ez diate azaltzen orren argi biozpekoa. Bai, orratio, ixilka, ustegabeko egite apalez, bigunki ta ezari-ezarian. Ez al-dek ikusi olakorik Libegan?

—Ez nik.

—Len ere esan dit. Illargiaren adar-puntan bizi aiz, mutil.

—Naiko maxio egin didazu, Agerre, ta utzi eidazu pakean.

—Gai orretzaz mintzatzen asi geran ezkeron, ez diagu osiña zearo agortu arte utzi bear. Ire ezereza beste eragozpenik ezpa'dek, Libe emaz-

tetzako ain atsegin ba'zaik, zuen bitarteko egin dezadan, ire baimena bear dit. Utziko al-didak nere eskura kontu au. Laster zabalduko dizkidak la zeritzaidak Libe zoragarriaren besoak. Zer diok, Balendin?

—Ez dakit zer erantzun ere, Agerre. Ain sineskaitz iruditzen zait gauza au. Dorronsoroko alaba ederrarekin ezkontzea. Nere etxeakoandre gaztearen senarra izatea. Nere burua zoratzeko laingoa ba-da, noski, korapillo auxe. Nai dezuna egizazu, Agerre; ezpaitago arloa esku baldarretan.

* * *

Illabete bi ba-zeramazkien Lasturretan Libek eta Malentxok. Zitoren eriotza zala-ta, buruan izugarrizko zartakoa erantsi diotena bezela, lenengotik Malentxo biotz-urratua ta zearo zantua gelditu zan arren, gero, egunak joan eta egunak etorri, noizpait berebaitaratu zan eta egunetik egunera gozatuz zijoakion samiñaldia; begitarte argituz. Ez da aldia bezelako urparrastarik samiñaldiaren beroaldia ozteko.

Antzuela eskalearen agotik jakin zitun egun batzuez geroago, Zitoren eriotzazko guztiak. Jaungoikoaren beatza argiro agiri zan ustegabe-ko ezbear artan. Betiko alderatu nai izan zun, nunbait, Jaungoikoak mutil arengandik. Zer leza-ke gizakume ezerezak, zorigaitzaldian, Jaungoi-koaren izena onetsi besterik!

Osabaren agindua betetzearren, joan zan, burua makurtuta, Lasturretara Malentxo, naiz bere gogoaz bestekoa izan etxetiko erteera ua. Illabete biz geroago, ordea, poz-pezik bizi zan ango bakartasun ukigarri artan, gogoko oroitza-pen gozoetan murgilduta. Ainbesteraño aldatu ziran gauzak orduetzkeru. Udazkenaren orpotik negua zetorren bereala ta biozmin zorrotza zemaion andik joan bearrak. Biotza antxe arrotu zitzaiola zirudin.

Libetzaz, berriz, ez dago zer esanik. Txikitandik maite izan zun arek baserrietako biziera. Atsegarri zitzaion baserriko lanetan astia ematea. Sineskaitza ta arrigarria zan, benetan, ango nekazariantzat, Libe zan bezelako andereño ika-siak eta aberatsak baserrialdeari alaingo zaletasuna izatea. Bere etxe apaiñean bezain alaiki

bizi zan Lasturretako mendi-baserri zarpillean. Malentxo bera ere, azkenerako, biotz-etsipenera makurtu zan ezkerre, geroago ta etsiago ta alaia-go zegoan bere aizparen ondoan.

Arto-biltzeko lanetan ari ziran agun arietan nekazariak. Artoari burua moztu baño len, emakume-aldrak biltzen ditue otartxoetara baba-leka igartuak, gero etxealdean, umeak zaitu bitartean edo seaskari eraginka, amonak astiro lekatu ditzan. Baba-biltzea bukatu orduko, arto-arengana dijoa nekazaria ta gerrialdeko orri txigortuak banaka kimatu ta xortatan bilduko diozka, artaburuak galdorrean zutik dauzkaten masalastoak larrugorrituta soroan bertan utzi arteraño. Negualdean belar ondua urri dabillean, abereentzako janari atsegiña izan oi da arto-ostoena.

Artaburuai dagokie urrengo txanda. Ez du nekazariak arietaz ere erruki aundirik izango. Ukaldi indartsuz bigurritu eta etengo dio lepoa ta saskira jaurtiko. Gero saskiz gurtesia ganezteraño bete-ala, gurdika eramango ditu marandiora, an etxeakoak zuritu ta aletu ditzaten.

Baña ez da amaitu, orrenbestez, arto-biltzearen lana. Gudari garaituen antzera, larrugorri ta burumotz gelditu dira soroan arto-kertenak. Noraño eraman bear ete-du nekazariak biozgabekeri larria? An dijoakie berriro. Atxur-ezpañez zuztarretik jota, lurpetik aterako ditu. Bijoaz alde batera masalastoak eta bestera zuztarrak. A ze nolako sualdia egin bear dun, negua sartu baño leen, soroan zuztar aekin eta inguruetan bildutako zaborrekin! Negute luzean, garoa urritu danean, abereai azpia egiteko, paregabekoak dira artolastoak.

Ba-ditu lan geiago ere artoak. Neke aundikoak izan arren, atsegarri zaizko nekazariari artoaren lanak; eskuarte naikoxe lasaitzen batio arto-uztak. Ez al-dira, gañera, urte-giroetan atsegiñenak artoaren garaikoak? Erein-garaian, udaberriaren iraduz lorez bitxiztatzen da basoaldea. Uzta-garaian, berriz, egoaizearen arnaspean emaia nunaitik dariola datorkigu udazkena.

Artaburuak gurdika marandiora eraman ondoren, artozuritzeari ekiten dio nekazariak. Bakoizka zuritu bear izaten zaie kaskarra. Uzta ugaria danetan, ez da izaten egun bateko lana

artoak zuritzea. Are geiagokoa da, berriz, ale-tzea. Lai-ortzetan karraska igortzikatuz askatzen zaie alea lokatxa zearo narrutu arteraño. Lan oek zerbait arintzeko, auzo-laguntzan jarduten dira gure baserritarrak. Alkarren gerizpean eta aitonak jaulkitako ipuñetara erne jarduki, egin-bear atsegiñak dira artoarenak.

Bazkalondoan bildu dira Lasturretako marandioan ere artozuritzalleak. Mutiko baten laguntzarekin Iñaxiok sorotik gurdika eraman-ala, ermo erasotzen diote zuritzalleak erdian jeikitzen dan pillari. Eskuazpian bildu lenengo orri igarrak-eta, belaun-gañean oinarri eginda, besteakin zartaka etenaz erazten diote artaburuari zorrozko jantzia; gero, abeondoko pillara jaurti. Pilla ori azitzen dijoan neurrian, ixuriko ditue onespenak edo gaiztespenak langilleak. Gutxitan bezelakoa da aurtengo arto-uzta. Artaburu aundiak eta ale astuna. Begitarte alaitzen zaio, demorriok ezpa'du, Iñaxiori, soroaldeko itzulaldi bakoitzean artaburu-pilla gora ta gora dijoala ikustean!

Lasturretan dira lanean Berraondo, Zepadi ta Leunda baso-mutillak. An bildu dira inguruko

baserrietako neskatxarik mardulenak. Baita atso berritsu batzuk ere. Nola ez gero? Eta jardunari eskuak egotzi-ala, utsa adiñeko iskanbilla ta zalaparta ateratzen due danen artean. Ango ijijia ta ango parrezka lertubearra! Atso zarrak berak izan oi dira gaiztoen olako batzarretan.

Batezere, zurrutarekin etxekoandrea azaltzen zan bakoitzean, itxas arrotua bezela, ganezten zan kolkoetatik itz-jarioa ta irrikarkara. Biziro alaitzen baitu patarrak biotzondoa. Eta, gañera, burua lanari bear bezela lotu nai ba'zaio, eztarriko legorra, ez da euslerik zintzoena; noizbeinkako bustialdia eskatzen du, arranotan, aobizarrak, arto-bizarrari darion autsak eztarria bein da betiko lazkartu ez dezan. Orrelako egonaldietan neskatxak egoneziñik jeikitzen dira; eta, arnasartzeko aitzakian, marandioko atera irtetzen. Arik ere baitarabilkie biozpean uzta kilikagarrria!

Illuntze-aurrean egin zuen langilleak marandioan bertan apari-legea. Apalondoko atsedendian, adar-ziztu bat atera zun Leundak kolkotik. Jotzalle egokia zan baso-mutilla ta arek asitako doñuari egotzi zioten danak agoa. Laster irten

ziran erdira dantzari ariñak ere. Andik orduerdirako, atsoak eta agureak ere aulkipean oñak geldiarazi eziñik zerabiltzkien leloaren arira dantza-eske.

Marandioan zerabilkien iskanbilla entzunda, Libe bertara igo zan batean, dantzaldi bat egiteko eskatu zioten. Berela makurtu zun arek burua angoen eskarira. «Bai, bai —erantzun zun irriparka. —Zergatik ez det, ba, egingo?» Eta Berraondo gazteakin egin zun dantza-saio ikusgarria. Antxumearenak bezain ariñak eta zailuak ziran neskaxa ederraren jauziak. Ua zan egoki dantzatzea! Nork esan alako andereño apaña alain ederki dantzatu bear zanik? Aokada batean zanzatzeko gogoia ematen zun andereño zoragarri arek, doñu politaren neurrira jauzika ikusita! Danak zebiltzan alai. Danak kantatzen zuen batzar artan. Danak oiugiten zuen ozenki. Ujuju...!

Baña agotik gainbera dijoan irri-karkara ta alaitasuna biotzarentzat atsegarri ta osasuntsu izan arren, eginbearra bere garaian bukatzeko, lanari burua lotu bearra zegon berriro. Gaberdirrarte jardun ziran arto-zuriketean eta, bein lana

bukatu zutenean, illargiaren argipean, bakoitzak bere etxeko bidea artu zun, Leundagandik entzundako leloari agoa kendu eziñik.

* * *

Andik egun batzuetara, Liberen eta Malentxoren billa joan ziran Lasturretara osaba Martin eta Agerre. Neskatxa bien tresnatxoak eta jantzizorroak astazaiakin aurrera bialduta, eguerdi-buruan jetsi ziran bidez-bide Aizarnara. Ibilli-ala, alkarrizketa jakingarriak zerabilzkien alkarren artean. Laurak batera joateko bide estuegia zegoala-ta, binaka zijoazen; aurretik Libe ta Agerre; atzeragotik, osaba Martin eta Malentxo.

Ara azkenengo oek zerabilkien alkarrizketa. Apaizak zesaion illobari:

—Ire naikundea lekaime joatea ba'da, ez diñat nik eragotziko; ire amak ere ez diñat uste. Baña orrelako erabakiak ez diñae bear beroaldian edo zorigaitzaldian artutakoak, luzaroan geldiro aztertutakoak baizik. Ezkonduak ere, Jaungoikoarekin erara ibilli ezkeru, lekaimeak bezain ondo irabazi lezakeene zerua. Ezkondu

nai izatekotan, berriz, ba-zeudan Zarautz eta inguruko errietan, i bezelako neskatxa batentzat mutil egokiak. Ez diñat uste Dorronsoroko alaba batek orretarako iñora eskean joan bearko lukeanik.

Osaba! —erantzun zion illobak—. Otz-otzean artutako erabakia da nerea. Ez du nere maitasunik izango iñork. Ondo erakutsi didala deritzait Jaungoikoak nere bidea. Ez dakit buruz ala burugabe jokatu nitzan ildako mutil ura senargaitzat onartu nuanean. Alabearrez bideratu zitzaidan. Eta nik, artean mutillekikorik ezer ez nekian neska ezjakiña izanda, mutil ua urreratu zitzaidan ezkerro, arenganako jarri nitzan; ez beste iñorentzako. Zertarako gezurrik esan? Biozki maite nun mutil ura. Baña gizakumeak baño goragotik ikusten ditu Jaungoikoak gauzak eta, ala zegokidalako, nunbait, bidetik kendu dit betiko. Beraz, orain Jaungoikoaren goiargiari bear bezela erantzutea dagokit.

—Baña bai al-dakin zer dan orrelako erabakiak artzea? Ondo aztertu al-ditun gorabera guztiak?

—Bai, osaba, bai. Gañera, emendik urte bira, nere asmoa sendotuko ezpa'litz, ertenbidea badaukat. Baña itxaro dedanez, tinko jarraitzekotan, zergatik gelditu ez betiko antxe bertan?

—Tira, ba. Ire zoriona an ba'lego, ba-oake niregatik, Malentxo. Arrituta negon, benetan, ire aldakuntza orrekin! Eman egion amari lenbailen, ere agotik, ire asmoaren berri.

* * *

Bien bitartean, bide okertsuan barrena, gainbera zijoazela, ara zer zesaion Agerrek Liberi:

—Libe, zurekin mintzatubear bat daukat; baña aurretioz zure baimena nai nuke.

—Bai al-lekarkit kalterik, zuregandik letorkidakenik ezer?

—Orain dakarkizudana, ordea, gauza bereizi bat da-ta, arloa bear bezela argiztatzeko, biotza eskuan dezula erantzun bear zianduke; zure kolkopea argiro azaldu bear zianduke. Txikitandik ezagutzen zaitut eta zure biotzondokoak ondo dakizkidan arren, zere agotik entzun nai ditut oraingoan.

—Jesus ene! Zer dakarkidazu, ba, Agerre? Jakinmiñez naigabetua naukazu.

—Ez bildurtu, Libe. Ara nere lenengo galdera. Lekaime joateko amesik izan al-dezu beiñere?

—Lekaime? Ez det oraindañokoan orrelako asmorik izan.

—Neskazar gelditzeak, berriz, az al-zaitu kezkatzen?

—Oraindik ez det uste neskazartzeko bidean naizanik; baña, egia esateko, ez da iñorentzat maitagarri mutxurdin gelditzea.

—Beraz, Libe, orrek danak esan nai luke Jaungoikoak emaztetzara deitzen zaitula. Orixe da jakin nai nuan gauza bat. Baña, ba-da oraindio geiago ere. Senargai bat bear zenduke ezkontzeko ta, nik dakidanik, beintzat, ez dezu.

—Beranduegi al-da oraindik? Mutil asko ibilli dira nereganako; baña nere gogokorik ez iñor.

—Oraingo nere galdera au, berriz, bai zorrotza dala! Biotza eskuan dezula mintzatuko zaidala eskeni didazu. Nik ekarri nezakizun mutil batekin ezkonduko al-ziñake?

—Zer erantzun nezakio galdera orri? Nor dan ikusi gabe, nolakoa dan jakin gabe. Ba-ditut, gero, nere amestxoak, Agerre!

—Nere mutil ori baño oberik gutxi dira. Langi-ilea, zintzoa, leiala, eskurakoia, zernaitarakoa, gizaseme bikaña ta jeikia. Ez da nolanaiko mutilla!

—Diozunez, aukerako mutilla izan bear du. Baña.

—Akats bat bakarra izan lezake mutil orrek zu bezelako anderetxo batentzat. Gutxitzat jotzea, ezereza iriztea, morroi utsa baita. Ordea, aren biotzak urrea balio du; zilarra baño aberatza goak dira aren eskuak.

—Orrelako morroi bat bakarra ezagutu izan det nik, Agerre.

—Bai nik ere.

—Zein da zurea?

—Nerea? Dorronsoroko morroia.

—Beraz, Balendinetzaz mintzatzen ziñan? —
oiugin zun Libek begietatik dirdai-jario.

—Bai. Balendinen alde natorkizu. Beste edo-zertan ain oitua ta ikasia dan mutilla, maite-jokotan oso baldarra da. Gañera, bere burua gutxi-

iritzian jota, emakumeengana urreratzeko ez da biderik onena. Nola ausartu liteke gizajoa zuga-
na zuzentzen?

—Ordea, ortarako bidea eman ezkeru.

—Orixe da bereziki jakin nai nuana. Aintzina-
tik nuan zure barrengoen berri, zuk uste izan ez
arren. Baña Balendini zerbait adierazi nai izan
diodanean, bai al-dakizu zer erantzun didan?
Nola ausartu liteke ni naizan bezelako morroi
ezereza nere etxekoandrearen alabarengana
begiak jasotzen? Maite zaitu arek; baña zuretzat-
ko laingoa eztauko usteak ozten du.

—Beraz, Balendinek maite nau? Emaztetzat
artuko ninduke?

—Bai, bai. Baña zuek alkar aditzeari ekin
dezaiozuten, bitarteko baten bearra dezute
lenengotik. Ortarakoxe bear det zure baimena,
Libe.

—Biotza eskuan dedala mintzatuko nazaizula
itzeman dizut. Orra or, ba, nere baimena. Zure
eskuetara nagokizu, Agerre.

Ezpainartean beti loratan zerabilkin irripa-
rra, oraingo ontan irriño gozo ta ezti biurtu zan.
Barrualdeko atsegiña ta zoriona adierazten zun

irriño arek. Agerre ere kolkopetik eginbear arduratsu bat irauli dunaren tankeran gelditu zan lasai eta zoriontsu. Biziro maite degun norbaiten zorionaren iturribide izateak, norkbere garaikundeak baño atsegin lasaiagoa ta zorion aundiagoa aizatzen dio maiz gizon zintzoaren biotzari.

Orrelaxe gainbera alkar-izketan zijoazela, muñogain batetik begiztatu zuen Aizarnako kalea.

Agoartean zerabilkien izketaldiari giltza emanaz, osaba Martinen eta Malentxoren zai oinkadak geldia gotu zituen aurreko bidari biak. Lenengoz Lasturretara joan zirenean baño alaiago zebiltzan bidarien begitarteak, arranotan!

* * *

Urrengo goizean, eguerdi-aurrean, sagastin gelditutako sagar-kondarrak biltzen ari zan Balendin Agerrekin berriketan. Ez omen zan izan aspaldin alaingo sagar-urterik. Berrogei gurdi ba-zituen, gutxienez, Dorronsoron sagardoa egiteko. Gazisagarrak ere asko. Ale txikiak ziran, baño ugariak eta osasuntsuak.

Sagarrondo baten gerizpean izketan ari ziran bitartean, etxeburuko langatik zear azaldu zan Libe, une artan, eguzki-izpia bezin eder. Alde batera ta bestera buru-itzulka zebillen zerbaiten bila. Begira zegokion Agerre otsegiteko zio baten zai; baña ez oartuarena zegian arek. Ordea, geroxeago, ollanda biren billa zebillelako aitzakian, sagastiko mugara urreratu zan gaixtoa ezarian. Orduantxe zijoakion eskura Agerreri biderik egokiena.

—Zeren billa zabiltz, Libe? —otsegin zion.

—Ez dira azaldu ollanda bi eguerdiarteko janaldira-ta, emen izango dirala uste det nunbait gordeta.

—Utzi egiezu, Libe, ollandai; goseak aterako baiditu laster gordelekutik, eta atozkit ona; zerbait galdetu nai nizuke, ba.

Ezker-eskuitako sasipeetara ta sastrakartera begiratzuz urreratu zitzairen Libe, aurpegiko irriño zoragarria utzi ere gabe. Orratio, egia esan, sekula baño ere zoroago zebilkion biotza kolko-pean naxitzo. Etzuan egundo ain jauzkari ta biurri barrundatu izan.

—Berri arrigarri bat eman didate gaur zuretzaz, Libe. Laster ezkontzekoa omen-zera, galdegin zion kiñuka ta parrezka.

—Ni? Zenekin, gero?

—Erregegaien batekin bearko. Zure ames oriek oso gora erabilliko dituzu-ta.

—Ez orixe! Nere gogoko mutilla izan ezker, e'lioke beste ezerk ajola aundirik.

—Zer bear luke, ba, mutillak zure gogoa asetzeko?

—Oetxek, beñepein. Zintzoa, leiala, langillea, ta osasuntsua izatea.

—Naiz txiro ta beartsua izan?

—Zer dauka orrek zerikusirik egizko biotzmaitasunean?

—Baña mutil ori morroi utsa ba'litz...?

—Morroiak ez al-due, ba, biotz zintzorik? Ez al-due gogo leialik?

—Nik ezagutzen det ondasun oriek guztiak dauzkan morroi bat.

—Baita nik ere. Baña nork lekike aren biotza norenganako dagoan?

—Ez al-dakizu zuk? Nik, orde, bai. Gañera, zerorretzat ere ez da gauza zailla ori berori jaki-

tea. Aizak, Balendin, ekatzak ire eskua. Baita zuk ere zerea, Libe. Nere eginbearra amaitu da! Orain zuen arteko eginkizuna da barrunbekoak alkarri argiro azaltzea. Agur!

Azkenengo itz oek mintza bitartean, sagastiko bidetxiurretik Dorronsororako bidea artu zun Agerrek; ango etxekoai agur eginda, bazkaltzera joateko garaia zetorkion, ba, gañera. Eskuak alkarrekin kurutzatuta gelditu ziran Libe eta Balendin aurpegiz-aurpegi, begietatik dirdaiak zeriztela. Katakumetxo bat bezin bigun eta zoli ondoratu zitzaion Balendini neska lilluragarria, aren maite-itzen egarri. Erditoteldurik eta zora-bildurik zegon, berriz, mutilla, Dorronsoroko alaba ederraren aurrean. Gezurra ta amets utsa zerizkion ainbesteko zorionari.

Bein neskak biotzaren atepak alderen-alde zabaldu ziozkan ezkerre, egoki jokatu zan, orratio, Balendin. Ala zegokion ere, ura zan bezelako apustulari ikasiari, beste maite-joko onetan ere. An jaulki zizkoen alkarri irriparka ta jolas-bitxietan ordurarte alkarrenganako izan zituen bildurak eta ikarak. Gizadiaren zoria da beti biotzon-

dokoak estaltzen eta ezkutatzen ibilli bearra! Alazion, beintzat, Libe biotz-zabalak.

Balendinek, bere atsegin eta zorion osoan, parre zegian etengabe lasai eta baietza zemaie n oargabe neskaño txoragarriak zesaiozkan guztiai. Nola ezeztu marrubizko ezpainarte ezti aetatik ertendakorik? Nola alkar maite ez biotz zintzo ariek biak? Nola maiteberotu ez bereala soin osasuntsu ariek biak? Nola sutu ez aurki gogo indartsu ariek alkarren ondoan? Maitaleak, orde, ez due nai izaten ikusleen begiraturik. Utzi ditzagun, ba, maite-kiman, zorion-atsegiñean zearo murgilduta, neska-mutil biak.

* * *

Urrengo asteko egun batean, Martin nagusi jaunak goiko gela nagusian lanean ziarduan bitartean, Balendin joan zitzaion zerbaiten galdezka. Oi bezela, maiteki artu zun arek morroi leiala. Gelara sartzen ikusi orduko, ara nola galdegin zion:

—Zer dakarkik, Balendin?

—Gaurtik aurrera nere ordezko bat billatu bearko dezula esatera natorkizu, nagusi jauna.

—Zer? Zergatik?

—Etxe ontatik ertetzeko asmoa dedalako.

—Zer gertatzen zaik, ba? Ez nian olakorik asko uste! Etxekotzat indukadan nik, beintzat. Geiago irabazteagatik ba'oa, eskaidak nai bezainbat. Beste zerbategatik ba'litz, berriz, esaidak zergatik artu dekan orrelako asmoa. Dana zuzendu litxeikek! Au dek buruaustea dakarkidakana ustegabe!

—Etzaite kezkatu, nagusi jauna; etzazu bururik ausi; laster bertara itzultzeko asmoan noa-ta.

—Ala ba'da, ainbestean. Baña, nora demorrio oa, ba?

—Nere gurasoen etxera; baña aurki Dorronsorora itzuli ta bertan betiko gelditzeko asmoan, zuk eragozten ezpa'didazu, beintzat. Ordun, orratio, ez morroi bezela; zure illoba bezela ta Liberen senar bezela baizik.

—Arranopola! Ez didak kezkaledi txarra eman gaizto orrek. Asi eikean ortik lenengotik.

Pozez ganeztu bearrean entzun zitun apaizak Balendinen azkenengo itzak. Etxekotzat euki

izan zun beti arek morroia eta naigabe aundia emango ziokean, noski, aren aldegiteak. Orain sendiartera zetorkiolako, atsegiñez artu zun eraman zion berria. Ez dira gaurko egunean, noznai eta nunai aurkitzen diranak Balendin bezelako gizonak!

Pozaldiaren iraduak eraginda, Liberi deika ekin zion gelatik bertatik. Zelatan zebillen ua, ordurako, ta osabaren deia entzun orduko, bina-ka gairiditu zitun eskillaratako mallak. Gelara sartu zanean, egon eziñik, galde au egin zion osabak, Balendinen aurrean:

—Beraz, Balendinek esan didanez, ezkontzarako alkarri itzemanda zaudete?

—Bai, osaba; alaxe da.

—Tira, ba. Orra or nere onespina. Onetsia dedilla Jaungoikoa! Bein orrera ezkerro, gauzak lenbailen aurrera eramatea dagokizue. Dorronsorok Balendinen laguntzaren bear aundia dauka. Baña, ezer egin baño len, jarri ezazue ama jakiñaren gañean. Ez diñat uste ua ere asko naigabetuko danik! Ederki, ederki! Zoazte, ba, Jaungoikoaren onespinarekin.

Besarka maitekor batekin eman zion Balendi-
ni bere baietzaren agiria. Egun artan Dorronso-
roko biotz guztiak alai ta pozik zebiltzan. Biotze-
ra, maiatzeko ura bezela, bigunki ta ezarian sar-
tzen dan zoriona izan oi da iraunkorrena ta sako-
nena, ala irudi ez arren.

AZKEN-ITZA

Gizonaren bizitza! Alaitasuna ta atsekabea, poza ta biozmiña, argialdia ta illunaldia besterik, zer da? Zer izango litzake gizonaren bizitza, ludian lorerik, irriparrerik eta eguzkirik ezpa'litz? Bear-bearrekoak dira giza-biotzarentzat pozaldiak eta argialdiak. Ordea, noizdaño iraun lezake ludiko zorionak?

Zoragarria da, benetan, udaberria, poza ta alaitasuna alde guztietara zabalduz datorkigunean. Maitagarria, aurtxo jaioberriaren irriño ezta; beazunik egundo izan ez dun irriñoa. Begientzat atsegingarri, berriz, basoaldean bere orriak lenengoz eguzkiari zabaldu diozkan lorea.

Orratio, bere bideetan aurkitzen ditun irriparrak eta loreak ez diote luzaroan iraungo gizonari. Udazkenaren ondoren negua datorren bezelaxe, alaitasunaren ondoren negarra ta itundasuna elduko zaizko. Ollanda zuriari atzaparrak eransteke, sasipean ezkutatuta, basakatua ilunaurrean egoten dan antzera, bizitza-bideetan

atsekabea ta samiña, biotzean atzapar zorrotzak sartu-naiz irtengo zaizko gizonari.

Eta, a ze nolako aldakuntzak egiztatzan diran olakoetan gizonaren bizitzan! Leen ain zoragarri iruditu zitzaigun udaberriko zerua, goibeldu ta lañatu zaigu; basoaldean ain eder agiri zan loreak, bidariaren oinazpian burua makurtu bear izan du. Nora juañ dira, berriz, gure inguruan oartzen genuzan irriparreak? Atsekabe garaia da; biozmiñaren ordua da.

Orratio, illunaldian ez du gizonak iñolaz itxaropenik galdu bear. Argialdiaren ondoren goibelaldia sortu dan bezelaxe, ekaitzaldiaren ondoren, eguzkialdia etorriko zaigu berriro. Arrantzaleak ekaitzaldian iparraldeko izarrari begira ontziaren ibilliak zuzentzen dituen bezelaxe, berorrelaxe zuzendu bear ditu gizonak argira bere urratsak: itxaropenera. Olakoxea da gizonaren bizitza.

Argialdi ta illunaldi orietan itxaropenaren argiontzia egundo itzali ez dakion, laguntzat etxebarrura aingeruxo bat joan ba'zaio, aurkitu lezakean bitxirik aberatsena eskuratu du gizonak, agian. Udaberriaren irriño gozoa, lorearen

edertasuna ta eguzkiaren epela egunero inguruan sortzen dakian emakumetxo. Aldare-ondotan beti zutik eta beti ernai irauten dun argi itzali-eziñaren antzeko irriñoa! Bai alda ludian araingo zorionik?

* * *

Uztaroak ain eskuzabal emandako emaiak saltzeko, negutean baserritarrak or-emendik azokara bidean dijoazen garaian, eldu zitzaien Dorronsorokoai ere, nork bere egiteen ordañak jasotzeko aroa.

Negua sartu baño len izan zan Liberen eta Balendinen ezta-eguna. Osaba Martinek ezkondu zitun eta Liberen ama Josebe eta Agerre izan ziran amabitxi ta aitabitxi. Naitaezkoa zan Agerre, Dorronsoroko gertakizun guztietan, naiz alaialdietan, naiz itunaldietan. Zorionaldian ezetzik, zorigaitzean ere adiskiderik zintzoena bezela jokatu zitzaien beti Dorronsoroko guztiai. Nun aurkitu ua bezelako adiskiderik? Sendiartekoe-tan ere, ez noznai.

Geroago ta maiteago izan zun Balendinek bere emaztetxo. Liberen soin-edertasunarekiko berbera gertatzen zitzaien norbaitzuei aren gogo-ondasunekin ere. Etzan Liberena, edertasun ziztatzalle ta dirdaitsuetakoa; baña, begira jarri ezker, ikusiago ta atsegiñago, geroago ta zoliago. Gogo ondasunak, berriz, bear bezela aztertu ta neurtzeko, aren ondoan bizi bear zitzakian. Eguneroko zeregiñetan, bizitzako gorabera larrietan, etxebarruko eginbearretan, gau eta egun, goiz eta arratsalde, ezagutu genezazke ondoen onelako emakumeen biotz-ondasunak.

Zugazetik urtumea bezela, ama Joseberen arikoa irten zan Libe. Inurria bezela beti lanari lotuta zebillenean, etzuan iñork egundo aren txintik entzungo; ez oiurik, ez garrasirik, ez aienarik, ezta ere egundo itz bat bestea baño gorago. Beti isil, beti zoli; etsi-etsian bizi zan, zoriona noranai eskuzabalka barreatuz. Etxe-barrura sartu gabe, nork esan zezakean etxe artan emakumerik bizi zanik? Ezpai zuen emakume-txintik egundo entzuten...!

Seme-alabak izan zituen Libek eta Balendinek. Aitaren egokitasunaz, zintzotasunaz eta

osasunaz gañera, amaren bigundasuna, otxandasuna ta edertasuna artu zituen gurasoengandik soin eta gogoetan.

Andik geroxeago, Zumaiako lekaimetxe batera joan zan Malentxo etsipen osoan. Sakonak eta larriak izan ziran, benetan, aren biotzak artu zituan zauriak. Bizitza guztian odol-jario ibilli etzedin, bildu zan lekaimetxeko babesera. Josuganako maitasuna lakorik ez da orrelako zauri samingarriak gozatzeko.

Negu artan bertan ezkondu zan Lopategiko Agustin ere. Norekin buztartu zanik esan bearrik bai al-dago? Bai al-zegon arentzako iñun, Getariko Matxinen alaba Yolandaren pareko neskatxarrik? Oek ere, ondorengo batzuk izan zituen.

Ara nola betikoratzen diran gurasoengandik semeengana eusko-sendiak eta sendi-oiturak!

AMAIA